



HAIN NORMALIZATUA DAGOEN ALKOHOLETIK IHESI

Alkoholiko Anonimoen talde bakarra dago eskualdean: Beran. Asteazkenero hantxe biltzen dira alkoholarekin arazoak izan dituzten Baztan-Bidasoko hainbat herritar. Alkoholak egiten duen minaz aritu dira TTIPI-TTAPAREKIN: «Alkohola edozeinen eskura dago eta konturatu gabe bere atzaparretan harrapatzen zaitu». / 10

FREEPIK

Integrazioaren aldeko pausoa

Behar bereziko ikasleen ongizatea bermatzeko trantsizio gela sortu dute Doneztebeko eskolan. Badute gela multisentsoriala ere. / 8

SINADURAK



Donezteben horma-irudia margotu duen Karmele Martinekin kontu kontari / 32

Lurretik ikasiz proiektua abiatu dute ekoizleek ikastetxeekin / 31


Leitzako eta Aresoko produktuen azoka azaroaren 12an Leitzan / 44

Herriguneak biziberritzeko proiektuarekin ari dira Baztanen / 46

Zigako eskola ez dela hetsiko erran du Nafarroako Gobernuak / 51



ZOKKETA / 68



BERA LESAKA Agenda 2023

AZAROA

23 ^{TIK} AZAROAREN 16 ^{ERA}	ERAKUSKETA "KABIAK" LIBURUTEGIAK 2023-2024 14:00-20:00 Lesakako Liburutegia AZAROAK 16 KAMISHIRAI 17:30 Lesakako Liburutegia HITZALDIA 18:30 Lesakako Liburutegia	11 LARUNBATA	BERAKO EKOIZLEEN MERKATUA 10:30-13:30 Beraudeneta	22 ^{TIK} 23 ^{RA}	LESAKAKO PERIAK 2023
3 ORTZEZUNA	KANTU TALERRA JUBILATUEN ELKARTEA 17:00 Kontzertuak 7	18 24 25 LARUNBATA	SANTA ZEZILIA 2023 LESAKAKO MUSIKA TALDEEN KALEJIRAK	25 LARUNBATA	LIBURU AURKEZPENA "SORTZE BERRI BAT INDARKERIA OBSTETRIKORIK GABEA" CITTUXU FERNANDEZ 11:00 Udal Pasa Aretoa
4 LARUNBATA	ANTZERKIA INTXAUERRA MAIURU ANTZERKI TALDEA 19:00 Kultur Etxean Sarrera: 6€	18 IGANDEA	ANTZERKIA ENTRE TINIEBLAS (KAI KINO) 19:00 Kultur Etxean Sarrera: 4€	26 IGANDEA	ZAHAR ETXEAREN ALDEKO FREESTYLE IKUSKIZUNA 17:00 Toki Onako patinoi Antolatzaileko Puzbox Factory
5 IGANDEA	AURKEZPENA LESAKAKO ROQUE'S ORGANIZAREN LAGUNAK 18:30 Berrindoa - Kultur Etxea	19 IGANDEA	LESAKAKO BERTSOLARITZAKO IBILBIDEA OINAZ BIDEAN 11:00 Berrindoa ikuslata	26 IGANDEA	KEINU LEIHOAK ANTZERKI JARDUNALDIAK IDENTITATEAK ORATZKARO 18:00 Berrindoa Kultur Etxea Sarrera: 6€
11 LARUNBATA	LIBURU AURKEZPENA "LOS DESCALZOS" FRANCISCO JAVIER TRABERCI "3007" 19:00 Udal Pasa Aretoa	20 ASTELEHENA	SANTA ZEZILIA EGUNEKO KONZERTUA 18:00 Musika eskola	27 ASTELEHENA	EUSKARA IBILTARIA ERAKUSKETA (EUSKALTZAINDIA) EKITALDIAREN HASIERA 18:00 Kultur Etxeko eskolako gela

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus



NIRE TXANDA

LUCIA ETXEBERRIA ARANAZ

Zuzenekoan gaude

Munduari begirada azkar bat botatzea nahikoa da, egungo sistemaren garapena goraiatu nahi duenak birritan pentsatu behar izateko.

Zuzeneko genozidio baten lekuko izaten ari gara. Irudien tsunamiak azpian hartzen gaitu, begien aurrean zabaltzen zaizkigu suntsiketaren eszenak. Honekin batera, ordea, bihotzgabetasunaren txertoa sartu digutenaren susmoa dut.

Izan ere, nonahi daude «milaka haur hil dira» bezalako

mezuak, erietxe eta eskolak «suntsitu dira», gazatarrek «ihes egiten dute» edo familiak eraikinen azpian «geratu dira», patuaren zoria balitz bezala. Sarraskia eta garbiketa etnikoa, berez gertatu beharreko zerbait izanen balira bezala. Jasangaitza egiten zait, mendebaldeko estatuen ankerkeria onartzea besterik ez dagokigula sinestea.

Dakienak esanen dit, historian zehar gizakia noiz egon den horren lasai estatu baten krimenari begira. Geldirik jarraitzen badugu, pantailen aurrean zuzenekoan egoteak, hain zuzen, zuzen ez egotera eraman gaitzake. Biharrak argituko digu.



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Gasteizen ere zakurrak oinutsik

Zakur iharrari lotzen omen zaizkio kukuso guztiak eta bi nagusiren zakurra gosez hiltzen omen da, baina ez zaio halakorik gertatu (momentuz) Gasteizko Udaletxean bere jabeen ezkontzara joatea lortu duen Mak zakurrari. Sinadura bilketa eta guzti egin dute (nagusiek, ez zakurrak). Bakoitzak gure borrokak ditugu, baina... Oinutsik joanen ote da?

NABARMENTZEKOAK



EKAITZ
BERTIZ
ZINEMAGILEA



ANE
ELZAURDIA
LASTERKARIA

Ekaitz Bertiz Apezetxea Sunbillako zinemagile gaztea saritu dute Madrilen eta Lekeition *Eklipse morala* eta *Hitza eman nion* lanengatik. Zorionak bi sariengatik!

Galdean jokaturako Basajaun Trail lasterketa irabazi du Berako Ane Elzaurdia Mentaberri lasterkariak. Tolosako Alpino Uzturre taldearekin lehiatzen hasi berri da.

GIBELERA BEGIRA



2013-10-31 · TTIPI-TTAPA · 601 zk.

Pentsioen erreformaren kontra haserre

Duela 10 urte, 2013ko urrian, Espainiar zein Frantziar estatuetako gobernuak aldaketak iragarri zituzten pentsio sisteman. 2014tik aitzinera, pentsioak KPI Kontsumo Prezioaren Indizearen arabera berritu beharrean, Gizarte Segurantzak zituen diru-sarrerara eta gastua araberakoak izatea onartu zuen Espainiako Gobernuak. Frantzian ere jomugan zeuden pentsioak, 2014tik aitzinera pentsioa osorik jasotzeko kotizazio urtea 41,5 urteko 43ra igo nahi baitzuten. Horrek eskualdeko pentsiodunen haserrea eragin zuen, eta horietako hainbaten hitzak bildu zituzten TTIPI-TTAPAK. «Lapurreta», «iruzurra», «enpleguaren kontrako eraso», «herritarrak engainatzea» hitz horiek erabili zituzten, eta salatu zuten erreformaren ondotik «pobreago» izanen zirela.



erran.
eus



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 45€
eta Malerrekako 36€
Leitza 36€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 100€
Amerika eta Australia 152€



KOLABORAZIOAK

IRATXE MUXIKA KARRION

Ikasteko moduak

Ohi baino urrutixeagotik idazten ari naiz oraingoan, zeri buruz ongi ez jakin eta inspirazio bila.

Adinaren inguruko aldizkari bat egin behar izan dut klaserako, akaso hortik hasi ninteke tiraka. Adinarena kontzeptu irekiegia egiten zitzaidan arrakalarik gabeko aldizkari bat idazteko, eta, beraz, elkarriketak egiten hastea erabaki nuen. Zeren bila nenbilen ez nekienez, elkarriketatuak argibide bat eman ziezadan bilatzen nuen, behintzat. Gauzak horrela, nerabeekin, gazteekin, irakasleekin, gurasoekin eta zaharrek batu nintzen banan-banan eta bakoitzak elkarriketa propioa eraiki zuen arren, bazegoen gai bat guzti-guztiek ukitu zutena.

Hasieran ez nintzen guztiz jabetu gai horrexek zeukan garrantziaz, baina mugikorrek grabagailukoak paperera pasatzeko orduan, eta, beraz, hitz bera behin eta berriz idazteko orduan ikusi nuen jada erabakia zegoela aldizkariaren fokua zein izanen zen. Damua.

Nerabea damu zen lagunekin haserretua zelako bart. Gaztea errukitzen zen ez zelako zenbait gauza aurpegira errateko gai izan. Irakaslea, orde, arduratzen zuen lanera sartu aitzinetik etxean edukitako eztabaidak, bikotekidearekin eta seme-alabekin. «Ez niekeen oihera egin behar».

«EZ DUT USTE LAGUNGARRI Z AidANIK DAMUA, EZTA ZURI ERE»

Gurasoa damu zen amari errandakoez, eta, zaharra, erran ezin izandakoez.

Elkarriketa amaieran, baina, galdetu nien ea zerbait aldatuko luketen euren bizitzetan. Erantzuna ezezko

erabatekoa izan zen guztientzat. Galdetzea ere. Gauzak aldatuz gero, ez liratekeela hemen izanen.

Ez nuen ulertzen. Edo ulertu baino gehiago, ez nintzen ongi sentitzen.

Nire damuetan pentsatzen hasi nintzen hurrena, eta ohartu nintzen nik ere baditudala, eta ez bat eta ez bi. Halabeharrez, damuak izatea erabat ulergarria zela azaldu nion nire buruari, baina tristura handia eragiten zidan pentsatzeak egunero-egunero damutzen garela egindakoez. Edo ez egindakoez. Edo uste izandakoez. Edo...

Irakaslea ez zen sobera harritu, are gehiago, ongi ere iruditu zitzaiola uste dut. Damuarekin ikasi egiten omen dela, galdutako baino gehiago. Berdin-berdin —edo okerrago— atera nintzen klasetik.

Ez nion damuari irtenbiderik bilatu, egonen denik ere ez dut uste, baina ez nuke pentsatu nahi etengabe ari naizela atzokoez damutzen. Ongi nago nagoen tokian eta ez dut uste damua hagitik lagungarri zaidanik, ezta zuri ere. Akaso irakatsi izanen dit zerbait, edo anitz, baina nahiago dut sinistu bertze ikasteko modu bat bilatzen dudala nik.

Dena den, ez dakit geure buruek utziko ote liguketen damurik gabe bizitzen.

Ez dakit, akaso ez nukeen hori hori guztia erran behar.



IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

Euskararen Eguna, gozo-gazia

Urriar Zubietako herrian herritarrok ilusioz beterik itxaroten dugun eguna izaten dugu, Euskararen Eguna, hain zuzen ere. Aurtengoan, gainera, 40. urteurrena ospatzeko irrikan geunden denok, eta herriko gazteek asteburu bikaina antolatu ziguten, denon gozagarri izateko.

Egitarau zabala izan dugu aurtengoan, ostiralean eta larunbatean aurrera eramateko. Hasteko, ostiral arratsaldean Joseba Sarrionandiarekin hitzaldia izan zen herriko eskolan. Egia esan, txiki gelditu zen eskolako beheko solairua. Euskara eta euskal literaturaren inguruan hasi zuen bere solasaldia eta bere ikuspuntua azaldu zigun. Benetan interesgarria izan zen eta hausnarketa egiteko bidea ere eman zigun hara gerturatu gineno.

Bitartean, pintxo lehiaketa eta dastaketaren ondotik, mus txapelketaz gozatzeko aukera izan zen.

Larunbat goiza egun ederrarekin argitu ondotik, plaza herriko artisauez bete zen. Eguerdian partean, herritarren arteko aizkora apustua, eta nola ez, joaldunek ere joareak astindu zituzten.

Ondotik, bazkaria, urteetan izan den jendetsuena. Haurrek ere gozatzeko aukera izan zuten arratsaldean Marsel magoaren magiarekin, eta bazkaldu ondotik, Iker eta

«BEHARREZKOA AL DA HORI GUZTIA EGITEA ONGI PASATZEKO?»

Bitorik bertso saio polita eskaini ziguten. Turrutxiki txarangarekin herriari buelta eman ondotik, eguneko ekitaldi berezietako bat izan genuen, Korrontziren emanaldia, herria dantzan jarri zuena.

Gau partean Trikidantzek giro ederra jarri zuen. Baina denak ez geunden plazan dantzan. Bitartean, herriko girotik ihesi zebiltzanak baziren eta sarraski ederra egin zuten. Kotxe bat ebatsi eta landan, udaberritik lanean jardun zuten nekazarien lanak txikitu, itxiturak urratu, motor bat lapurtu (oraindik agertu gabe dagoena), zenbait etxetako atarietako loreontziak apurtu, estalpeko komunetan sarraskiak egin eta dena urez beteta utzi, estalpeko hoditeriak edo *tuberiak* okertu...

Hau guztia biharamunean ikusi genuen, eta asteburu gozo bukatu beharrean, gazi bukatu zen benetan guztiontzat.

Beharrezkoa al da gauza hori guztia egitea ongi pasatzeko? Herriko gazteek lan ikaragarria egin zuten guztiontzat asteburu bikaina prestatzen eta horrela bueltatu behar zaie egindako lanaren ordaina? Ikaragarria.

Lerro hauen bitartez, herriko gazte antolatzaile guztiak zoriendu nahiko nituzke, denontzat prestatutako egitaraua eta egindako lana zoriontzeko modukoa delako, eta beste lanak egiten aritu zaretenei, mesedez, falta dena bueltatu eta gure herrira modu zibiko batean ongi pasatzera etortzeko eskatzen dizuet, jarrera hau ez dadila ohitura bihurtu.

11 GALDERA LABUR

ANTTON ETXEBERRI DAINZIART SARAKO GAZTEA

«Jendeen irriaraztea maite dut gehienbat»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Bizia maite duen eta uros den gazte bat. *Besteroa* eta kirolaria, biak betan ez badira sobera koherenteak ere.

Zein afizio dituzu?

Kirola zentzu zabalean. Ttikidanik pilotan aritu naiz, baina berriki pilota txapelketak utzi ditut errugbian aritzeko Saran eta realzalea naiz, noski.

Kirolean ikusle edo kirolean arituz, noiz gusturago?

Aritzean dut plazer gehiena hartzen, konpetizio zentzu hori baita beti.

Noiztik jokatzen duzu errugbian?

Hemezortzi urterekin hasi nintzen, orain bortz urte. Lehen lerroan aritzen naiz.

Derbia irabazi omen duzue berriki. Gustura?

Azkaineren aurka, partida hertsia eta engaiatua izan da. Partiduan giro espeziala izan da eta bukaeran besta egin dugu denek elgarrekin!

Errugbi partidetan edo lagunarteko pilota partidetan, noiz izaten da lehia gehiago?

Errugbian irabazteak kalifikatzeko parada ematen ahal digu eta lagunartean, gure artean trufaka eta parioka ari gara; baina lehia bietan izaten da.

Mikrofono aitzinean ere ongi moldatzen omen zara...

Gaztetan gaztetzearekin ihauterietan auzia idazteko eta errateko norbait behar zen eta niri tokatu zitzaidan. Plazer hartu nuen eta geroztik urterro egiten dut. Korrikako ekitaldian ere solas egin nuen behin eta orain gai-emaile



aritzen naiz Sarako bestetan. Egia erran, jendeen irriaraztea dut gehienbat maite horrelako gauzak egitean.

Bestarako ere baduzu tartea?

Bai noski! Lagunartean, gaztetzean edo familiarekin beti momentu goxoak pasatzen ditugu!

Gozatzeko, aitzinetik lana egin behar...

Bai, Sarako gaztetzeko kidea naiz eta urtean zehar antolatzen ditugu gaualdiak, kontzertuak... Gure artean giro

biziki ona dugu eta Sarako bestak antolatzen dituen gazteriarekin ere bai, elkar laguntzen dugu behar denean!

Bestondoa pasatzeko zein da zure sekretua?

Sekretua ez dut oraino atzeman maleruski! Besta berriz egitea beharbada?

Zer du Sarak soberan eta zer faltan?

Bigarren etxebizitza sobera badira eta duela zombait urte hetsi den ostatu mitikoa, Portua, falta da.



Denboraldi berria

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Mairidireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Ez naiz europarra**JOAN MARI BELOKI KORTXARENA**

Ez dut europarra izan nahi. Oraintxe euskalduna, kitto. Europar Batasuna gobernatzen duten jaun-andre txit goren horiek baino bertago sentitzen ditut bizi duin bila Europarantz pateratan abiatzen diren afrikarrak, mundu kapitalista aberatsak hartutako konpromisoak bete gabe baztertuta dituen sahararrak, beren Gobernu naziak urteak joan eta urteak etorri bonbardatzen dituen donbasstarrak edota une hauetan genozidio basatia pairatzen ari diren palestinarrak, adibidez. Pedro Sanchez, Ursula von der Leyen eta Josep Borrell hirukoak ordezkatzeko duen lorategi ustel horrek kiskali egin dizkirate erraiak. Genoziden alde beti. Zelenskik Ukrainan, Mohammed VI.ak Marokon eta Netanyahu Israelen jaso dituzten besarkada, txalo eta «biba zuek» guztiek EBko goi mailako politikoez gizatzen galdu izanaren isla dira.

Gazan palestinarrak egun hauetan bizitzen ari direna eta gero, mundu zabalean bizi den orok ezin du berdin jarraitu. Bonbapean hildako umeen argazkiak ez ditugu orain lehen aldiz ikusi, baina aurrekoak denok ditugun autodefentsarako mekanismoak burmuineko soto ilunen batean zeuzkaten gordeta. Orain, indarra biderkatuta, lehengo eta oraingo argazkiek erraietan berpiztu digute geure bizirik alboratuta genuen mina eta oinazea.

Noraino irits daitezke gizaki baten barruan gaiztotasuna eta krudeltasuna? Netanyahu badaki bere bonbek ez dutela ukitu ere egiten Hamaseko jendea eta indarra, hauek eta beren armak lur azpian ongi ezkutatuta baitaude. Milaka bonba horiek guztiek zibilak hiltzen dituzte soil-soilik, eta gehienak umeak eta hauen amak eta aiton-amonak dira. Netanyahu gorroto eskola zurrunez babestuta dago eta bere krimenek ez diote barrua astintzen. Ume horien negar hotsak ez

zaizkio barrura iristen, hain baita gogorra eta iragazgaitza bere larruazala.

Lurra kendu zieten lehenik. Etxeak ondoren. Pareta handiko kaiolan bizitzera kondenatu zituzten azkenik, bizi baldintza miserabletan bizirauteko beste aukerarik gabe. Orain basamortura bota nahi dituzte. Hala aitortu dute sionistek.

Uko egiten diot europarra izateari. Palestinarra naiz, Gazan bizi ezinik bizi diren lagunak bezalaxe. Donbasstarra naiz, Donetsk egunero bonbapean bizi ezinik bizi diren lagunak bezalaxe. Sahararra naiz, Tindufen jaio diren eta oraindik ere jaioko diren milaka ume horiek bezalaxe. Sentimenduz behintzat. Europarra izatea jasanezina da.

Gerrak debekatu behar dira**XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ**

Testu hau orain dela bederatzi urte idatzi nuen, baina, zoritxarrez, inoiz baino gaurkotasanik handiena dauka, horrexegatik argitaratu nahi dut berriz ere.

Zergatik? Hona hemen 28 arrazoi:

1. Etxeak suntsitzen dituztelako, eta etxeak suntsitzea galarazia dago mundu osoan.
2. Gerrak nahita suteak sorrarazten dituztelako, eta hori eragotzia dago herrialde guztietan.
3. Gerrak kutsadura ikaragarri handia sortzen dutelako, eta kutsadura sortzea gaur egun oso jazarria dago.
4. Gerrak eskolak eta unibertsitateak puskatzen dituztelako, eta hori onartezina da planeta osoan.
5. Gerrak ospitaleak txikitzen dituztelako, eta ospitaleak txikitzea aberrazio hutsa da.
6. Gerrak animaliak izutu, zauritu eta hil egiten dituztelako, eta horrek ez ditu pertsonak hobetzen.
7. Gerrak urak zikindu, kutsatu eta pozoitzen dituztelako, eta ekintza hori osasungintzaren aurkakoa da.
8. Gerrak artea, museoak eta desegiten dituztelako, eta hori adimenaren kontrakoa da.
9. Gerrak kulturak birrintzen dituztelako, eta kulturak birrintzea guztizko aldrebeskeria da.
10. Gerrak gosea eta sufrimenduak eragiten dituztelako munduan, eta hori oso aldrebesa eta arbuigarria da.
11. Gerrak gaixotasunak ikaragarri biderkatzen dituztelako, eta jokamolde hori zientziaren aurka doa.
12. Gerrak haur, gizon-emakume eta zaharrak izutu, zauritu eta erail egiten dituztelako, eta horrek ez du ez bururik ez hankarik galaxia osoan.
13. Gerrak gizakiak aurrez aurre jartzen dituztelako elkar hiltzeko beren borondatearen aurka, eta hori ulertezina da.
14. Gerrak hizkuntza eta kultura sendoenak inposatu egiten dituztelako, eta ahulenak, berriz, desagerrarazi, eta hori zapalkuntza hutsa da.
15. Gerrak gizarteak basati bihurtzen dituztelako, eta hori gizatzenaren aurkakoa da.
16. Gerrak gizateriari arima lapurtzen eta deuseztatzen diotelako, eta horrek animalia irrazional bihurtzen gaitu.
17. Gerrak inperialistak eta kolonizatzaileak direlako, eta hori ez da batere demokratikoa.
18. Gerrak ez dituztelako arazoak konpontzen adostasunaren bidez, eta bizikidetzara, aldiz, larriki zauritua uzten dute; hori ezin onartuzkoa da.
19. Gerrak giza eskubide guzti-guztiak urratzen dituztelako, eta hori ezin da inoiz bidezkoa izan.
20. Gerrak ustelkeria, lapurretak eta ilunkeria sustatzen dituztelako, eta hori guztia gardentasunaren kontrakoa da.
21. Gerrak gizon-emakumeak, haurrak eta abar bortxatu, torturatu eta gaizki tratatzen dituztelako, eta horrek guztiak pertsonak alienatu egiten ditu.
22. Gerrak mota guztietako biktimak sorrarazten dituztelako, eta hori legez kanpokoa da leku guztietan eta beti.
23. Gerren eragile eta errudunek ez dutelako beren larru sentibera eta

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

delikatua arriskatzen, baina besteena bai; ez dute inondik ere elkarkidetasunik.

24. Gerrek giza balio etiko guztiak zapal-zapalduta uzten dituztelako, eta hori adimenduaren aurkakoa da.

25. Gerrek maitasuna eta elkartasuna gorroto bihurtzen dituztelako, eta hori ontasunaren ifrentzua da.

26. Gerrek aberats gutxi batzuk gehiago aberasten dituztelako, eta, behartsuak eta jende xumea, ordea, gehiago txirotzen dituzte oraindik, eta hori ez da inola ere morala eta etikoa.

27. Gerrek Lur planeta hondatu egiten dutelako, eta Lurra gure etxe bakarra da.

28. Gerrak debekatu behar dira, laburbilduz, horretarako hamaika mila milioi arrazoi daudelako, jakin, ulertu eta onartu nahi dituztenentzat.

Zein herri erdi zibilizatuk eta erdi demokratikok onar ote lezake gerra laurden bat ere?

BOTA BERTSOA

ENKO FERNANDEZ MARITXALAR LESAKAKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER LEHIAKETAN
D MAILAN LEHENBIZIKO SARIA

Begien bistan gaude baina...

Doinua: ETAre su etenetik



*Batzuentzako errua
izan arren koiunturak
ez al dira ezagunak
sistema honen azturak?
Mundu honen barrenean
dagoen berte mundu bat,
etengabe frogan jarriz
biziraupenaren mugak
Zailak dira eramaten
bakardadearen gudak
Neguak izozten gaitu
ta lurruntzen gaitu udak
Denetariakoak dira
'Homeless' baten abenturak (Bis)*

*Ni ere aspaldi izan
nintzen pertsona 'normala'
Familia, adosatu,
lau zifretako jomala...
Guztientzat emakume
ausart, jator ta formala
Ideologia bakarra
eta bikoitza morala
Estatus ekonomiko
ta estatus kulturala
Arzak, Londres, Nautikoa
Victoria Eugenia, Kursala...
Ta gaur bizilekutzat dut
Kutxabanken sukurtsala (Bis)*

*Eta horrela daramat
azkeneko hamarkada
Hirurogei urterekin
ze nolako labankada!
Adikzioek ekarri
ninduten leku hontara
Senarra ez dut oroitzen
ez dut ahanzten alaba
Azal zimurtua eta
galdutako begirada
bizitzen jarraitze hutsa
nahiko biziraupen bada
denen bistan egon arren
ikustezina bazara (Bis)*

*Nahiz ta helburu bakartzat
dugun inor ez mintzea
zenbat kostatu ohi zaien
enpatiaz hurbiltzea
Pertsona oro epaile
ardo kaxa konplizea
arlaufak ditut koltxoia
ta kartoiak mihisea
Bronkitisa, neumonia
buruko gaitzen klitxea...
Desnutrizio, zorriak
belauneko esgintzea...
Garesti ateratzen da
miserian bizitzea (Bis)*

*Gauetako arriskua
edo aporofobia
jendarte dekadenteak
dakarren alegoria
Zoru izoztuen kabi
denean kale gorria
erraz ezberdintzen duzu
pertsonen kategoria
Memoriarik ez duen
mundu baten memoria
egunero ogirik jan
ezin dugunon zoria
aspaldi bihurtu baitzen
eguneroko ogia (Bis)*

*Gaur lagun berri bat daukat
kaleratze bat medio
Berrogei urte inguru
burumakur ta serio
Ez agur, ez irribarre
ez keinu, ez hitz jario
begiradari beldurra
ta etsipena dario
Joku zaletasuna ta
hipoteka arerio
Teilatupe bila dabil
eta ze erremedio!
Bankuak kendu ziona
kutxazainak eman dio (Bis)*

*Ta hortara zuzendua
zenik ez zazue uste
Pedigrudun familia
curriculumak ze lustre!
Alferrik dira iragan
eta abizen ilustre
kaleak apaltzen ditu
harrokeri ta hantuste
Gu, jatorriak jatorri
ahantzuran uzten gaituzte
Baina hori zoritxarrez
norentzako da ezuste?
Pentsa, bankuak lehenago
erreskatatzen dituzte (Bis)*

*Sukurtsaleko bortzgarren
bizilaguna dut aurtan
gure harremanak ez dira
fidelegiak izaten
Ta aunitz dabilzalako
etorri eta joaten
zertan hasi infernura
iritsi dela erraten?
Baina sarritan keinu bat
badenez nahiko azalpen
hasi natzaio kartoi ta
besarkada bat ematen
Ez du berotuko baina
ea goxatu dezakeen (Bis)*



Aniztasuna eta integrazioa sustatzeko

Behar bereziak dituzten ikasleen ongizatea bermatzeko trantsizio gela sortu dute Doneztebeko San Miguel ikastetxean. Gainera, 2020-21 ikasturtetik aitzinera, estimulazioa sustatzea ardatz duen gela multisentsoriala dute martxan. Helburua, ikasleen ongizatea bermatzea da

A. LARRETXEA DONEZTEBE

Goizean goizetik lanean gogor ari dira Doneztebeko San Miguel eskolako Eguzki gelako ikasleak. Eguneko errutinak eta ikasle bakoitzaren eguneko agenda errepasatu ondotik, bokalak errepasatzen ari dira TTIPI-TTAPA gelara sartu denean. Lau ikasle daude eta horiekin batera Gema Mendiberri tutorea eta hezkuntza laguntzako espezialista den Olatz Urtizberrea Goñi eta EH irakasle Teresa Kerejeta Arza. Gela berezia da Eguzki gela, ohiko ikasgela baino gehiago, trantsizio gela baita. Behar bereziak dituzten haurrenako sorturiko ikasgela da, eta ikasturte hau dute lehendabizikoa martxan.

Eskola sortutako behar bati erantzuteko asmoz sortu dute ikasgela. Hala kontatu du Ernesto Dominguez Olea zuzendariak: «Eskolako HLUK (Hezkuntza Laguntzarako Unitatea) eta CREENAKO espezialistekin koordinatuz, eskolan genituen beharrei erantzuteko aukera hori genuela erran ziguten eta hor hasi ziren gure buruhaustek». Beharrak identifikatu ondotik, ikasgela sortzea hausnarketa aunitzen ondorio izan dela dio Aiala Grajirena Juanenak, eskolako pedagogia terapeutikoko irakasleak, eta ez dela erabaki erraza izan: «Hilabeteak pasatu genituen bueltak emanez, eta hausnarketa aunitz egon da erabakiaren gibelean». Azkenerrako trantsizio gela sortzea izan da hartu duten erabakia eta familiek ere izan dute hitza prozesu

denean. Gaur egun, «hagitz kontent» daudela dio zuzendariak. Horrelako kasuetan eskolan dituzten zailtasunetan paratu du fokua zuzendariak: «LOMLOEK behin eta berriz erraten du inklusibitatearen alde lan egin behar dela. Baina non dira baliabideak? Guk dugunarekin erantzuten dugu. Kasu honetan aurreratu gara, eta apustu bat egin dugu ikasle horiei ematen ahal diegun erantzuna hobetzeko».

Eskolako Erreka Guraso Elkartearen eta Doneztebeko

Udalaren aldetik jaso duten erantzuna ere «bikaina» izan dela diote. Espazioa aukeratu ondotik, beraien bultzada ezinbertzekoa izan baita; kortxoak kendu, paretak margotu, lurra aldatu... Lan handia egin da eta hagitz eskertuak daude gurasoek auzolanean eta Miguelena etxetresna dendak egindako lanarekin.

Integrazioa ardatz

Gaur egun aparteko gela batean egonagatik, argi dute ikasle horien integrazioa ber-

matuta egon behar dela gela arruntetan. «Ezarri zen baldintza zen ikasle horiek ere hainbat saiotan txertatu behar genituela ohiko geletan, eta gela hori beraien gela erreferentea izanen zela. Ikaslearen ezaugarrien arabera ordu hauek aldatzen dira, baina gela erreferente horretan egon beharreko guttienerako ordu kopuru bat zehaztua dugu. Eskolaz kanpoko ekintzetan (ateraldietan, inauterietan, urtebetetzeetan, kultur ekintzetan...) ere gela hauekin parte hartuko dute», nabarmendu du zuzendariak.

Dinamika berezia dute Eguzki gelan, eta eguna hagitz egituratua izaten dute. «Saia-tzen gara lehendabiziko gelara joan eta nolabaiteko plangintza egiten. Haur bakoitzak bere dinamika du eta bakoitzari azaltzen diogu zein izanen den bere egunerokoa», kontatu du Grajirenak. Eta beren gelako dinamikarekin batera, hainbat ordu ikasgela arruntetan pasatzen dituzte, eta arratsaldeko eskolaz kanpoko ekintzetan ere gelditzen dira ikasleetako hiru». Espazioak egituratuak dituzte txoko bidez, eta hainbat piktograma eta argazki dituzte horiek identifikatzeko. Denbora ere hagitz egituratua dute, baina, denaren gainetik giro afektibo goxoa dute gelan.

Integrazioa dute ardatz San Miguel eskolan, eta horregatik, eskolako gainerako ikasleak trantsizio gelan integratzea ere bada asmoa. Horretarako, gelan berean sukalde bat sortu dute. Bi ardatz dituen proiektua da sukaldearena, alde batetik Eguzki gelako ikasleendako funtsezko tresna izanen da beren garapenerako, eta bertzalde, sukaldearen bidez integratu nahi dituzte eskolako gainerako ikasleak ikasgela horretan. Horrela, maila bakoitzeko ikasleek astero aukera izanen dute Eguzki gelako ikasleekin batera sukaldaritzan proiektuan parte hartzeko. «Sukaldeak



Aiala Grajirena, Gema Mitxelena eta Ernesto Dominguez irakasleak eskolan.



Hainbat ikasle aritzen dire gela multisentsorialean. TTIPI-TTAPA



Trantsizio gelako ikasleak, Gema Mitxelena tutorearekin klasean bokalak lantzen. TTPI-TTAPA

joko aunitz ematen du: errezetekin irakurketa eta idazketa lantzen ahal dituzu, erosketak egitean matematikak, kontuak, neurketak, diruaren mugimenduak... Hagitz erreala da. Sukaldea da bizitzako funtsezko espazioa, eta bertan maneiatzen ikastea hagitz baliagarria ikusten dugu», dio Grajirenak.

«Aldi berean aukera ematen du hainbat adinetako haurrekin jolasteko eta esperimentatzeko», gehitu du Dominguezek. Egun lau ikasle daude ikasgela horretan, baina gutxienez hiru eta gehienez bost lagun egoten ahal direla zehazten dute Nafarroako Gobernuko Hezkuntza departamentuko ratioek.

Gela multisentsoriala ere martxan

Baina trantsizio gela ez da eskolak garatu duen proiektu bakarra. Izan ere, 2020-2021 ikasturtean hasita gela multisentsoriala ere martxan dute. Umeen eta behar bereziak dituzten pertsonen garapenerako espresuki prestatuturiko espazioak dira, eta estimulazio sentsoriala oinarritzat hartuz, ikasleen garapena bultzatzea da gela horien asmoa. Eskualdean, gainera,

horrelako espazio fisiko bakarra da Doneztebekoa gaur egun.

Itxuraz ere diferentea da gela multisentsoriala. Iluntasuna da gelaren ezaugarria, goxotasunarekin batera. Erabiltzaileen estimulazioa sustatzeko, hainbat tresna berezi dituzte: bola igerileku *bibroakustikoa*, ohatze *bibroakustikoa*, pisu manta, burbuila hodia, zuntz optikoa, hainbat intentsitatetako argiak ere badituzte, eta ikasleen beharraren arabera erabiltzen dute bata edo bertzea.

Garestia da horrelako gela bat sortzea, material espezifikoak behar baita, eta ez da erraza izan orain duen itxura lortzea ere. Izan ere, hasieran etxean zuten materialarekin eta irudimena landuz sortu zituzten elementuak. Hala ere, denborarekin gero eta itxura profesionalagoa lortu du, hainbat dirulaguntzari esker. «Azken bizpahiru urteetan 10.000 eurotik goiti

inbertitu ditugu eta hori posible izan da La Caixaren, Malerreka GIZARTE Zerbitzuen, Doneztebeko Udalaren, Erreka Guraso Elkartearen eta Xabier eta Josunek emandako dirulaguntzari esker», nabarmendu du zuzendariak.

Beharrari erantzuteko

2020 eta 2021. ikasturtean hasi ziren gela sortzeko prozesuarekin, hori ere eskolan sortutako behar bati erantzuteko: «Ikasturte horretan behar espezifikoak dituen ikasle bat hasi zen eskolan, eta guk genituen baliabideak ez ziren nahikoak horrelako kasu bat artatzeko», azaldu du Grajirenak. Ikasle horri ahalik eta erantzun integralena ematea zuten helburu orduan. Hain zuzen, hori izan zen gerora sortutako guztia-aren abiapuntua. «Bi urtez aritu gara gela multisentsoriala lantzen, eta trantsizio gela ez genuen aurreikusirik, baina, horren beharra ere

sortu eta aitzinera egin genuen», dio Dominguezek.

Hari batek lotzen ditu bi gelak, bi gelatan ikasleen estimulazioa dutelako ardatz. Bi gelatako erabiltzaileak ez dira berberak, trantsizio gelako ikasleak ez direnek ere erabiltzen dutelako gela multisentsoriala. «Haur hezkuntzako lau-bostz ikasle erabiltzen dute, baita trantsizio gelan ez dagoen lehen hezkuntzako bertze batek ere», kontatu du irakasleak. Eskolak ANFASekin hitzarmena sinatua du, eta horri esker asteen behin eskualdeko ANFASeko kideek ere erabiltzen dute gela hori.

45 minutuko saioak egiten dituzte gela multisentsorialean eta hezitzaile edo irakasle bat eta ikasle bat sartzen dira aldiro. Saio pertsonalizatua izaten da, ikasle bakoitzak bere beharrak dituelako, eta horretarako erabiltzen dituzten teknikak eta materialak ere diferenteak direlako. «Haur bakoitzak bere helburuak ditu. Kasu batean, adibidez, irri bat lortzea bera da helburua», azaldu du Grajirenak. Gainera, azken urteetan hezitzaileek egindako ikastaroak tarteko, gero eta probetxu handiagoa ateratzen diote gela horri, gero eta saio gehiago egiten dituztelako bertan.

Eskola osoa inplikatu den proiektua izan den arren, Grajirena aritu da bereziki bai trantsizio gela, baita gela multisentsoriala sortzeko prozesuan. Zuzendaritzak emandako babesak eskertu du: «Zuzendaritzaren babesik izan ez banu, honek denak ez zukeen aitzinera egingen», nabarmendu nahi izan du. Proiektuak aitzinera egiteko lan egin duten guztiak esker-neri nahi izan ditu zuzendariak, eta azken laguntza ere eskatu du: «Sukaldea badugu, baina, material aunitz falta zaigu, beraz, norbaitek eman nahiko baligu gustura hartuko genuke».

**IKASLE BAKOITZAK
DITU BETE
BEHARREKO
HELBURUAK**

**ORAINDIK
SUKALDERAKO
MATERIALA
BEHAR DUTE**

Alkoholismoaren kontra borrokan

Alkoholiko Anonimoen Berako taldera hurbildu da TTIPI-TTAPA. Hantxe biltzen dira alkoholarekin arazoak izan dituzten Baztan-Bidasoaldeko hainbat herritar. Alkoholak egiten ahal duen minaz ohartarazi nahi izan dute eta arazoak dituztenei hurbiltzeko deia egin diete

G. PIKABEA

Batzuek karrikan edaten zuten, bertzeek etxean, zenbaitzuek lanean... Gordeka ibiltzen ziren batzuketalagunartean bertzeak. Alkoholak, ordea, denei gogor jo die. Ongi aski ezagutzen dituzte ondorioak eta alkoholismoa «hagitz gaitz gogorra» dela diote, «sendaezina eta progresiboa da». Gehiago ere bai: «alkohola dagoen drogarik gogorrena da, edozeinen eskura dago eta konturatu gabe, bere atzaparretan harrapatzen zaitu».

Baztan-Bidasoaldeko AA Alkoholiko Anonimoen taldera, edo eurek dioten bezala, «parrandako lagun ohien taldera» hurbildu da TTIPI-TTAPA. Josu, Maite, Iñaki, Miren, Manuel eta Migelek –asmatutako izenak dira– hartu dute hitza, eta zurrutak euren eta ingurukoiekin egin dien kalteaz eta minaz aritu dira. Ia guztiek lortu dute alkohola uztea, eta bide horretan Alkoholiko Anonimoen taldea gakoia izan dela nabarmendu dute. Anonimotasuna izan da azpimarratu duten bertze kontua: «Honetan denak nahi duena lasai erraten ahal du, lau paretan artean geldituko da».

Asteazkeneko Beran

Asteazkeneko Berako Beralandetan egiten dute hitzordua. «Sei bat lagun» elkartzeko dira, baina bidean batzuk galdu dituzte: «Badira taldera etorri eta segitu ez dutenak. Guttie-nez bortz lagun hil dira, aski gazterik, 50 urtetik beheitikoak».

Alkoholarekin izan duten esperientzia elkarrekin partekatzen dute eta urteen joanean familia bat osatzera pasatu

dira. Kide berri bat baldin badago «beso zabalik» hartzen dutela ere gaineratu dute: «Edan-ak ibiltzen ginenean, ez genuen lotsarik izaten. Honat etortzeak lotsa handia ematen du, baina merezi du. Zahar eta gazte, denok gaixotasun bera dugu eta horren kontra arigara».

JOSU: HAUR DENBORATIK ALKOHOLAREN BUELTRAN

Josu haurra zenean hasi zen edaten, eta urteak pasatu ahal gehiagora joan zen: «6-7 ur-

terekin sagardoa edaten nuen eta 9-10 urterekin ardoa. 12-13 urterekin ardoa eta zerbeza hartzen hasi nintzen, eta 14-15 urterekin zerbeza, anisa eta gehiago. 16-17 urterekin ginebraren kuba-libre ospetsua probatu nuen, eta hura niretzat bonba bat izan zen. Hagitz pertsona lotsatia nintzen, neskei dantzatu nahi zuten galdetzeko ere lotsatzen nintzen, eta ezezkua erraten bazidaten gorritu. Ginebraren kuba-librea probatzea ikaragarria izan zen, hura euforia, hura deskubri-

mendua». Kubatarena ere handitzen joan zen: «Hasieran igandetan bizpahiru zerbeza eta bikuba-libre hartzen nituen eta primeran pasatzen nuen, neskei dantzatzeko eskatzen nien eta ezezkua erraten bazidaten ez zitzaidan inporta. Baina poliki-poliki zerbezak alde batera utzi eta bizpahiru kuba-libretik bortzera pasatu nintzen, gero zazpi, hamar... 20 urterekin arazo handian nuen».

Gazte denborako pasadizo saila ditu oroimenean. Alkoholola tarteko, «kotxeekin hainbat kolpe» izan omen zituen, «is-tripu bat eraginda, gaua kalabozoan pasatu ere bai...». Kontatu digunez, «neska batek alkohol gehiegi» edaten zuela ere ohartarazi zion: «Eta ni neure baitan, 'jakinen balu bidean zenbat edan ditudan...'. Besta egitera atera eta bidean herriz herri gelditu eta tragoak hartzen genituen. Ikaragarriko sasoia nuela sentitzen nuen». Hasiera hartan neska haren erranak zer pentsatua eman ziola onartu du, baina «erabat barneratu nuen alkoholik gabe ez nintzela deus. Alkoholola behar nuen, eta horrekin segitu nuen».

Gorputzaren «abisuak»

Parranda utzita, «etxean, ardoa eta kalimotxoak» edanez segitu zuen. «Lanera ere botila kalimotxoa hartuta joaten nintzen. Dendara, herriko etxera, bankura... Edozein tokitara joateko alkohola behar nuen, ausardia eta indarra ematen zidan. Bertzela ez nuen fundamenturik».

Ondorioak, ordea, luze gabe sumatu zituen. Alde batetik, «edozein gauzarengatik ikartzeko hasi nintzen. Buruan parrandak nituen». Eta bertzetik, bertzelako osasun arazoak hasi zitzaizkion: «kolesterola goia jota, triglizeridoak goiti, diabetesa...». Kontatu duenez, «behin lantegian tentsioa 22 eta 14 neurtu zitidan. Atera kontuak nola nengoen. Urteak neramatzan berotua, egunero-egunero edanda». Medikuari «egunean litro bat» edaten zuela kontatu izana ere oroitzen

Alkoholiko Anonimoen taldea

Nafarroan Alkoholiko Anonimoen hamazazpi talde daude eta horietatik bakarra da eskualdekoa: Berakoa, orain dela 37 urte sortua. Lehenbizian Berako elizan hasi ziren biltzen, eta gaur egun Beralandeta dute bilgune. Asteazkeneko 19:00etan elkartzeko dira. Bilera irekiak dira eta alkoholarekin arazoa duen edozeinek parte har dezake. Baldintza bakarra alkohola uzteko nahia izatea da eta norbaitek laguntza behar badu 620 17 16 86ra edo 600 76 34 23ra dei dezake. Etxera ere joaten dira, arazoa duenari eta etxekoei taldeak nola funtzionatzen duen esplikatuz. Hortik aitzinera: «etorri nahi badu, bere erabakia izanen da. Guk ezin dugu inor behartu».

Alkoholaren ondorioak

OME Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, alkoholismoa gaixotasun sendaezina eta progresiboa da, eta heriotza eragin dezake. Alkoholaren kontsumo kaltegarriak urtean hiru milioi hildako eragiten dituela dio erakundeak, hau da, munduko heriotza guztien % 5,3. Gazteen artean ere heriotza eta desgaitasuna eragin ditzake. OMEk dioenez, 20 eta 39 urte bitartekoetan, heriotzen % 13,5 inguru alkoholari lotuak dira. Kontsumo kaltegarriak 200 gaixotasun, traumatismo eta nahasmendu sortzen ahal dituela ere ohartarazi izan du: buruko eta portaera arazoak, alkoholismoa, zirrosi hepaticoa, minbizia, gaixotasun kardiobaskularrak... Bertzelako ondorioak ere aipatu izan ditu OMEk: sozialak, emozionalak, ekonomikoak, familiakoak, lagunartekoak...

da, «baina gezurra zen. Bada-kizu egiatan zenbat edaten nuen? Egunean lau litro ardo eta bi litro koka kola». Bere hitzetan, «alkoholikoak garenean gezur aunitz erraten ditugu edateko. Adituek erraten dutenez, gibela esponja idor bat bihurtzen da eta etengabe alkohola eskatzen du. Antsieta handia sentitzen da».

Medikuen ohartarazpenei kasurik egin gabe, berdin segitu zuen Josuk, eta «bularreko angina» bat izan zuen. Tratamendua paratu zioten, eta «hasierako egunetan pixka bat guttiago edan nuen, baina berriz lehengora bueltatu nintzen, eta gainera, egunean zortzi-hamar pastilla hartzen nituen. Edozein momentutan lehertzen ahal nintzen». Baina hala segitu zuen «bertze susto bat» izan zuen arte. «Kardiologoak garbi utzi zidan. Bi bide nituela erran zidan: dieta egin eta tratamendua behar bezala hartu, eta bihotza moldatzen saiatuko zela jakinarazi zidan; edo ordura arte bezala segitzen banuen, ez nuela aunitzik irauten. 'Zure esku utziko dut' erran zidan».

Orduantxe egin zuen klik: «Medikuaren errana» gogoan gelditu zitzaion, «hilko nintzela errana zidan...». Eta handik egun batzuetara, «bero egiten zuen egun batean, dardarka hotzak nengoela konturatu nintzen. Orduan erabaki nuen medikuari egia aitortu eta laguntza eskatzea. Desintoxikatzeko zentro batera bidaltzeko eskatu nion, baina ezetz erran zidan, tratamendua berak paratuko zidala. Pastillak eman zizkidan eta argi utzi zidan: 'Pastillak hartu eta edaten segitzen baduzu, bertan geldituko zara'».

Hura izan zen alkohola uzteko lehenbiziko bulkada. Eta bigarrena AAra joatea, «ezagun batek aholkatuta». Momentu hartan «*desgraziatu*» sentitu zen, «ez nintzelako alkoholaren kontra bakarrik egiteko kapaz. Baina AAren taldean jende aunitzekin egin nuen topo eta



Alkohola uzteko bidean, lehenbiziko tragoa gakoa dela nabarmendu dute. FREEPIK

niri pasatzen zitzaidana gertatzen zitzaizela konturatu nintzen». Horrela hasi zen alkoholik gabe bizitzen, «42 urterekin».

Akabo sufrimendua

«Poliki-poliki hobera egiten» hasi zen: «dardarak beheiti egin zuen, eta gauaz ohatzera joaten nintzenez deskantsatuta ernatzen hasi nintzen. Edanez gero, aunitz ere nekatuagoa jaikitzen nintzen». Bere hitzetan, «medikuntzak bere eragina izan zuen, baina egiazki eragin zuena AAren taldea izan zen. Hemen hartzen den laguntza psikologikoa zoragarria da. Alkohola utzi nahi duzula argi izan behar duzu, bai, baina hemen batak bertzeari laguntzen diogu, eta niretzat

laguntza hori nahitaezkoa izan da. Gaur egun, 26 urte daramatzat tantarik probatu gabe». Eta ez du dudarik: «Bizitza aldatu zait, berriz jaio naizela sentitzen dut».

Aldaketa berak ez ezik, ingurukoek ere sumatu zuten, onerako: «Ikerketek diote familian dagoen alkoholiko bakoitzeko lauk sufritzen dutela, eta nire etxean ere ederki sufritu zuten. Zenbat eta zenbat familia ote dira alkoholarengatik izorratuak». Gaur egun, buelta eman dio eta «ongi sentitzen naiz, baita etxeok ere, eta alkoholaz ez naiz oroitzen». Gaineratu duenez, «inguruak edatera bultzatzen zaitu. Dena alkoholarekin ospatzeko ohitura dugu, alkohola aitzinean paratzen

dizute, baina ederki ikasi dut alkoholik gabe bizitzen eta aunitzez hobekiago nago».

MIGEL: ERRETIROA HARTU ONDOTIK GEHIAGO

Migelen ere «betitik» edaten omen zuen, baina «alargundu nintzenez, gero eta gehiago edaten hasi nintzen. Lanean ez nuen hutsik egiten, baina libre baldin banuen, gehiegi edaten nuen, eta gero eta gehiago». Erretiroa hartu zuenean egoerak eskuetatik ihes egin zion: «Erretiroa hartu eta alkohola utzi nuen arte, urte oso bat mozortua pasatu nuen. Etxetik atera eta ostatura joaten nintzen, egunero besta, gaizki jan... Hura *desmadrea*». →

→ Ez du atzendua alkohola alde batera utzi zueneko uda hura. Herriko bestak bukatuta, bertze herri bateko bestetan eman zion segida parrandari. «Lagun batek etxera eraman behar izan ninduen eta ez naiz oroitzen tarte batean zer gertatu zen». Handikegun batzuetara hartu zuen «azken ardoa: Etxera nindoala, lurrera erori nintzen eta osasun zentrora eraman behar izan ninduten». Zer gertatu zen, ordea, ez daki: «Ez naiz deusez oroitzen».

Biharamuneko kolpeak ikusita, «zer ote dut?» pentsatu omen zuen, eta alabak, «hase-erre, sekulako errieta» egin zio- la aitortu du. Alkohola dela medio, «familiaria eta gehien maite diegunei sufriarazten diegu. Ez edateko erraten dizute, baina gezurretan zurean segitzen duzu. Alkoholikoak, aktibo gaudenean, hagitz gezurtiak gara, dena justifikatzen dugu. Nik, adibidez, dendara joatean, alkohola gonbidatuak genituelako erosten nuela erraten nuen. Dena aitzakia hutsa zen. Niretzat zen».

Uda hartako azken trago haren ondotik alabak eman zion AAREN taldearen berri eta halaxe hasi zuen bidea. «Gaur egun, hamahiru urte daramatzat tragorik hartu gabe eta asteazkenero taldera etorritz». Urteotan izan duen bilakaeraren seinale, anekdota bat kontatu du: «ikasturte hasieran taldearen eguna egiten dugu, eta oroitzen naiz, lehenbiziko aldiz kartelak paratzeko eskatu zidatenean, goizaldeko hirur-etan aritu nintzela, lotsatuta, norbaitek ikusiko ote ninduen beldurrez. Gaur egun, edozein orduan paratzen ditut».

Onartzeko bidea

Asteazkenetako hitzorduetara joateko pausoa emanagatik, kosta omen zitzaion «alkoholiko nintzela onartzea. Alkoholikoak bertzeak izanen zirela erraten nuen». Lagunartean kontatu zuenean ere zama kendu zuen gainetik: «Nire kuadrillan aunitz edaten dute



Asteazkenero Berako Beralandetan elkartzten dira. FREEPIK

eta hilabeteak behar izan nituen alkohola utzi eta Alkoholikoan Anonimoen taldera joaten hasi nintzela onartzeko. Hasieran botika fuerte bat hartzen nuelako ez nuela edaten erran nien, baina gezurra zen. Egia Egu-berrietan aitortu nien, eta izu-garrizko lasaitua hartu nuen».

Pozoia

Geroztik alkohola alde batera utzita, egunerokoan lagunartean gozatzen segitzen du: «Musean aritzea aunitz gustatzen zait, eta bazkalondotik musean aritzera joaten nintzenean, zer trago hartuko nuen, horrekin obsesioa nuen. Baina musean segitu dut, kafea, tonika edo alkoholik gabeko zerbeza edanez». Eta areago, «alkoholik

gabe ere, berdin-berdin pasatzen dudala konturatu naiz, edo hobekiago, orain denaz oroitzen bainaiz; lehen ez».

Gauregun, «hagitz ongi» dago Migel. Bai bera, baita seme-alabak ere: «Hagitz kontent daude. Badituzte bilobak ere, eta hagitz kontent nago ez nautelako mozkortua ikusi». Etxean «whiski, anis, koñak, patxaran...» denetarik duela ere erran du: «Egunero ikusten ditut, baina badakit niretzat pozoia dela».

Taldeak, berriz, «bizitza eman» diola sentitzen du. «Nahasia ailegatu nintzen». Eta orain bera da hartu zuena bueltan ematen ari dena: «Alde batetik, pena hartzen duzu honat heldu direnen egoera ikusita, baina bertetik, kontent nago la-

«ALKOHOLIK GABE EZ NINTZELA DEUS BARNERATU NUEN»

JOSU, ALKOHOLIKO ANONIMOAK

«BADAKIT ALKOHOLA POZOIA DELA NIRETZAT»

MIGEL, ALKOHOLIKO ANONIMOAK

guntzen ahal diedalako. AAREN taldeetan hamabi pauso eta hamabi ohitura izaten ditugu eta horietako bakarrean baino ez da aipatzen alkohola, lehenbizikoan. Alkoholaren kontra indarrak ez dugula onartzea da lehenbiziko pauso hori, gure bizitzak gobernaezinak bihurtu direla onartzea. Hamabigarrrena heldu denari laguntzea da». Alkoholik gabe bizitzen ikasita horretan ari da gauregun.

MAITE: ETXEAN BAKARRIK ETA GORDEKA EDANEZ

Maitek, berriz, «etxean bakarrik» edaten zuen, dienez, «emakume gehienek bezala, gordeka». Eta zergatik hasi zen galdetu izan diotenean, erantzunik gabe gelditzen da: «Ez dakit zergatik hasi nintzen, baina gero eta gehiago hasi nintzen eta gorputzak gehiago eskatzen zidan. Lanetik etorri eta baso bat edanez hasten nintzen, eta bat edaten banuen segitzen nuen, eta ondotik zer? Ba aunitzetan siestara». Esplikatu duenez, «ez nuen aunitzik edaten, baina ez zidan onik egiten».

Lehenbiziko koparen indarra

Arazoari buelta eman nahian, «psikologoarekin ibili nintzen», baina benetan lagundu ziona «Alkoholiko Anonimoen taldea izan zen. Semeakekarri ninduen, eta aunitzetan erran izan dit jakin izan balu, lehenagotik ekarriko ninduela». Hasieran «medikuak Irungo Alkoholiko Anonimoen taldera bidali ninduen, hemen inguruan ezagutuko nindutela eta... Baina hiru saio baino ez nituen egin han, segidan Beran hasi nintzen eta hemen segitzen dut».

Hasiera hartatik esaldi bat «barrenean» gelditua du: «alkohola uzteko gako lehenbiziko kopa da. Hori nabarmendu zidaten». Halaxe egin zuen, lehenbizikoa eta gainerakoak ere utzi, eta geroztik ia 15 urte pasatu dira: «Liberazio handia izan da. Gauza ederra da edozein ospakizunetara edo otordutara joan eta ongi eta lasai sentitzea».

MIREN: BIDE GOGORRAREN ONDOTIK ALKOHOLIK GABE

Mirenek ere ez daki zergatik hasi zen edaten, eta areago, gerora ohartu izan da «alkohola ez zaidala gustatzen. Baso bat ardo edateko azukre aunitz eman behar izaten nion, eta hala edaten nuen, azukrearekin hobekiago sartzen baitzitzaidan. Ez dakit zergatik egiten nuen, baina egiten nuen».

«Haurakeskolara eta senarra lanera» joan ondotik murgiltzen zen zurrunbiloan: «Bakarrik gelditu arte esperatzen nuen, baina joan orduko nire txokoe-tan begira hasten nintzen. Eta haiek lanak, banekien edaria nonbait gordea nuela, baina ez nintzen oroitzen non. Etxe guztia hankaz goiti uzten nuen, edaria harrapatu arte». Esplikatzen duenez, «ez nuen gosalduek ere egiten eta eguna york urdaiazpiko xerra bat janda pasatzen ahal nuen. Makila bat bezala gelditu nintzen. Trago-txo batekin hasi, gero bertze bat, eta bertze bat... Eta azkenean, ohatzera edo sofara joan behar izaten nuen. Mingaina loditua, lurrera erori eta nonahi kolpeak hartzen nituen, baina ez nintzen oroitzen non eginak nituen...». Gaineratu duenez, kolpe eta kolpe artean erorita, «ukondoa hautsi nuen».

Alkohola tarteko, «momentu gogorak» pasatu zituen: «Etxekoek bazekiten, egoera horretan harrapatzen ninduten, eta lanetik erortzen ninduten». Urteak pasatu ondotik konturatu da «nire kulpaz, etxekoek zeinen gaizki pasatu zuten. Alde batera ere uzten ahal ninduten, baina onartu ninduten. Orain konturatzen naiz zenbat maitatu nauten eta zenbat arduratu diren nitaz». Onartu duenez, «etxekoek niregan konfiantza galdu zuten. Beti azken aldia izanen zela erraten nuen, baina segitzen nuen, eta berriz konfiantza hartzea kostatzen zitzaidan. Hagitz gogorra da, tristea».

Tratamendua paratuta ere, eginahalak eta bi egin omen zituen «pastillak ez hartzeko.



Alkoholaren ondorio kaltegarriez ohartarazi nahi izan dute. FREEPIKW

Alkoholikoak erne ibiltzen gara. Senarrak pastilla irentsi nuen jakiteko, ahoa erakusteko erraten zidan. Baina mingaina azpian gordetzen nuen, eta buelta erdia eman orduko zaborrontzira bota. Edaten segitzen nuen. Pastilla xehatua ematen ere hasi ziren, baina mingain azpian guata sartu eta ahal nuen guztia guatara bideratzeko moldatzen nintzen. Hagitz-hagitz azkarrak gara, gezurtiak, eta harro jokutzen dugu».

Hasi eta utzi, hasi eta utzi

«Boladaka» ibiltzen omen zen: «oraintxe ongi, baina istantean berriz erori, behin eta berriz, eta horrela ezin nuen segitu. Lana bilatu behar banuen ongi jarri beharko nuela erraten nion

«ETXEAN BAKARRIK EDATEN NUEN, GORDEKA»

MAITE, ALKOHOLIKO ANONIMOAK

neure buruari. Eta egun batean egunkaria leitzen ari nintzela, Alkoholiko Anonimoei buruzko berria ikusi nuen. Harat deitzea erabaki nuen, eta horrela hasi nintzen».

Taldera hurbildu zen lehenbiziko aldian «edanda» joan omen zen: «Hurrengo bilerara sartu nintzenean, ez nintzen inortaz oroitzen». Poliki-poliki, ordea, bidea egiten hasi zen, nahiz eta «gogorra» dela onartu duen; «alkoholaren beharra sentitzen bainuen». Taldean hasi eta «sei-bederatzi hilabeteren buruan, berriz erori nintzen. Erosketak egitera joan, apaletan zerbeza ikusi, bat hartu eta gehiago eta gehiago... Sendatua nintzela pentsatzen nuen, baina gaixotasun hau ez

«ORAIN OHARTU NAIZ ZENBAT MAITATU NAUEN»

MIREN, ALKOHOLIKO ANONIMOAK

da sendatzen. Hala ere, ez nion Alkoholiko Anonimoen taldekoekin biltzeari utzi, eta hementzen babesa izugarria izan zen. Animatu ninduten eta utzi nuen». Gogor eginez, «poliki-poliki» ongi sentitzen hasi zen: «dardara desagertzen hasi zen, bestondorik ez nuen...» Taldera «berandu xamar» hurbildu zela uste du, baina «gaur egun, hagitz ongi nago eta etxekoek badakite lagunekin ateratzen banaiz ez dudala edanen. Lagunek zuritua hartuko dute, eta nik Bitter Kas, koka kola...».

IÑAKI: HASIERAN POTEONAN, GERORA GOIZEAN GOIZETIK

«Lanetik aterata beti poteoan ibiltzen nintzen, ardoa edanez. Nire nagusiari ere edatea gustatzen zitzaion, eta hark anisa edaten zuen bitartean, ni gaztetxoa nintzen, lehenbizian, zerbait suabeagoarekin hasi nintzen, moskatelarekin». Halaxe kontatu du Iñakik. Hura hasiera baino ez zen izan. «Bereperan mozkortuta, biharamunean lanetik atera arte aguantatzen nuen. Lanetik atera eta berriz ere txikiteoan hasten nintzen». Baina denborarekin lanetik atera arte edan gabe esperatu behar izatea «aguantatu ezina» bihurtu zen, «eta goizetik zurrutean hasi nintzen».

Lanean bere gisa hasita berdin segitu zuen, «furgonetako eserleku azpian, garajea, tailerrean, bulegoan... Botilak nonahi izaten nituen, hura *desmadrea*. Uste nuen inor ez zela enteratzen, baina lankideekin kotxean nindoala, kinki eta kanka, botila soinu ederra adituko zuten».

Goizean ernatu orduko hasten omen zen: «bi tragotan botila erdia edan, goitika bota, berriz bertze trago bat eta lanera». Lanean ari zela, edozein aitzakia probesten zuten edateko: «gosariaren bila joaterakoan tragoak, dendara zerbaiten bila joan eta tragoak, etxean otorduetan litroko botila ardoa hustu... Egun osoa berotua pasatzen nuen».



→ Hamabi urte edan gabe

Hala segitu zuen «arrebak eta koinatuak Alkoholiko Anonimoen taldean zebilen ezagun baten berri» eman zioten arte. Pausoa eman eta taldean hasi zen, «baina kosta zitzaidan uztea». Batzuk euren borondatez eta bertze batzuk senideek lagunduta hurbiltzen dira taldera, Iñaki bezala: «Lehenbiziko hilabeteen emazteak lagundu zidan AAren bileretara, ez baitzen fidatzen». Gero bakarrik hasi zen, «baina bidean gelditzen nintzen, zerbeza pare bat hartu eta...».

Aitortu duenez, «taldekideei beti egia erraten nien eta taldeko bileretara etorri segitu nuen». «Hasiera gogorra izan zen, batez ere lehenbiziko urtea, jendeak hemen ikusiko ninduen beldurrez...». Baina ez da urrikitu. «Egun batean bidean ez nintzen tragoa hartzera gelditu, eta hamabi urte pasatu dira geroztik. Hamabi urte daramatzat edan gabe». Honela gaineratu du, «kafea eta kopa hartu eta horrekin aski duela erraten dakien jendeak inbidia ematen dit, baina gaixotasuna dugunok ezin dugu hori egin».

MANUEL: ALKOHOLIK GABE AITZINERA EGITEKO BORROKAN

Manuelena da hitzorduko azken testigantza. Eguberrietatik ez omen du tantarik probatu, baina aitortu duenez, «lehen ere utzi eta berriz erori izan naiz. Goizetan ernatu eta botila ardoa lau tragotan edaten nuen, eta gainera, pastillak hartu». Urte saila omen ditu Alkoholiko Anonimoen taldean, baina «aunitz edaten dudanean ez naiz agertzen». «Batzuetan gogorra» egin izan zaiola ere onartu du, baina taldekideen babesik ez zaio falta, eta zurrutarik gabeko bidean «segitzeko» erranez animoak eman dizkiote.

Denetarikoa kasuak

Asteazkenero egiten dituzten hitzorduetatik harago, «tarte-



Egiatan alkohola nahi izanez gero, lortzen ahal dela diote Alkoholiko Anonimoen taldeko kideek. FREEPIK

ka estatu mailako eta atzerriko bertze taldeetakoekin topaketak» egiten dituztela esplikatu du Migelek, eta benetan kasu gogorak ezagututakoak dira. Migelek «alkoholik ez edateko etxean giltzapetuta utzi, eta bertze deus ez zueñez kolonia edan zuen neska gaztearen istorioa» kontatu du; eta Josuk «kamioian zihoa-nean antsietateak jota kamioi depositutik mangeraedo tutua hartuta gasolia edan zuen kamioilariaren istorioa». Honela gaineratu du: «Alkoholaren beharrak edozein gauza eginarazten dizu».

Hortaz, beranduegi izan aitzinetik alkoholarekin arazoak dituztenei dei egin diete: «Alkoholismoa gaixotasun sendaezina da, gero eta okerragora doa, eta ez baduzu garaiz harat-honata egiten hiru bide dituzu: psikiatrikoa, kartzela edo heriotza». Oinarria «egi-tan alkohola utzi nahi izatea» dela nabarmendu du Josuk: «Deus baino lehen alkoholi-

koak garela onartu behar dugu, eta egiatan alkohola utzi nahi baduzu, lortzen ahal duzu. *Etxeko sua etxeko hautsekin itzali* errana izaten da, eta aunitzekez dute etxeko arazoez kanpoan inor enteratzea nahi izaten. Baina batzuetan ezin da estali, eta laguntza eskatu behar da».

Egoera hain hurbiletik eza-gututa, gaia ederki kontrolatzen dute eta bertze edozeinek ikusten ez duenez ere ohartzen dira: «batzuek alkohola utzi dutela erraten dute, baina ongi aski dakigu nork bai eta nork ez. Etorri beharko genukeen guztiak etorriko bagina, Beralandeta ttiki geldituko litzai-guke, frontoian bildu beharko genuke», dio Migelek.

Ikastetxeetan hitzaldiak

Gaur egun ikastetxez ikastetxe hitzaldiak emanez ibiltzen dira eta garrantzitsua iruditzen zaie, «alkoholarekin ez bada bertze drogekin, aski gazterik ikusten dira eta...», adierazi du Josuk.

Kontatu duenez, «ikasleek muga non dagoen» galdetu izan diete, «alkohola noiz den arrisku-tsua». Hau da bere erantzuna: «Etengabe alkohola behar izatea arrisksua da. Bospasei trago egin eta gelditu beharrean gorputzak gehiago eskatzen dizunean, egarria duzun aldi-ro behar duzunean, alkoholismoaren bidera zoaz». Honela gaineratu du: «Batzuek uste dute alkoholiko anonimoa izatea baino hobe dela mozkor ezaguna izatea. Niri ere halako komentarioak egin izan dizkide, baina ez didate minik egiten. Badakit alkoholiko gaixo bat naizela, onartua dut».

Horrekin lotuta, «lekuz kanpoko komentarioak» aipatu ditu Mirenek: «Jendea batzuetan gaiztoa da. Edaria utzi ondotik zer egin duzun eta nola ibili zaren jakin nahi izaten du eta galdeka ibiltzen da». Iritzi berekoak dira gainerakoak ere: «Niri edaten nuela nabaritzen zitzaidala erran izan didate. Ba bai, baina orain bertze etapa bat hasi dut eta listo», kontatu du Maitek. Bide beretik jo du Josuk: «Lehen, edanak ikusten gintuztenean jendea irriz egoten zen guri begira. Orain edateari utzi diogu, eta ongi gaudela ikusten dutenean akabo haien besta».

«EGUN OSOA BEROTUA PASATZEN NUEN»

IÑAKI, ALKOHOLIKO ANONIMOAK

«ALKOHOLA UTZI ETA BERRIZ ERORI IZAN NAIZ»

MANUEL, ALKOHOLIKO ANONIMOAK

Ustekabeko zerrendak udal hauteskundeetan

Arantzan, Areson, Urrozen eta Zubietan Aulki Zuriak izeneko estatu mailako taldeak zerrendak aurkeztu ditu

TTIPI-TTAPA

Ezustekeo taldeak aurkeztu dituzte azaroaren 26an eginen diren udal hauteskunde partziala. Aulki Zuriak izeneko estatu mailako mugimendua izan da hauteskunde hauen bigarren deialdiko sorpresa, zerrendak aurkeztu baititu Arantzan, Areson, Urrozen eta Zubietan. Ez dira herritarrez osatutako taldeak. Eratsunen, ordea, herritarrekin bi zerrenda osatu dituzte. Bertzalde, NARBARTeko kontzejurako ere ez da hautagairik aurkeztu.

Areson eta Urrozen zer?

Aulki Zuriak alderdiaren hauteskunde programak puntu bakarra du: lor litekeen edozein eserleku hutsik uztea. Urrozen eta Areson aurkeztu den zerrendabakarra da hauetabotoen % 5 (gutti goiti-beheiti Urrozen zazpi boto eta Areson hamar boto) lortzea aski izanen luke udala bereganatzeko. Alderdiaren estatutuetan argi diote aulkiak hutsik uztea dela euren helburua: «hautagaiek kargua hartu bai, baina ez lukete zinegotzi izaera osoa bereganatuko, ez lirake udal batzarretara aurkeztuko». Horrek, herriko etxearen eguneroko jardura guztia blokeatuko luke.

Aulki Zuriak alderdia ez balitz gutxieneko boto kopuru horretara iritsiko, hauteskundeek ez lukete baliorik izanen. Orduan, batzorde kudeatzaile bat sortzeko ardura herritarren eskuetan geldituko litzateke.

Arantzan eta Zubietan herritarren taldea eta Aulki Zuriak

Arantzan herritarrek EH Bildu taldea osatu dute. Xatur La-

rralde Ibarrola da zerrendaburua, eta berarekin batera, udaleko martxan esperientzia dutenak eta aurpegi berriak bildu dira taldean. Aulki Zuriak taldeak ere aurkeztu du taldea Arantzan, baina ez dira herritarrik.

Zubietan herritarrek Herriko Taldean bildu dira, egungo alkate Ernesto Dominguez Olea buru dutela. Taldea azken agintaldian ondoan izan dituen zinegotziek eta izen berriek osatu dute. Zubietan bertze taldea Aulki Zuriak da. Kasu honetan ere ez dira herritarrik.

Eratsunen herritarren bi talde

Pausoz Pauso eta Saiatu taldeak aurkeztu dira Eratsunen azaroaren 26ko udal hauteskundeetara. Eratsunek 250 biztanle baino guttiago dituenek, zerrenda irekia da. Alegia, boto emaile bakoitzak gehienez ere bortz hautagairi eman diezaiolke botoa. Hautagai bakoitzak dituen dituen botoak zenbatzen dituzte eta horren arabera hautatzen dituzte ordezkariak.

Lerro hauek idazterakoan hori zen azken orduko informazioa. Hala ere, hasieran argitaratutako zerrendetan akatsen bat izanez gero, urriaren 29ra arteko epea zuten erreklamatzeko. Hilaren 30ean aldarrikatzekoak zizuzten hautagaitzak eta behin betiko zerrendak, berriz, urriaren 31n argitaratzekoak zizuzten Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Mahaien zozketarik ez

Bigarren deialdia izanik ez dute hauteskunde mahaien zozketarik eginen, eta maiatzeko zozketan atera zirenei tokatu-

ARANTZA



EH BILDU
Xatur
LARRALDE
IBARROLA



AULKI ZURIAK
Luis Maria
ORMAETXEA
SANTSIÑENA

2. Leire Mitxelena Gamio. 3. Igor Ugalde Salazar. 4. Ana Maeztu Villanueva. 5. Andoni Mitxelena Danboriena. 6. Itziar Arozena Bergara. 7. Julen Oskoz Elizondo. Ordezkoak: 1. Unai Urkia Ruiz. 2. Aitziber Lizardi Mutuberria. 3. Ander Almandoz Indakoetxea.

2. Antonio Pikabea Sarasola. 3. Anne Roteta Uresberueta. 4. Esteban Eduardo Martinena Padiál. 5. Maria Montserrat Vidales Moreno. 6. Isidro Gomez Gomez. 7. Silvia Ortega Torres.

ZUBIETA



HERRIKO TALDEA
Ernesto
DOMINGUEZ
OLEA



AULKI ZURIAK
Daniel
LIZARRALDE
AGIRRE

2. Ezekiel Loiarde Santesteban. 3. Martxel Elizalde Elizalde. 4. Ainhoa Mindegia Santesteban. 5. Pedro Hilario Santesteban Loiarde. 6. Txomin Hualde Elizalde. 7. Imanol Baleztena Elizalde.

2. Jose Antonio Diez Agesta. 3. Andoni Pikabea Lamuedra. 4. Laura Silvo Sanchez. 5. Maria Elena Gil Suarez. 6. Maria Dolores Soria Medina. 7. Maria Luisa Delgado Vicioso.

ERATSUN

PAUSOZ PAUSO

1. Nagore Eskudero Baleztena. 2. Raquel Telletxea Santesteban. 3. Ana Isabel Mariezkurrena Murgia. 4. Nekane Bendoiro Urroz. 5. Patxi Mariezkurrena Deskarga.

SAIATU

1. Ignacio Estanga Mitxelena. 2. Juan Maria Grazenea Moreno. 3. Maria Jose Mitxelena Otegi. 4. Ibai Mitxelena Mariezkurrena. 5. Goizeder Mindegia Benito.

ARESO



AULKI ZURIAK
Jose Luis
DE ZUBIKARAI
ORTIZ DE
ARTINANO

2. Jon Usobiaga Ferrer. 3. Antonio Romaña Antolin. 4. Paul Borda Cobreros. 5. Maria Teresa Liz Gutierrez.

URROZ

AULKI ZURIAK

1. Maria Cruz Pascual Sanchez. 2. Saioa Rodriguez Elgorriaga. 3. Jessica Peña Peña. 4. Virginia de la Cruz Diaz. 5. Maria Teresa Muñoz Valverde.

kozaie mahaiari egotea bigarren aldiz. Aste honetan egin diete berriz jakinarazpena.

Bertzetik, kanpainak azaroaren 11n hasi eta 24ra arte irauzen du eta hauteskundeak eginda, udalbatzak abenduaren 16an osatuko dituzte.

Informazio gehiago:



Mugako Bidea audiogidaren bigarren bertsioa

Muga marraren gainean egiten den bidea da, eta hiru kilometrotan mugako kontuak aditzeko aukera ematen du

A. LARRETXEA

2014an, udalaren enkarguz, mugari buruzko ibilaldi gidatuak egiten hasi ziren herrian, eta ondotik, bertako informazioa audiogida batean bildu zuten. Bederatzi urte bete dira aurten gida sortu zutela, eta teknologia berrietara egokitzeko, eta eskuragarriagoa izateko, sistema berri dute orain.

Funtsean, tresna berdina izanen da, baina orain arte mugikorrerako aplikazioa zena, hemendik aitzinera web orria izanen da. Gainera, gidoia egokitu dute, azken hamar urtee-

tako gertakariak gehitu dituzte, batez ere muga gurutzatzen duten migratzaileen auzia ere kontatuz. Alberto Barandiaranek, Kike Diaz de Ultzurrunek eta Asier Gogortzak osatu zuten gidoia eta Badalabek egokitu du tresna.

Muga marraren gainean egiten den hiru kilometro pasatxoko bidea da. Istorio fikzionatu bat, eta horren gainean benetako kontakizunak dira kontatzen direnak. Euskaraz, gaztelaniaz zein frantsesez egiteko aukera dago *mugako-bidea.com* helbidean.

Emakumeen istorioak argitaratu ateratzeko bisita

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunean, herriko emakumeen istorioak ezagutarazteko bisita gidatua egin zuten Jon Abrilen eskutik. Bederatzi geldialditan orain arte aunitz ezagutu gabeko kontuak azaldu zituen Abrilek.



UTZITAKOIA

Bidasoa ibaiaren garbiketa egin dute

Recicla-Birziklatu elkarteak sustatua, Bidasoa ibaiaren garbiketa egin zuten urriaren 14an. San Miguel zubian hasi eta Hondarribira bitartean, hainbat eremutan egin zuten eta herrian 15 lagun inguru bildu ziren zaborra biltzeko. Ibaian sartu gabe, bazterrak garbitu zituzten giro onean.

'Intzola, pasoko bidea' liburua argitaratu dute Mugerri eta Jakintza elkarteek

A. LARRETXEA

Berako Mugerri eta Ziburuko Jakintza elkarteek argitaratu dute liburua elkarlanean, udalaren laguntzarekin eta Nafarroako Gobernuaren argitalpenetarako dirulaguntza batekin. Liburua herriko liburu dendatan dago salgai.

Pasabide natural horrek mendebaldeko ertzetik gurutzatzen ditu Pirinioetako mendi adarrak eta XIX. mendearen bukaera arte Urruña eta Bera arteko harremanetarako ez ezik, Espainia eta Frantzia arteko bide nagusietakoa izan zen. Haren

arrimuan arrasto ugari ageri dira, bereziki Intzola eta Berako bertzelako burdinolak eta horiek hornitzeko meategiak, hilobi-monumentu protohistorikoak, errotak... Erromatarrek erabili zuten bidea, eta gerora makina bat gizaldi igaro dira bertatik. Era berean, Berako eta Lapurdi mendebaldearen arteko harreman ekonomikoetarako baliatzen zuten. 1881ean Ibardingo Bidea sortuta, bertan behera gelditu zen Intzolakoa eta handik aitzinera, paseorako eta estraperlorako bertzerik ez zuten baliatu.

ANSONEA OSTATUKO
I. MUS TXAPELKETA

Urriaren 6tik abenduaren 29ra, ortziraletan, 22:00etan - BERA
*Zehaztu gabeko ortzirale batean izan ezik.

Gehienez 32 bikote **Lau erregetara** **Bikote bakoitza 20€**
Gutxienez 8 bikote **eta 40 tantora**

ORTZIRALEROKO SARIAK:	Irabazleak: Bildotsa eta 2 botila cava	Bigarrenak: 5 litroko Ramon Bilbao botila ardo ondua eta gazta bat	Hirugarrenak: 2 txuleta eta 2 botila ardo
------------------------------	--	--	---

*Ortziraleko puntuak banatuko zaizkie lehenbiziko 4 bikoteei.

Laguntzaileak:

1

Abenduaren 29an jokatu da azken solasa eta lortutako puntuen arabera lau sari banatuko dira.

Irabazleak **800 €**
Bigarrenak **400 €**
Hirugarrenak **200 €**
Laugarrenak **100 €**

1

Giro polita izan da Lurraren Egunaren XXXV. aldian

Gasna lehiaketa Sokorro Almandoz herritarrak irabazi zuen, eta sagardoarena Alberto Otxoteko lesakarrak

A. LARRETXEA

XXXV. aldiz egin zuten urriaren 22an Lurraren Eguna. Bertako produktuen azokaz gain, gasna eta sagardo lehiaketak egin zituzten. XXXV. gasna lehiaketan herrian bertan gelditu zen lehen saria. Garmendiko bordako Sokorro Almandoz izan zen irabazlea, bigarren saria Lesakara joan zen, Lesakako Agorlekuko Ainhoa Goñirentzat izan zen eta hirugarren saria Igantziko Txoritokiko Majusta Seinrentzat. Zazpi gasna aurkeztu ziren lehiaketara.

Sagardo lehiaketan, aldiz, lehen saria Lesakako Aialdeko Alberto Otxotekorentzat izan zen eta bigarren saria Zalainzokoko Majiren bordako Jeronimo Oiarzabalentzat. 16 parte hartzaile aurkeztu ziren.

Goizean giro ederra izan zen Altzate inguruan. Txalaparta

doinuz hasi zuten goiza, eta ondotik, Irats eskolako trikitalariak, musika eskolako eta Lesakako txistulariak eta Berako Banda aritu ziren giroa alaitzen.

Arratsaldean lehiaketen sari banaketa egin zuten Patxi Castillok gidatuta, Ekhiñe Zapiain eta Julen Zelaieta bertsolariek. Ondotik, hirurak bertsotan aritu ziren. Gero, Otsanda txarangak alaituta mutxikoak izan zituzten eta eguna borobiltzeko Bide batez taldearekin dantzaldia izan zen.

Besta giroa bezperatik nabaria zen. Lizuniagako Igoera egin zuten, eta ondotik Bera Kantariko kideak aritu ziren kantuan. Tenore berean egin zuten Barazki Opil lehiaketa, eta Itsaso Irigoienek, Irene Matxiarenak eta Mari Karmen Urtzegik irabazi zuten.



Giro ederra izan zen herriko karriketan egun osoan. TTIPI-TTAPA

Haurrenganako sexu abusuei buruzko sentsibilizazio hitzaldia azaroaren 17an

A. LARRETXEA

Azaroaren 19an izanen da Haur eta Nerabeen Sexu Abusua Prebenitzeko Munduko Eguna, eta horren harira, ortzira-lean, azaroaren 17an hitzaldia izanen da Beralandetan, 18:00etan. Garaitza elkarteko kideak izanen dira hitzaldia

emanen dutenak, eta gazte-leraz izanen da.

Parte hartzeko aitzinetik izena eman behar da, eta azaroaren 9a izanen da azken eguna. 948 63 50 36 eta 634 22 36 59 zenbakietan edo info@bortziriakgz.eus helbideetan egin behar da.

'Zaratak ez du izenik' erakusketa Labiaga ikastolako Areto Nagusian

A. LARRETXEA

Xabier Erkizia soinu artistak *Zaratak ez du izenik* erakusketa paratua du Labiaga ikastolako Areto Nagusian eta asteburuetan ikusten ahal da 16:00etatik 20:00etara. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, Erkiziak urteak daramatza

«zarata egiten, soinuakikertzen, entzumenari buruz idazten, musikariak zirikatzen eta haiekin kolaborazioak lotzen... eta bertze hamaika ertzez jositako bide oparoa ibilia du dagoneko». Lehendabiziko aldiz gibelera begirako erakusketa batean bildu ditu bere lanak.

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurtenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformatxak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

ALBERTO RETEGI

abokatu

abokatu

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Mendi ibilaldia eta bazkaria Xulufriak sarearen eskutik

Azaroaren 5ean Unanura mendi irteera eta Arrano elkartearen bazkaria antolatu ditu talde feministak

AITOR AROTZENA

Xulufriak Lesakako sare feminista berriz ere martxan da eta azaroaren lehen igandearako mendi ibilaldia eta bazkaria antolatu ditu. **Azaroaren 5ean**, igandean 09:00etan abiatuko dira Plaza Zaharretik eta Unanura mendi buelta eginen dute eta gero Arrano elkartearen bazkaria izanen dute. Bazkarirako txartelak 15 euroren truke eskura daitezke, azaroaren 2a baino lehen.

Indarkeria matxista

Azken asteotan indarkeria matxistagatik jarritako salaketa baten berri izan duela erranez, oharra ere karrikatu du Xulufriak taldeak. «Eraso edo jarrera matxistak jasan dituzten edo jasaten dituzten emakumei* babes osoa» adierazi eta «indarkeria egiturazkoa dela» salatzeaz gain, «harreman sare sano eta parekideak erakitzea denon ardura» dela aldarrikatu du.

Gertatutakoaren eta horren inguruko zurrumurruen harira «babes osoa helarazi» nahi izan die «edozein motatako

eraso edo jarrera matxistak jasan dituzten edo jasaten dituzten emakumei*». Gaineratu duenez, «jarrera eta eraso matxistak ez dira gizonezko bakarrak egindako gertakari isolatuak: indarkeria egiturazkoa delako azaleratzen dira; eta, hain justu, normalizatuak ditugulako kostatzen zaigu horrenbertze jarrera eta eraso horiek identifikatzea. Denon ardura da elkar-zaintzan oinarrituriko harreman sare sano eta parekideak erakitzea, hala harreman sexu afektiboetan nola lagunartekoetan». Jarrera eta eraso matxistak identifikatu eta salatzeke «formakuntza eta sarete feminista ezinbertzekotzat» jo ditu eta azaroaren 25erako hainbat ekitaldi prestatzen ari da.

Bertzetik, zaintza eskubide kolektiboaren alde mugimendu feministak eta sindikatuek azaroaren 30erako deitu duen greba orokor feministan herrian, eskualdean zein lantokietan antolatuko diren bilera eta mobilizazioetan parte hartzeke dei egin die gizon-emakume guziei.

Andra Mari Zahar Etxean erizain lanetan aritzeko deialdia egin dute

A. AROTZENA

Lesakako Andra Mari Zahar Etxeak erizain lanetan aritzeko lan deialdia egin du. Interesatuak dauden pertsonak curriculumak andramari@lesaka.eus edo tsocial@lesaka.eus helbide elektronikoetara bidali behar dute.

Erizain aritzeko, erizaintzan diplomatua edo graduatua den pertsona behar dute. Mugagabeko kontratua eskainiko zaio, oposizio-lehiaketa bitartez lanpostua betetzen den arte. Astelehenetik ortziralera goizez ariko litzateke Zahar Etxean.



ENEKO FERNANDEZ

Merkatu afaria bertsolarietarako

Merkatu afaria egiteko ohitura bada hamabortzero, ortzegunarekin, Kasinoan. Urriaren 19an, ohiko afaltzarrei, bertze hainbat elkartu zitzaizkien, Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze bertsolariak ere kantari izan baitziren. Udalak eta Bortzirietako bertso eskolak antolatu zuen afaria.



UTZITAKOA

Tindufeko liburutegiak gurean

Azaroaren 10era bitarte ikusgai dago liburutegian *Bubisher*. *Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetako liburutegiak* erakusketa. Azaroaren 16an Kabiak eta eremuetako liburutegien lanari buruzko solasaldia izanen dute 17:30ean eta kamishibai saioa (haurrentzako jarduerak) 18:30ean.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanltonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

ORBEA PINARELLO MONTEV
BERCAMONT BH MERIDA



Jendetza bildu zen Intxaurrenearen inaugurazio ekitaldian. AITOR AROTZENA



Lehen belaunaldietako ikasleen gurasoak 'Tantaia' kantari, musikariekin.

Intxaurrenea eta Tantaia aurkeztu ditu ikastolak

Ikastolaren 50. ikasturteko lehen ospakizuna egin zuten urriaren 21ean eta 250 lagun bildu ziren bazkaltzera

A. AROTZENA

Tantirumairu ikastolak, betiko Otxogorrienearen ondoan eraikitako Intxaurrenea eraikina inauguratu zuen urriaren 21ean. Modu berean, ikastolaren 50. urteurreneko lehen ospakizuna ere egin zuten. Apirilaren 13an eta ekainaren 22an egingen ditu bertze biak. Frontoiko bazkarian 250 lagun bildu ziren.

Intxaurrenea bisitatzeko aukera izan zuten ikastolara hurbildu zirenek. Tartean ziren Nekane Artola, Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen lehendakaria eta Elena Zaba-

leta eta Josu Reparaz, Nafarroako Ikastolen Elkartearen lehendakaria eta idazkaria, Nafarroako bertze hainbat ikastoletako ordezkariak eta Tantirumairu ikastolako lehengo eta oraingo ikasle, irakasle eta gurasoak. Intxaurrenea bisitatu bitartean hiru proiektu ere ikusgai zeuden: *Etxea edo itxia?*; Martxel Rodriguez Etxabide dantzaria eta ikasle ohia protagonista zuena eta lehengo eta oraingo ikasleen argazkiak biltzen zituen *Iraganerako leihoa*. Gainera, umamia, samina, mingotsa, garratza, gazia eta gozoa das-

tatzeko luntxa ere izan zen. Izan ere, Haur Hezkuntzako ikasleendako gelak ez ezik, sukalde eta jangela berri dotoreak ere biltzen ditu Intxaurreneak.

Eraikin berria bisitatu ondotik, Otxogorrienea eta Intxaurrenea arteko patioan ekitaldi jendetsua egin zen. Iban Garrok olerki hunkigarria errexitatu zuen, Olatz Rojok zeharkako txirularekin lagunduta. Ondotik, Edurne Marin ikasle ohiak, bera ikasle zen garaian sortutako ikastolaren logotipoa zuen kutxa gaur egungo seigarren mailako ikasleei eman eta denak Kristo-Eneara joan ziren, bertan baitute jolaslekua prestatua ikasleek. Gainera, orain, Tantaia ere badute, Eduardo Condek landutakoa. *Tantaia* kanta abestu zuten lehen belaunaldietako gurasoek, musikariren laguntzarekin.

2017ko Nafarroa Oinezaren garaian ikastolako zuzendari zen Aitor Iratzokik eta presi-



Logotipoaren kutxa eramaten.

dente zen Amaia Lasherasek ikastolaren historiako mugariak zehaztu zituzten eta eskerrak eman, duela sei urteko auzolan erraldoi hari esker gauzatu ahal izan delako eraikin berria. 50. urteurreneko lehen ekitaldia frontoian 250 lagun bildu zituen bazkariarekin bukatu zen.

APIRILAREN 13AN ETA EKAINAREN 22AN ERE OSPATUKO DUTE

'Los descalzos' liburuaren aurkezpena

Francisco Javier Irazoki herriko olerkariaren *Los descalzos, Poesía completa (1976-2023)* liburuaren aurkezpena egingen dute azaroaren 11n, larunbatean, 19:00etan udaletxeko pleno aretoan. Poesía Hiperion argitaletxeak argitaratu du ia 50 urteko lanen bilduma.

Roqués organoari buruzko liburuaren aurkezpena

Iñigo Morentin eta Organoaren Lagunen Elkarteak idatzitako *Lesakako Roqués organoa (1893-2023)* liburuaren aurkeztuko dute azaroaren 5ean, igandean, 18:30ean Harriondoa kultur etxean. Organoaren zaharberitzearen inguruko dokumentala ere emanen dute.

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

MARTIX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA



Markel Iturria eta Julene Danboriena, bingoko saridunak. ANDONI IPARRAGIRRE

Usategietako igandean jende ugari ibili da

Bezperan ere jendea mugitu zen eta patata tortilla txapelketan inoiz izan den parte hartzerik handiena izan zen

IRUNE ELIZAGOIEN

Etxalarko gazteek antolatuta, mus eta patata tortilla txapelketa jokatu zituzten urriaren 14an. 24 bikote aritu ziren musean eta Pedro eta Lander Lasaga izan ziren txapeldun. Patata tortilla txapelketan 43 tortilla aurkeztu zituzten. Gaztetxoetan Noa Otazo, Aiara Mitxeltoarena eta Nahia Iparragirre izan ziren irabazleak. Helduetan, berriz, Ane Telletxea, Janire Telletxea eta Naiaira Otxotekoren tortilla izan zen onenan.

Usategietako Igandean Altxatak talo postua jarri zuen



Patata tortilla onenaren egileak.

Lizarietan goizean eta ostatua frontoian arratsaldean. Ilunabarren egin zen bingoko sari-tuak Markel Iturria eta Julene Danboriena izan ziren. Modestok alaitu zuen arratsaldea.

Sahatsa dantza taldeak ikuskizuna eskainiko du azaroaren 11n frontoian

Udazkeneko Kultur egunen barrenean, *Auzolangiltza* dokumentala eta solasaldia izan zituzten Pello Apezetxea Kulturgunean. Herritar andana gerturatu zen ikustera eta, gero, garai bateko eta gaur egungo auzolanez gogoeta egin zuten, Tolomendi elkarteko kideekin.

Bigarren ekitaldia **azaroaren 11n** izanen da. Sahatsa dantza taldeak ikuskizuna eskainiko du frontoian, larunbatean 19:00etan.

Bertalde, *Mendian hil hirian hil* dokumentala ikusgai izanen da **azaroaren 9an**, 19:00etan kultur etxean.



NEREA MITXELTORENA

Mari Jose Iparragirreri omenaldia

Landagain Guraso Elkartek eta jangelako hurrek omenaldia egin diote azken 22 urtetan jangelako langilea izan den Mari Jose Iparragirreri. Egindako lana eskertzeko jangelara hurbildu eta hurrekin solastatu eta agurtu da. Guraso elkarteko guraso guztien esker ona ere jaso du.

Nafarroako carcross txapelketa hirugarrenez irabazi du Imanol Vicentek

IRUNE ELIZAGOIEN

Nafarroako autokros txapelketako azken karrera lehiatu zuen Imanol Vicente herriko gidariak urriaren 14an Mendavian. Lasterketa honetan bigarren postua lortu bazuen ere, sailkapen orokorrean lehenengo bukatu du bertze behin, Nafarroako Carcross kategoriako txapelketan, Nikotar TR3S ibilgailuarekin. Aurtengo txapelketa honek lau karrera izan ditu: Bi Mendavian, bat Miranda de Ebron eta bertze bat Esplusen. 2020 eta 2021eko garaipenei gehitu



Imanol Vicente podiumean.

zaie aurtengoa ere. Denera, lau denboralditan lehiatu eta hirutan lortu baitu Imanol Vicentek lehenengo postuan sailkatzea. Ez da nolanhiko marka!

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziratera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Iturrunubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzclinika.es
@liderahortzclinika

QR code and logo for Lidera.

Azaroaren 25aren inguruan ekitaldiak prestatzen ari dira

Azaroaren 21ean 'Nagore' dokumentala emanen dute eta Nagore Laffageren ama, Asun Casasola izanen da hizlari

ANA ETA ITZIAR

Azaroak 25eko Emakumearen kontrako indarkeriaren aurkako eguna gainean dugula eta, hasiak dira zenbait ekitaldi egiten herrian.

Joan den urriaren 26an egin zen ekofeminismoa eta landa eremuko emakumeari buruzko hitzaldi arrakastatsuen ondotik, eskolan ere ari dira hainbat ekintza lantzen. Berdintasun Batzordea osatu duten honetan (ikasle eta irakasleez osatua dagoena), azaroaren 25a prestatzen hasiak dira.

Horien artean herriko Lorhazki Emakume Taldearekin elkarlanean, taldearen berri jakin eta beraiekin harremanak estutu nahi du Berdintasun Batzordeak eta beraiekin batera egun berezi bat antolatu nahi dute.

'Nagore' dokumentala

Lorhazki Emakume taldeak ere prestatua du ekitaldi berezi bat egun honen inguruan. Azaroaren 21ean, asteartean 17:00etan, Helena Tabernak egindako *Nagore* dokumental



'Nagore' dokumentalaren kartela.

ezaguna eskainiko du udalaren laguntzarekin. Iruñean sanferminetan erahila izan zen Nagore Laffage Casasolaren kasua erakusten duen dokumentala eskainiko dute eta ondotik bere ama den Asun Casasolarekin solasaldia izanen dute.

Izen emateak berdintasuna@bortziriakberd.eus helbide elektronikoa edota 722 69 30 78 telefono zenbakira deituz egin ahal izanen dira.

Igantzi Bizirik taldea hirigintza arautegia egokitzeke sinadurak biltzen ari da

ANA ETA ITZIAR

Orain dela aste batzuk Igantzi bizirik taldeko kideek herriko etxean aurkezteko sinadura bilketa hasi zuten. «Udalak eman beharko lituzkeen baimenak etetea eta Igantziko hirigintza arautegia egokitzea makropoligono eolikoak eta

holako azpiegiturak gure herrian ezin instalatu ahal izateko» eskatzen zuten. Dagoeneko, eta oraindik sinatzeko aukera bukatu ez denean, 220 bat lagunek eman dute bertan izena. Azkura egindako irteerarekin bideoa ere egin du Igantzi Bizirik taldeak.



Lehen Hezkuntzako ikasleak bide berdean. ANA ETA ITZIAR

Bizikleta irteera eta tailerrak izan zituzten eskolako ikasleek urriaren 13an

ANA ETA ITZIAR

Urtero sasoi honetan egiten den bezala, aurten ere eskolatik bizikleta irteera egin zuten urriaroen 13an. Eguraldia lagun, Lehen Hezkuntzako lehen eta seigarren maila arteko neska-mutikoek lehenik Berrizaun bitartera errepidea hartu eta handik bide berdean barna, Berara joan ziren eta bertan pasatu zuten eguna. 09:30ean eskolatik atera eta 15:30ean ailegatu ziren herri-rua bueltan.

Ttikienak, berriz, (Haur Hezkuntzakoak) eskola eta herri inguruan aritu ziren bizikletarekin ibilbide desberdinetan gozatzen eta bizikletan nahiz bertzelako ibilgailuetan ibiltzeko araudia ikasten. Horretarako, seinaleak, konoak eta markak izan zituzten.

Batzuentzat zein bertzeentzat egun polita izan zen, udaz-



Berarako bidean.



Ttikienak ginkanan.

keneko egun ederraz gorpil gainean gozatzeko.

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Fabaden konponketak,
segurtasun-sistemen
instalazioak, tellatuen eta
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

948 031 174
info@anelan.pro

Haurren herri kirol taldeak ateratzeko bidea hasi dute

Herriz Herri Txapelketan ibiltzen diren gazteak eta laguntzaileak haurrei herri kiroletan erakusteko prest daude

NEREA ALZURI

Herrian herri kiroletarako da goen zaletasuna aspaldikoa da. Inauterietan eta bestetan, herri kirol saioak gozatzeko aukera izaten dugu urtero.

Bertzalde, helduek azken bi urteotan taldea sortuz, Nafarroako Herriz Herri Txapelketan parte hartu izan dute, eta parte hartu bakarrik ez, lehenbiziko proba konbinatuan txapela ere etxera ekarri dute.

Orain, urte batzuetako geldialdiaren ondotik, haurren eta gaztetxoaren entrenamenduak hasteko bidea ireki dute Herriz Herri Txapelketan ibili diren gazteek eta horien bueltan laguntzen aritzen diren herritarrek.

Hiru kategoriatan

Gurasoekin eta haurrekin bildu ondotik, harrera ona izan

du gaztetxoak herri kiroletan hasteko proposamenak eta segur aski, hiru talde aterako dituzte: kadeteak (2008-2009 urteetan sortuak), haurrak (2010ean 2011n sortuak) eta kimuak (2012an eta 2013an sortuak).

Entrenamenduak azaroaren 13an hasteko asmoa dute. Zaharrenak astelehenetan 19:00etan elkartuko dira eta haurren eta kimuen taldeak asteartetan ordu berean. Nafarroako Herri Kirol Jokoak, berriz, otsailean hasi eta martxoan bukatuko dira.

Oroimenean ditugu gaztetxo denborako herri kirol saioak, txapelketak eta entrenamenduak. Polita izanen da ondorengoek ere segida ematea. Eta bide horretan laguntzeko prest dauden borondatea eskertzekoa da, dudarik gabe.

Herriko jatetxeak ehiza jardunaldi gastronomikoetan

Garai honetan, Baztan-Bidasoa Turismo elkartearen ekimenez, Baztan Bidasoko ehiza jardunaldiak izaten dira. *Dastatu ehiza, dastatu Baztan-Bidasoa* lelopean aurtengoa 31. edizioa da. Jardunaldietan Burlada, Aterpe eta Pabloenea jatetxeak parte hartzen ari dira.



Errigorako saskiak eskatzeko aukera azaroaren 9ra arte

Udazkenarekin batera, hemen da Errigoraren kanpaina. *Nafar hegoaldeko uzta Euskari puzka* kanpaina parte hartzeko saskiaren eskaera azaroaren 9ra arte egin daiteke. Aldi honetan, saski bakarra dago, Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko 23 ekoizleren bederatzi produktu ekologiko eta konbentzional bilduz osatua. Eskaera Internetez (*errigora.eus*) egin daiteke eta saskia Arantzán bertan hartzeko aukera ere izanen da. Dagoeneko hamar urte dira Errigora abiatu zutenetik.



Joan den urteko kultur egunetako mus txapelketan herritarrek musean.

Asteburuan mus eta partxis txapelketak eta ipuin kontalaria

NEREA ALZURI

Euskara batzordeak antolatutako kulturaldiak asteburuan segituko du. Larunbatean, azaroaren 4an, Ekaitza Elkartean, 16:00etan partxis txapelketa eta ondotik, 18:00etan mus txapelketa izanen dira.

Kulturaldia borobiltzeko, igandean, azaroaren 5ean,

Amelie ipuin kontalariaren saio bikoitza izanen da eskolako gimnasioan. 17:00etan Haur Hezkuntzako eta 1. eta 2. mailako haurrentzat eta 18:00etan 3. mailatik goitiko umeentzat ipuinak kontatuko ditu. Ondotik haurrentzat merienda emanen du guraso elkarteak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Jon Abrilen 'Isildutako Eskuak' liburua

Urriaren 20an, Jon Abril Olaetxea idazle eta kazetari beratarrek *Isildutako Eskuak* bere liburuaz azalpenak eman zituen. Hagitz interesgarria izan zela aipatu digute hurbildutakoek. Urriaren 15ean, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna izan zelako antolatu zuen Berdintasun Zerbitzuak.



ARANTZA
HOTELA



Etorri Arantza Hotelera bazkaltzera zure bikotearekin

Hagitz eskaintza berezia. Bortziak, Malerreka, Baztan, Xareta eta Leitzaldeko herritarrentzat. 2 lagunentzat bazkaltzeko edo afaltzeko menuarekin, 45 minutuko spa saio pribatua doan.

Erreserbak egiteko **+34 654 31 89 49** edo **info@arantzahotela.com**

Baldintzak

Eskaintzak Izu, Mendaur, Dastatze edo Romantikoa menua hartzen duten bikoteentzat balio du.
*Eskaintza erabateko baimelarekin
(menuak webgunean www.arantzahotela.com).

Beharrezkoa da erreserba egitea, edukiera mugatua da. Eskaintza honek 2024ko martxo bukaera arte balio du.





Ekaitz Bertiz, Lekeition ikusleen saria jaso zuenean. RAKEL GOÑI LAKAR

Ekaitz Bertizen film laburrak Madrilen eta Lekeition sarituak

'Eclipse morala' eta 'Hitza eman nion' lanek ikusleen boto gehien lortu dituzte bi jaialdietan

MAIDER PETRIRENA

Madrilgo III. Actrum International Film Fest jaialdiko Film laburren atalean saritu dute Ekaitz Bertiz Apezetxea sunbildarraren *Eclipse morala* lana. Lehiaketa online izan da eta aurkeztutako 18 lanen artean, Bertizen film laburra izan da boto gehien bildu dituen. XVII. mendean giroturiko film laburra da *Eclipse morala*. Duela bi urte, Leurtza inguruan grabatu zuen.

Lekeition ere saritua

Baina ez da hori Bertizek egin duen lan bakarra. Aurten *Hi-*

tza eman nion film laburra ere ekoitzi du eta urriaren 19an Lekeitioko Ikusgarri Zineman estreinatu zuen, 46. Euskal Zine Bileran 20 film laburren artean berea aukeratua izan baitzen. Gainera, ikusleek emandako botoen bidez EITB Ikusleen Saria irabazi zuen eta beretako izan ziren Zilarrezko Antzarra eta 750 euroko saria. Donostiako Beldurrezko eta Fantasiako Astean ere ikusgai izan da urriaren 30ean. Aurtengo ilbeltzean Arantzan grabatu zuen Garaiko bordan (bere amatxiren sortetxea), Beratsekun eta Putzubeltzan.

Hiru Hiriburuak txapelkun izan da Nahia Bertiz

Hiru Hiriburuak txapelketan, pilota mistoarekin, gazteen mailako finalean, Nahia Bertiz sunbildarrak eta Zelai Sarrateak 18-8 irabazi zieten Beltrani eta Merinori urriaren 15ean Bilbon.



ESKOLAK UTZIA

Zubietako errotara eskolakoekin bisita

Eskolako ikasle eta irakasleek Zubietara irteera egin zuten urriaren 19an. Koxkorrenak Elgorriaga eta Iturendik oinez joan ziren, txikienak berriz, autobusez. Hiru txandatan errotako bisita egin zuten Edortarekin eta taloak egin zituzten Lourdesen eta Imanolen laguntzarekin.

Estatu mailako kanpin onenen artean izendatu dute Ariztigain

Espainiako Camping Federazioak urtero ematen dituen sarietako baterako izendatu dute Ariztigain kanpina. Zehazki, natur inguruneko kanpin onenaren kategorian finalista da. Azaroaren 16an emanen dituzte sariak. Guztira espainiar estatu osoko 900 kanpin

baino gehiago daude federazioan eta horietatik 27 izendatu dituzte azaroaren 16an emanen dituzten sarietarako finalista, hainbat kategoriatan. Nafarroako bertze bi kanpin ere finalista dira bertze kategoriatan: Allosko Ariztaleku eta Etxarriko kanpina.

Luis Manterola omendu du Arkupeak elkarteak

Arkupeak elkarteak bazkide eguna ospatu zuen urriaren 19an. Sunbildar bakarra zegoen omenduen artean, Luis Manterola Ibarra, baina herritar andanak parte hartu zuen ospakizunean. Meza eta omenaldiaren ondotik bazkaria eta dantzaldia izan zuten.

'Penitencia' dokumentala ikusgai azaroaren 8an

Penitencia dokumentalaren emanaldia eskainiko dute azaroaren 8an, asteazkenean 19:00etan udaletxeko sabaian. Udalak eta Malerrekako Mankomunitateak antolatu dute emanaldia, Genero Indarriaren aurkako estatu-itunaren barrenean.

BEHIN L. TXIMISTINDAR INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zelai In., 42 Bera. 048 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 50 65



Batez ere kantu herrikoiak abestu zituzten emanaldian. MENDI ABESBATZA

Mendi abesbatzako kideen emanaldi ederra karrikan

Urriaren 15ean emanaldia egin zuten karrikan. Gainera, urriaren 20tik 22ra Burgosen izan dira bi kontzertu ematen

TTIPI-TTAPA

Mendi abesbatzako kideek emanaldi ederra eman zuten urriaren 15ean herriko karrikan. Udalak herria dinamizatzeko antolatutako ekitaldien barrenean egin zuten, eta karrikan izateak hasieran zalantzak eragin bazizkien ere, gustura aritu ziren. Emanaldirako udalak aulkiak jarri zituen ikusleentzako, eta publikoaren harrera zinez ona izan zen.

Kontzertuan kanta herrikoiak izan ziren nagusi: *Nere herriko neskatxa maite, Baratz bat, Agurra...* Hainbat

bakarlari ere aritu ziren: Goreti Anzizar, Marisol Arraztoa, Loli Salaberria, Alicia Tellexea, Fran Indart, Xalba Barriola eta Beñat San Miguel. Pianoarekin laguntzen Ruth Etxebeste egon zen. Emanaldi atsegina eta jendetsua izan zen.

Mendiko kideak Burgosen

Urriaren 20tik 22ra Doneztebetik Burgosera abestera joan ziren Mendiko kideak. Larunbatean Burgos hiriburuan eman zuten kontzertua eta igandean Silosko monasterioan.

Errigorako saskiak eskatzeko epea zabalik da azaroaren 9a arte

OIER ZULAIKA

Euskararen aldeko Errigora kanpainaren hamargarren aldia izanen da udazkenean. Urriaren 20an hasi zen saskiak eskatzeko epea eta azaroaren 9an bukatuko da. Online egiteko aukeraz gain, herrian bertan egiten ahal da eskae-

ra Liderekin edo Oierrekin egonda. Ondotik, zineman banatuko dituzte saskiak azaro erdialdean.

Hamargarren urteurrenean saski bakarra egonen da aukeran, eta 50 euroko prezioa du. Saskiaren % 25 euskalgintzara bideratuko dute.

Luzaroan albinte izandako Patxiku Andueza hil da

Triste ernatu zen herria urriaren 19an, urte aunitzez udalean albinte lanetan aritutako Patxiku Andueza zendu baitzen. Erretiratu ondotik ere lanean segitu zuen Anduezak Arkupeak elkarteko delegatu gisa aritu baitzen.

Doluminak sendiari.



Patxiku Andueza. ARKUPEAK ELKARTEAK

Kultur ekitaldi ugari izanen dira heldu den egunetan herrian

OIER ZULAIKA

Azken aldia bezala, heldu den egunetan ere kultur ekitaldi ugari izanen dira herrian. Azaroaren 2an Uxue Alberdiren bisita izanen da liburutegian. *Jenisjoplin* nobelaz ariko da bertsolaria eta idazlea Malerrekako Irakurte Taldeak antolatuta liburutegian 18:00etan. Biharamunean, azaroaren 3an, haurrentzako *Urpekariak* ikuskizuna izanen da 18:00etan zineman, Malerrekako Mankomunitateak antolatuta.

Hilaren 11n, larunbatean ekitaldi bikoitza izanen da.



Dantzariak emanaldia eginen dute.

10:00etan *gaixotzen gaituzten emozioak* izeneko solasaldia izanen da Herrigunean. Arratsaldean, aldiz, Erreka Dantza Taldeko kideek dantza ikuskizuna eginen dute kiroldegian.

Azaroaren 4an eta 5ean hasiko da Errekaren Bortz Kirol txapelketa

TTIPI-TTAPA

840. aldizkarian aipatu genuen udazkenean hasiko zela Erreka elkartean Bortz Kirol txapelketa. Dagoeneko data finkatua dute, eta lehen partidak azaroaren 4an eta 5ean izanen dira Ezkurra frontoian. Zortzi pilotari ariko dira lehian, bi taldetan banatuta.

Iñaki Lizaso, Aratz Luixa, Jon Apeztegia herritarra eta David Albiasu narbataarra ariko dira lehen multzoan. Txapelketako antolatzaileen arabera, Lizaso, Luixa eta Apeztegia izanen dira hurrengo fasera pasatzeko fa-

boritoak. Bigarren multzoan aldiz, Jerome Karrikaburu egungo txapelduna, Peio Etxeleku eta David Mitxeo eta Imanol de Rueda herriko pilotariak ariko dira. Multzo horretan Karrikaburu jotzen dute faborito nagusitzat, eta lehia estua egonen da bertze hiruen artean finalerdietarako bigarren txartela lortzeko.

Multzo bakoitzetik bi pilotari pasako dira finalerdietara, eta gero, elkarren kontra jokatuko ondotik jakinen da bietako zein pilotari ariko diren final handian.



Herriko trikitilariak jaialdian. ARTXIBOKOA

Aurtizko bestak azaroaren 9tik 12ra ospatuko dituzte

Ortziralean herri bazkaria izanen dute Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariekin

ARKAITZ MINDEGIA

San Martin bestak ospatuko dituzte Aurtitzen azaroaren 9tik 12ra. Ohi bezala, egitarau zabalak prestatu dute.

Azaroak 9, ortzeguna

17:00etan Txupinazoa. Ondotik, kalejira herriko txistulari eta trikitilariekin. **17:30ean** haur jokoak. **19:00etan** mus txapelketa. **21:00etan** zopak ostatuan.

Azaroak 10, ortziralea

10:00etan argisoinuak herriko txistulariekin. **12:00etan** pilota partida Koianea Ttikia pilotalekuan. **14:00etan** herri bazkaria Angel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña bertsolariekin. Ondotik, dantzaldia Beñat eta Fernandorekin. **Arratsaldean** puzgarriak. **22:00etan** ogitarteko jatea ostatuan. **Gauetz** juergak segituko du.

Azaroak 11, larunbata

San Martin eguna **10:00etan** argisoinuak herriko txistulariekin. **11:00etan** Meza nagusia San Martinen ohorez. **12:00etan** gazteen



Herriko trikitilariak kalejiran.

arteko pilota partidak. **16:30ean** trikitixa jaialdia. Ondotik, merienda soziedadean. **19:30ean** dantzaldia Iratzar taldearekin. **21:00etan** gazteen afaria ostatuan. **00:30ean** dantzaldia Iratzar taldearekin.

Azaroak 12, igandea

10:00etan argisoinuak karriz karriz herriko txistulariekin. **12:00etan** motozerra erakustaldia, Mikel Lasarteren eskutik. Goizean eskulangileen azoka izanen da. **17:00etan** dantzarien emanaldia. **18:30ean** Izer eta Alabierrekin dantzaldia. **Ondotik**, patata tortilla eta pintxo lehiaketa soziedadean. **Akitzeko**, herri afaria elkartean.



UTZITAKOA

Orainmenean bertso saio berezia

Aurtizko Koianea txikian bertso saio bikaina entzuteko aukera izan zuten urriaren 13an. Ainhoa Larretxea beratarrak aritu zen gai jartzaile lanetan eta kantuan Ane Labaka, Maddi Ane Txoperena eta Alazne Untxalo herritarra. Gero, jatekoak (gaztainak ere) eta edatekoak izan zituzten, udalaren eskutik.

Tresanea jatetxea Ehiza Jardunaldi Gastronomikoetan

Urtero udazken airean ospatzen den Ehiza jardunaldi gastronomikoak eskaintza bikaina ematen du aurten ere urriaren 16tik azaroaren 30era bitarte. Tresanea ostatuan ere aukera bikaina dago ehizaren inguruko plater bereziak dastatzeko.

Saldiaskoekin batera Peru Harrira ateraldia

Saldiasko Otxonta eskolakoe-kin batera Pulunpa eskolakoen ere Leitzako Peru Harri museora joan ziren urriaren 25ean. Iñaki Perurenak berak antolaturiko ekintzez gozatzeko aukera izan zuten eta eguerdirako bakoitza bere eskolara itzuli zen.

Pulunpa eskolan herri kirolak lantzen ari dira

Eskolako ikasle ttikienak beraien irakasleekin batera herri kirolak lantzen ari dira. Irakasleak lorturiko informazioaz gain, etxetik ikasleak eraman-dako argazki eta berriekin lanean aritu dira. Herriko kirolari handi bat, Maika Ariztegi, bisitan joan zitzaizen.

Maika Ariztegi bosgarren Euskal Herriko txapelketan

Euskal Herriko emakumezkoen aizkolari txapelketaren finala jokatu zen urriaren 15ean El-goibarren. Nerea Arruti suertatu zen txapeldun. Maika Ariztegi iturendarra bosgarren izan zen. 30 minutu eta 59 segundo behar izan zituen sei enborrak mozteko.



KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publikatzen
www.kulturkari.com

Biniloak

Pareta eta erakusleihoetarako
Neurrira eginak, azido efektua, elektrostatiakoak, gardenak, jartzeko errazak...



Laxoa partida jokatu zuten plazan. MIKEL MENDIBURU



Tomas Ibarra gaztaina erretzailea eta laguntzaileak. M. MENDIBURU

Sasisexo libre eguna arrakastatsua izan da aurten ere

104 urte bete dituen plazan laxoa partida jokatu zen aspaldiko partez eta gaztaina erreak eta zikiro-jatea izan zuten

FERMIN ETXEKOLONEA

Bigarren aldiz Sasisexo libre eguna bikain ospatu dute urriaren 14an. Herri kirolak, aspaldiko partez laxoa plazan, gaztaina-jatea eta beste hainbat ekitaldi izan ziren.

Egun osoko ekitaldiak egin nahi ziren, baina euriarengatik, garai bateko lanen erakustaldirik ez zuten egin. Gainerakoa zuzen bete zen. Tomas Ibarrazartanarekin erre zituen gaztainaketa herritarren artean banatu zituzten.

Dagoeneko 104 urte ditu herriko plazak (2019an bete zuten mendea) eta garai batean

bezala, laxoa partida jokatu zuten plazan, ez nolanhiko pilotariekin gainera. Laxoa Elkarteko Tiburtzio Arraztoa ere bertan izan zen epaile lanetan eta garai bateko botarria ere gogoan izan zuen. Garai batean plazatik desagetu eta etxeren bateko pilare moduan erabili omen zuten. Tantoak eta jokoak nola egiten diren, kontatzeko modua eta beste hainbat jakingarri azaldu zituen. Izan ere, hurbileko herrietan, Donezteben edo Oizen adibidez, segida handia du laxoak, baina Zubietan ez da hainbeste ezagutzen.



Giro ederra izan zuten estalpeko zikiro jatean. M. MENDIBURU

Sokatiran ere aritu ziren, goiko auzokoak beheko auzokoan kontra. Estalpean egin-dako zikiro-jatean 70 bat lagun bildu ziren bazkaltzera. Giro onean joan zen eta bazkalondan sorpresak ere izan ziren. Bazkaria jausteko betizuak atera zituzten landa eremuko itxitura baten barrenean. Musika soinua Andoni Mitxelena akordeoilariak jarri zuen.

Ospakizun honen lehen edizioan Ultzamakoekin aritu

ziren herri kiroletan eta hirugarren edizioa antolatzeko asmoa ere agertu dute antolatzaileek, baina astia hartuz, eta, ahal bada, Euskararen Egunezik urrunago jarritz.

70 LAGUN BILDU ZIREN ESTALPEKO ZIKIRO-JATEAN BAZKALTZERA



JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU

Erregai Banaketa Zerbitzu Berria zure etxera

INFORMA ZAITEZ!

Ordoki Industrialdea, 47. partzela
31713 Ariztun (Nafarroa)

WhatsApp 625 324 423
Email: energiak@josenea.es



www.josenea.es

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN



facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Otorduak egin eta trago bat hartzeko atea zabalik dugu ostatuak.

Herriko Ostatura berriz ere martxan paratu dute

Sonia Perezek hartu du ardura eta ortziraletik igandera irekiko du ostatura

JAIONE ARIZTEGI

2022ko abendutik itxita izan den arren, azkenean atea zabaldu dugu berriz ere Urrozko Herriko Ostatuak. Iruñetik herrira etorri den Sonia Perez izan da ostatura hartu duena, eta bertan bizi eta lan egiteko asmoarekin dator. Jakitera eman duenez, gogotsu dago.

Beraz, nahi duenarendako zabalik dago ostatura, ortziraletik igandera, otorduak egin zein trago bat hartzeko. Etxean egindako hanburgesak, pizzak, bokatak eta aitzinetik eskatuz gero, menuak ere ematen ditu. Ehiztariendako gosariak ere prestatzen ditu, betiere, astez lehenagotik abisatuta.



JAIONE ARIZTEGI

Ipuin kontalaria Urrozen

Haizea Loira ipuin kontalaria Urrozen izan zen besten hurrengo asteburuan, eta irudian ikus daitekeen bezala, ipuin kontalariak herriko haurrak eta gurasoak entretenitu zituen. Ipuinak bere musika doinuekin uztartuz, ederki gozatu zuten.

Musikoterapia genero indarkeria jasan duten edo jasaten duten emakumeentzat

TTIPI-TTAPA

Aurten ere, genero indarkeria-
ren prebentzio eta erreparazio-
rako politikak sustatzeko asmoz,
Baztango Udalak, Malerrekako
Mankomunitateak eta Bortzi-
rietako Berdintasun Zerbitzuak
musikoterapia tailerra antola-
tu dute genero indarkeria jasan
duten edo jasaten duten ema-
kumei zuzendua.

Antolatzaileen arabera, «es-
perientzia aunitzek erakutsi
dute musikoterapiak genero
indarkeria jasan duten emaku-
meentzat ekar ditzakeen onu-
ra positiboak». Hala, tailer ho-
nen bitartez, «emakumeentzat
sostenguzko espazio ziur eta
sortzailea» eskaini nahi dute,
eta horrekin batera, «parte har-
tzaileek emozioak modu era-
ginkorragoan kudeatzea, iso-
lamendu sozial eta emoziona-
la guttitzea eta autoezagutza
sustatzea» nahi dute, «autono-
mia handitzeko eta erreparazioa
lortzeko bidean». Ez da ekimen
berritzailea, lehen ere antolatu
izan baitute, eta diotenez, «orain
arte parte hartu duten emaku-
meen balorazioak hagitz posi-
tiboak izan dira». Azken edizio-

ko parte hartzaile baten hitzak
ere ekarri dituzte gogora: «Ber-
tze emakume bati animatzeko
erranen nioke, hagitz lagunga-
ria delako. Une askea da, ba-
bestua sentitzen zarena. Bizi-
penak, kezak eta sentimenduak
konpartitzeko, bertzeena en-
tzuteko, epaiketarik gabe, mu-
sikaren bidez sentimendu uga-
ri adierazteko».

Izen ematea

Tailer honetan Baztango, Ber-
tizaranako, Bortziritako, Ma-
lerrekako eta Xaretako emaku-
meek har dezakete parte, ge-
nero indarkeria jasan dutenak
edo jasaten ari direnak. Guzti-
ra hamar saio izanen ditu tai-
lerrak. Azaro bukaeran hasi eta
otsailera bitarte, astero bi or-
duko saioa egingen dute. Dohai-
nik da eta antolatzaileek argitu
dutenez, «guztiz anonimoa»: «parte hartzen duten emaku-
meek eta musikoterapeutak
bakarrik ezagutuko dute elkar».

Parte hartzeko, Haizea Loira
musikoterapeutarekin harre-
manetan jarri behar da (655 74
76 95). Azaroaren 6a izanen da
horretarako azken eguna.

Oinarrizko joskintza tailerra antolatu dute Baztanen eta Bortziritan

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Bortzi-
rietako Hiri Hondakinen Man-
komunitateak joskintza taile-
rra antolatu dute Baztanen
eta Bortziritan, Nafarroako
Gobernuaren *Hondakinen
Funtsa* dirulaguntzaz baliatuz.

Azaroan eta abenduan egingen
dute ikastaroa, astearteetan
Elizondoko Arizkunenean eta
ortzegunetan Bortziritako
Garbigunean, 17:00etatik
19:00etara. Zortzi saio izanen
dira, urriaren 31n Baztanen
eta azaroaren 2an Bortziritan
hasita. Lagun Bide Zerbitzuak



Zortzi saioko ikastaroa izanen da.

enpresa sozialak gidatuko ditu
saiok eta arropen bizitza lu-
zatzen ikasteko oinarrizko
konponketak egiten erakutsi-
ko dute. Izena emateko epea
urriaren 27an bukatu zen.



*Euskararekin
gora eta gora beti!*

**AZAROAREN 3tik
ABENDUAREN 10era**

50 ekitaldi baino gehiago,
Nafarroako txoko guztietan,
haur, gaztetxo eta familientzat,
Euskararen Nazioarteko Eguna

ospatzeko.

Azaroa

- 4 *Liburu sendalaria.*** SALDIAS. Tabernaren gainean/Batzar aretoan, 17:00etan.
- 10 *Ez dago kutxarik niretzat.*** LEGASA. Eskola ganbaran, 18:30ean.
- 15 *Nire espazioa eman.*** ELIZONDO. Eskolan, 18:00etan.
- 16 *Liburu sendalaria.*** AMAIUR / MAYA. Otsondo gelan, 17:30ean.
- 17 *Liburu sendalaria.*** ARESO. Udaletxeko ganbaran, 17:30ean.
- 19 *Pirata Garrapata.*** GOIZUETA. Udaletxeko ganbaran, 17:30ean.
- 29 *Nire espazioa eman.*** IGANTZI. Igantziko eskolan, 12:00etan.

Abendua

- 2 *Liburu sendalaria.*** BERA. Kultur etxean, 17:00etan.
- 10 *Gernikako marika.*** LESAKA. Harriondoa Kultur etxean, 18:00etan.



Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Inportantea da berritasunak sartzea»

AINHOA IPARRAGIRRE PERURENA
SALTING - IRUÑEA

«Kirola eta aisia bateratzen dituen espazioa» da Iruñeko Salting zentroa. Abenduan bederatzi urte egingen ditu; «hasieran 1.000 metro karra-tu zituen, baina urteak pasatuta bigarren zatia ireki genuen eta orain 2.000 ditu». Izan ere, «inportantea da berrikuntzak sartzea, urte askoz etortzen den jendeak asko eskertzen ditu». Hori dela eta, irail bukaeran berritasunak paratu dituzte; «bola igerileku zahar bat kendu eta airbag bat jarri dugu tranpolin batekin, jauzi egiteko. Gainera, joko interaktiboak paratu ditugu telebista batzuekin, mugimenduen bidez aritzeko. Teknologia berria da, Holandatik etorri dira obra egitera eta inguruan ez dago horrelakorik. Gauza berriak eta batez ere ezohikoak direnak asko gustatzen zaizkio jendeari».



«Jendeak gure espezieak zein diren ezagutzea nahi dugu»

XABIER LASAGA TELLETXEA
AQUARIUMA - DONOSTIA

1908an sortutako museoa da Donostiako Aquariuma; «Euskal Herriak historikoki itsasoarekin eduki duen erlazio guztia erakusten du, euskal balea izanik erakusketako erregea». Horrez gain, 32 akuario dituzte bertan, «horietatik 21 Kantauri itsasoko eta Atlantikoko espezieekin». Izan ere, «urtero 40.000 bat haur etortzen zaizkigu bisitan, eta ttikiak eta gazteek gure itsasoa zein aberatsa den eta zein arazo dituen erakusten saiatzen gara. Horrela itsasoa maitatzeko aukera gehiago izanen dituzte eta etorkizunean arazo hauei konponbidea ematea espero dugu». Hala ere, ez dira haurrak bakarrik ibiltzen; «Euskal Herriko bigarren museorik bisitatuena da, Guggenheimen ondotik, 300.000 bisitari baino gehiago ditugu urtero; 3 urtetatik hasi eta 100 urtetarainoko profilak ditugu».



«Haurren kopurua mugatuta, gusturago ibiltzen dira»

HELENA GARCIA ETA MIKEL LABORERIA
IZAR PARK - DONOSTIA

0-12 urteko haurrentzako parkea da Donostiako Izar Park, «haien psikomotrizitatea eta sozibilitatea garatzen laguntzen duena». Familientzako, ikastetxeentzako eta udalekuentzako eskaintza dute; «orain eskola aunitz etortzen dira, 35-200 lagun arteko taldeetan». Izan ere, «parkeak 327 haurrentzako lekua dauka, baina jendea bere kabuz etortzen denean 140 haur bakarrik uzten ditugu sartzen, askatasun gehiago izan dezaten eta gurasoek ere tokia izan dezaten». Urtebetetzeak ere «aunitzetan» ospatzen dituzte; «3 orduko joko saioa izaten dute eta merienda ere eskaintzen diegu». Ongi pasatzeko lekua da: «aisialdiaren munduan joera berri aunitz izaten dira, baina haurrei beti gustatuko zaie txirrista batetik jaustea edo bola igerilekuetan ibiltzea».



«Kakao hazitik egindako txokolata da gure bereizgarria»

GARAXI URTASUN ERASO
ARKUPE - ELIZONDO ETA IRURITA

1984an Santi Urtasunek, Garaxiren aitak, Arkupe gozotegia ireki zuen Iruritan, «birraitxiren partetik okinak eta txokolategileak baitziren. 1993an Elizondon lokal ttiki bat alokatu zuen, eta hiru urteren buruan gaur egun ezagutzen dugun dendara lekualdatu zen». Bertan, «beti saiatu izan gara kalitate handiko produktuak eskaintzen: pastelak, tartak, opilak, pastak, izozkiak, txokolata, bonboiak... gaur egun desagertzen ari dira produktu freskoekin eta esku lan egiten duten artisau-gozotegiak». Hala ere, «txokolata da gure espezialitatea. Kakao haziarekin egiten dugu lan, nire birraitatik lantzen zuen moduan». Izoziak ere «Jauregiko behi-esne ekologikoarekin egiten ditugu, eta zaporean eta kalitatean nabari da».



Lurretik Ikasiz: elikadura ekoizpena eta hezkuntza lotuz

Baztango, Bortzirietako eta Xaretako zazpi ekoizle elkarlanean hasi dira euren etxaldeetako lan egiteko moduak ikastetxeetako ikasleei erakusteko asmoz



Zazpi ekoizlek hasi dute proiektua, tartean, Lesakako Agorleku gaztandegikoek.

TTIPI-TTAPA

Elikadura ekoizpena eta hezkuntza uztartzeko asmoz, Lurretik Ikasiz proiektua sortu dute. Baztango, Bortzirietako eta Xaretako zazpi ekoizle bildu dira eta «gure etxaldeetako lan egiteko moduak ikastetxeetako haurrei eta gazteei erakutsi» nahi dizkiete.

Lesakako Agorleku gaztandegia, Elizondoko Autxitxia gasnategia (Elizondo), Arizkungo Baztango Xurie (ardogintza), Berako Erlanki (erlezaintza), Anizko Jauregia Esnekiak, Etxalarko Maira okindegia eta Zugarramurdko Martinea baratzea dira parte hartzaileak. Azarotik ekainera paratuko dute martxan, eta hasteko, eskualdeko ikastetxeetara jo dute, bi ekintza prestatuz. Batetik, bisita bakoitzaren xehetasunak bilduz katalogoa prestatu dute. Bi bat orduko bisitak izanen dira, eta batzuetan baita tailerra ere. Bertzetik, ikasgeletan lantzeko ikasmateriala prestatu dute; «50 bat minutuko sei saiotan lantzeko unitate didaktikoak».

Zazpi ekoizleak eredu ekologikoan edota iraunkorrean ari dira, «eskala txikiako proiektuak gara, salmenta zuzena eginez, lurra zainduz, inguruko baliabideak errespetuz erabiliz eta herriko komunitateen parte izanez lan egiten dugu». Hain zuzen, «elikadura osasuntsuak eta ekoizpen eredu horiek duten garrantzia eta balioa mahai-gaineratu nahi dugu». Ikasleek bisitekin «bizipen polita izatea» nahi dute; «naturara, animalietara, landareetara eta jaten ditugun elikagaietara modu kontzienteagoan hurbilduz».



CAJA RURAL DE NAVARRA

Sinetsi berriro zure aurrezkietan. Eta hazaraz itzazu.

Nafarroako Rural Kutxa Gordailua

Epe finkorako gordailua, **18 hilabete** ra, zure aurrezkiak gero eta gehiago saritzen dituen, **%1,926ko UTB** arekin, honela:

<p>LEHEN SEIHILEKOA: ITN % 1,50</p> <p>BIGARREN SEIHILEKOA: ITN % 1,75</p> <p>HIRUGARREN SEIHILEKOA: ITN % 2,50</p>	<p>Epea: 18 hilabete</p> <p>Interesak sei hilean behin likidatuko dira</p> <p>UTB % 1,926</p>
--	---

www.cajaruraldenavarra.com

Proposamena 2023/12/31ra arte da baliagarria, 18 urteko edo gehiagoko pertsona fisikoentzat. Adibidea, 2023/05/01ean hasitako 100.000 euroko gordailu baterako: 2023/11/01ean 750 euroko interes gordinak likidatuko ditu, 2024/05/01ean 875 euroko interes gordinak, eta 2024/11/01ean 1.250 euroko interes gordinak gehi printzipalaren 100.000 euroak hartara, 2.875 euro gordinetako interesak ondanduko ditu guztira. Komisia aldez aurretik kitatzeagatik %1 da.



Artzainak, tratanteak, Mendaur, lanabesak... ageri dira irudian, baita ezusteko elementu batzuk ere. KARMELE MARTIN

«Merkatuko Plazako giroa erakutsi nahi izan dugu muralean»

KARMELE MARTIN CAMARA HORMA-IRUDIA MARGOTU DUEN EMAKUMEETAKO BAT

Telefonikako horma margotu dute udara honetan Karmele Martinek eta Maria Iruruetak eta irudi eder bat osatzeaz gain, jolaserako proposamena egin dute

ENERITZ IRAOLA DONEZTEBE

Kolore, letra eta marrazkiek apaintzen dute, duela gutxira arte, pintadek hartzen zuten tokia. Udara honetan margotu dute horma-irudia Telefonikako etxean. Baliabide gutxiarekin, esperientzia are gutxiago, baina ilusioz gainezka ekin zioten lanari Karmele Martinek eta Maria Iruruetak.

Arazo bati irtenbidea

Formakuntza eta enplegu tailer batean, lorezaintza eta pintura lanak egiten ari ziren biak: «pareta, sabai, leiho... asko margotu genituen eta zerbait artistikoagoa egin nahi genuela esan genion koordinatzaileari. Horma-irudi hau

margotzeko proposamena egin ziguten eta animatu egin ginen». Alderdi artistikoa lantzeko aukera ematen zieten eta bidenabar arazo bati ir-



Karmele Martin.

tenbidea ematekoa: «pintadez josia egoten zen pareta eta noizbehinka zuritzera joan behar izaten zuten. Ez zuen askorik irauten, beste pintada bat egiten zutelako segituan. Zerbait koloretsua eta polita margotuta, errespetatuko zutela pentsatu genuen».

Sei metroko zabalera

Sei metro luze eta bi metro eta erdi zabal ditu hormak eta Karmelek aitortu du: «horrelako dimentsioko lana egitea ez da erraza». Gainera, ez dira adituak, ezta arituak ere: «ez gara inolako margolari esperientziadunak, baina ilusio eta pazientziarekin, azkenean, egin dugu. Hitz klabea, pa-

zientzia izan da». Abuztu bukaeran hasi eta hiru aste pasatxo behar izan zituzten bukatzeko: «pareta garbitu, zuritu, prestatu... genuen lehenbizi. Gero, koordinatzaileak eman zigun diseinua kuadrakula baten bidez pasa genuen paretara. Lehenbizi arkatzez egin genuen marrazkia eta gero, siluetak egin, kolorea eman...».

Eguraldiak ere asko baldintzatu zuen beraien lana: «bero handia egin zuen eta pintura lehortu egiten zitzaigun berehala. Eguzkitik babesteko soka eta tela batzuk jarri genituen itzala egiteko, baina tartean euria ere egin zuen. Plastikoa gainera jarri genuen eta itaxura sortu zen. Pintatu berria zegoen zati bat hondatu zitzaigun. Horrelako gorabeherak izan genituen eta eskura genuenarekin moldatu ginen». Teknika aldetik ere lan berezia zen, eskuz egin baitzuten dena: «ikusitakoan pentsa dezake norbaitek, laser bidez proiektatuta edo plantilla batekin egin ote den, baina ez, dena eskuz egin da».

Irudimena dantzan

Merkatuko Plazako giroa ageri da muralean: «artzainak eta tratanteak ageri dira, Mendaurko trinitatea eta bertan dauden platanondoan hostoak». Letrek eman diete inprobisatzeko aukera: «tipografia bereziak erabili ditugu eta apaintzeko igitaiak, meta, txondorra, katuska berdeak, astoa... erabili ditugu». Azaroaren 17an Doneztebeko ferietara joaten direnek horma-irudia ikusi eta eguneko giroarekin alderatzeko aukera izanen dute eta baita jolasteko ere: «hurbilduta badira detaile berezi batzuk, urrutitik ikusten ez direnak. Literaturarekin lotura egin eta *Printze txikiaren* irudi txiki bat marraztu dugu. Erdi ezkutuan dago eta jendeari horixe aurkitzeko erronka luzatu nahi diogu».



Doneztebeko Feriak

Azaroak 17

*Emezeta benaneekin
unteno emaitza berezia*

Baztandarren lekukoa hartu dute Mallerrekan eta azaroaren 17an ospatuko dituzte Doneztebeko Feriak. Urteroko errezeta bera baliatu du Doneztebeko herriak egitaraua osatzeko garaian; osagaiak kalitatezkoak direnean, emaitza ona ziurtatuta dagoelako.

Menditik karrirako bidea hartuta, azienda saila bilduko da aurten ere Merkatuko Plazan: behiak, behorak, ardiak... Egunak argitu orduko hasiko da bertan mugimendua eta 14:00ak aldera arte izanen da ikusmiran ibili edo tratuan aritzeko aukera. Aziendekin batera, mota guztietako makinaria eta lanabesak ere jarriko dituzte salgai.

Goizean goizetik, jendez lepo egonen dira karririk ere. Ez da horretarako aitzakiarik faltako. 200 salmahai baino

gehiago paratuko dituzte saltzaileek: jakiak, negurako jantziak, artisaianak, baratxuriak... eta ikasbidairako dirua lortzeko pintxoak ere prestatuko dituzte ikasleek.

Bueltaxka eman ondotik, indarrak berri nahi dituztenek izanen dute horretarako aukera; ferietako menu bereziak prestatzen hasi dira dagoeneko ostatueta eta jatetxeetan.

Arratsaldean, herri-kirola izanen da protagonista Ezkurra pilotalekuan. Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketaren finala jokatu dute eta herrikirol saioarekin bukatzeko, harri jaso-tze erakustaldi bat eskainiko dute. Hortik aitzinera, norberaren esku geldituko da besta ordu tikiak arte luzatu edo ez erabakitzea.

TALLERES ELIZGOYEN

Autoen eta lur orotako ibilgailuen konponketak

Ongi pasa feriak!

- Mekanika azkarra
- Multimarka diagnosis
- Injekzioa
- Gasolioa
- Direkzioa
- Balaztak eta ABS
- Elektronika
- Aire girotua
- IAT aurreko azterketa
- Eskidura
- Txapa eta pintura

MULTIMARKA TAILERRA

Leitzako bidea, 78 - Doneztebe | 948450158
elizgoyen@telefonica.net



Ongi pasa feriak!

MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta
GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

EDERKI tailerra



CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

ongi pasa feriak!

Leitzako bidea 57 - DONEZTEBE - 948 450 525



ongi pasa feriak!

goldea
Laliera s.l.l.

tel./fax: 948 450 960
e-mail: goldetaliera@gmail.com
Pol. Industrial Aparan, 1
31260 Doneztebe (Nafarroa)



CS SARDIAS
HARATEGIA

"Elkagai naturalekin etxean hazitako aretxeen haragia. Etxeko txistorra"

Karrika Nagusia, 19 • 948 450 191 • DONEZTEBE

Belarra jatetxea

ONGI PASA FERIAKI

Amezia zeharkarrika, 3 • 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 • www.restaurantebelarra.com



STIHL

Zerbitzu eta eskaintzarik onenak: **MEREZI DUZU**

GASOLINA-MOTOZERRA MS 170 **ORAIN 199€**

HAIZE MAKINA ELEKTRIKOA ØGE 71 **ORAIN 99€**

José Luis San Miguel • www.joseluisanmiguel.com
MERKATARIEN ZEHARKARRIKA, 11 DONEZTEBE 948 450 711




Zorroztu dituzte aizkorak

Bortz aizkolarari eta txapel bakarra jokoan. Azaroaren 17an Ezkurra pilotalekuan erabakiko dute nor izanen den Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketako irabazlea. Lekunberrin egindako finalaurrekoan erabaki zen nork osatuko duen finaleko boskotea. Bi izanen dira eskualdeko ordezkariak Jon Rekondo leizarra eta Joxean Etxeberria zigatarra. Horiek batera, Iker Vicente, Ibal Sorroa eta Txomin Amundarain ariko dira txapel beltza eskuratzeko lehian.

Seigarren finala du Etxeberriak eta finalera ez dela nahi bezain ongi ailegatu aitortu digu: «eskuak eta gerria juxtu xamar ditut, baina aste pare bat gelditzen dira eta saiatuko naiz aprobetxatzen». Doneztebekoa plaza berezia da zigatarrarentzat, «etxetik ber-

tan, beti giro ona... jende asko izaten da eta nabari da feriek sortzen duten giro berezi hori». Datozen asteetan gorpu-tzari entzun eta finalean duen onena ematen saiatuko da.

Rekondok ere ongi ezagutzen du finalean aritzeak sortzen duen zirrara: «aurreneko finala 23 urterekin jokatu nuen eta 38 ditut orain». Behatz puntekin ukitu du sei aldiz txapela, baina bigarren postuarekin konformatu behar izan du orain arte. Aurten go-gotsu dago: «nahiko ongi ikusi nuen nire burua kanporaketan. Orain finalean ikusi beharko da egin beharreko lana bikoitza baita». Dena den, plazako giroa alde izanen dutela dio: «Doneztebe egun horretan berezia da, feria eguna denez, jendea animatuta egoten da eta ea saio polit bat ateratzen den».

MENDAUR MOTOR

T. Multimarca Especializado 4x4 - Opel - Suzuki
COMPRAVENTA - CHAPA - MECANICA - ELECTRICIDAD

Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333

ongi pasa feriak!





Ongi pasa feriak!



Merkatarien kalea, 29
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 752
M. 609 418 097
info@zarbo.net
www.zarbo.net



Arozena
ostatu - jatetxea

ongi pasa feriak!
T. 948 450 443
Leizako errep., 84
DONEZTEBE

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 Ertegarra pasealekua, 22-1 Eliza Kalea, 22 Eltzeta, 20
31700 ELIZONDO 31780 BERA 31740 DONEZTEBE 31770 Lesaka
T. 948 581 300 - F. 948 580 648 T. 948 631 108 T. 948 450 395 - F. 948 451 304 T. 948 638 077



ZAPATA-DENDA
LIBURU-DENDA
PAPERTEGIA

Parrokia 17 | DONEZTEBE
Tel-Faxa: 948 450 289
imprimircasaoostiz@gmail.com



**GASOLIOA
ETXERA**
eramaten dugu

PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT ZERBITZU ANITZAK

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak

24h-ko asistentziak errepideetan

IAT aurreko zerbitzua dohainik

Gasolindegia 24h irekita



609 446 693 - 679 204 872

nbidasoa@gmail.com

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko

Alkaiaga Industrialdea
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125

Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872

**Ongi pasa
feriak!**



ONGI PASA FERIAK!!

T. 948 456 152
Zazpigarutze, 8 · DONEZTEBE



AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

ONGI PASA FERIAK!

24 ORDUKO ZERBITZUA

BETE DEPOSITUA MAKINA AUTOMATIKOAN

TXARTELAREKIN EDO ESKUDIRUTAN

BEZEROARENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA ITXIA DAGOENEAN

SUPERMERKATUKO PREZIOAK



Ctra. N-121-A - Km 48,8 · DONEZTEBE
T. 948 450 272 · 948 450 787



«Aziendak plazara eramateko momentua hagitz polita da»

Mertxe ALZURI BERTIZ · Abeltzaina

Seaskako lokantekin batera aditu zituen Mertxe Alzuri Bertizek lehenen-goz azlenden urrumak. Sunbillako Exkerneko Bordan sortu zen 1951ko abenduaren 1ean: «han hazi nintzen guraso eta zortzi anai-arre-bekin». Hogeita bost urterekin utzi zuen sortetxea eta Donezteberako bidea hartu: «Victor Mendibururekin ezkondu nintzen eta Doneztebera etorri nintzen bizitzera». Bertan osatu du familia, «hiru seme-alaba izan ditugu eta pixkanaka familia hazi da eta orain sei biloba ditut».

47 urtez abeltzaintzan

Sunbillatik Doneztebera bizitzera joatean ogibidea eta bizimoldea ere aukeratu zituen Mertxek. Hala, «berroigeita zazpi urte» daramatza abeltzain-

tzari lotuta: «nire senarra tratante familia batean jaioa da eta berak ere bide horri segida ematea erabaki zuen». Baserri inguruan hasi ziren eta pixkanaka zabaldu: «hasiera batean txerrikumeekin egiten genuen lan asko. Behi eta aretxeekin ere bai. Gerora, Ganados Mendiburu azienda enpresa sortu genuen».

Plazan, tratuan, etxeko gizonetako aritzen diren arren, sukaldeko lanean, itzalean, aritu da urte hauetan guztietan Mertxe: «familiako enpresetan denok aritu behar izaten dugu». Zerbakien dantza hartu zuen bere gain Mertxek: «etxeko enpresa izanda nik paperak eraman izan ditut orain arte. Hala ere, batzuetan animalien karga eta deskargak egiteko laguntza behar izaten da eta hor joaten gara etxekoak».

Sampi Aragón S.L.



ONGI PASA FERIAK!

T. 948 450 354 | DONEZTEBE • sampiaragon@sampiaragon.com • www.arincar.com

Gaur egungo araudiak ere ez du laguntzen eta «burokrazia aldetik lan hau hain exigentea izanda, iloba batek eta biok eramaten dugu orain administrazio lana».

Familiako enpresari segida

Senarrarekin batera aritu da lanean urte askoan eta semearekin ere ari da orain: «Andoni semeak granja erosi zuen eta bertan hasi zen abereak gizentzen. Betidanik gustatu izan zaio tratante mundu hau eta tikitatik aitarekin ibiltzen zen harat eta honat. 16 urterekin lan honetan zentratu zen, sektore honetan familiako laugarren belaunaldia da».

Zailtasunak

Bidean hainbat oztopo gairatu behar izan dituzte eta gaur egungo egoera ere ez dela erraza dio: «pentsuak, zerealak, forrajeak... gorakada izugarria izan du. Honetaz gain, urtetik urtera animalietan gaixotasun berriak sortzen dira eta honek ere eragiten digu».

Etorkizuna

Abeltzaintzaren etorkizunera begira, argi du: «erraztasunak jarri behar dira sektore garrantzitsu eta beharrezko honek aurrera egin ahal izateko». Baitortasunez solasten du emakumeen paperaz galdetutakoan, «gaur egun geroz eta emakume gehiago ari dira abeltzaintzan lanean eta poztekoa da. Aziendekin aritzea gustuko duten emakumeak animatuko nituzke».

Lanak saria

Egindako lanak saria izaten duela erran ohi da eta feria egunez aziendak pla-

zara eramaten dituzten momentua horietako bat dela dio Mertxek: «goizean goiz Victor senarrak eta Andoni eta Bittor semeek, bilobekin batera, aziendak plazara eramaten dituzte. Momentu hagitz polita da».

Feria eguna barrutik bizi dute eta beraien etxean beti «berexia» izan dela dio: «gure familian egun haundia da. Asteaz zehar dena antolatzen hasten gara: animaliak bildu, plaza prestatu... Lana da, baina gogotsu egiten dugu».

Urteroko tradizioa

Eguna iristen denean aziendak plazara eramaten, plazan dena antolatu eta ordunako gosaria prestatzen du etxean, Mertxek: «egun horretan Doneztebera hurbiltzen diren tratanteentzat gosaria prestatzen dut. Ederkigosaldu eta plazara joaten dira bueltan». Momentu honetan etxeko emakumeak elkartu eta gosaltzera joateko ohitura dute, «eta bertatik plazara hurbiltzen gara familia osoa». Gero, edozein bisitarik bezalaxe: «plazan aziendak ikusi ondotik, herrira bueltatzen gara postuetan barna ibiltzera». Eguerdia iristen denean, «aziendak biltzen dituzte eta bazkaria izaten dugu». Eta hala, mahaiaren bueltan ospatzen dute urte osoan ongi egindako lana.

«Erraztasunak jarri behar dira sektore honek aurrera egin ahal izateko»

CTV
 Rosa Semirano, 15 DONEZTEBE
 T. 948 450 501 M. 699 804 374
 cbe@ctv.net
 www.veterinariastiz.com

Ainhoa Alzuguren Mitxelena ongi pasa feriak!

Abokatutza orokorrean - Herentziak
Alokairuak - Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hiltzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
 ainhooalzuguren@gmail.com

TITI BAR
DONEZTEBE

Amezña 7, Doneztebe
 Tel. 948 450 271

— ONGI PASA FERIAKI! —

Mendiburu
aziendak · tratantea

Ongi pasa feriak!

608 676 221
 948 450 084
 DONEZTEBE

ALTUNA ERRETEGIA

Ongi pasa feriak!
 Oñati eguerdik igande eguerdia
 Besta egunean eta besta bezalantzen

Kontsejo, 27 - ITUREN
 T. 948 450 410

ARIZTIGAIN
 CAMPING, KAMPINGO
 RESTAURANTIA, GASTROA

Plater konbinatuak | Menua | Hainburgesak | Sandwichak |
 Pintxoak | Kaxulak | Bolatxak

info@campingariztigain.com | www.campingariztigain.com

T. 948 450 540 M. 660 798 249 M. 636 488 300 SUNBILLA

Mailposta

PUBLIZITATE BANAKETA / INPRIMATEGIA

EGUTEGIAK / TXARTELAK / KARTELAK / ORRI MUTUAK
 KARTAZALAK / FOILETOAK / TALONARIOAK / BOLETOAK...
 INPRIMITZEN DITUGU.

FOILETOAK / KARTELAK / EGUTEGIAK...
 BANATZEN DITUGU.

(0034) 686 747 713
 (0034) 648 847 167

Arribilagako bidea, 55 - 31793 NARBARTE (No)
 www.mailpostabuzoneos.com



Elkartek omendutako bazkideak Gorraizeko ekitaldian. FOTO ZALDUA

Elkarteko Bazkideen Eguna ospatu dute Gorraizen

367 bazkide elkartu ziren elkartearen egun handian. Elkartek 3.027 bazkide ditu gaur egun

TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteko bazkideek egun handia izan zuten urriaren 19an. 367 bazkide elkartu ziren Gorraizen, eta meza, omenaldia, otordua eta dantzaldia izan zituzten. 12:00etan elkartu ziren Gorraizko elizan, Juan Zabalak emandako meza aditzeko. Azken urtean hildako bazkideak oroitu zituzten. Ramon Apezetxea aritu zen organoa jotzen, eta Pakita Mikela-renak bertso batzuk kantatu zituen.

Ondotik Iñaki Goienetxe elkarteko lehendakariak hartu zuen hitza. Ekainean onartutako Zuzendaritza Batzordea aurkeztu zuen, eta eskerrak eman zizkien orain arte lan horretan aritutako kideei. Taldekide berrien prestutasuna nabarmendu zuen, eta iaz zendu zen Pablo Irastortzaz ere oroitu zen.

Elkartearen inguruko datuak ere eman zituen. 3.027 bazkide daudela kontatu zuen. Era berean, denborarekin elkarteko bazkideen nahiak aldatu daitezkeela azaldu zuen, eta hemendik aitzinera gaur egungo jarduerak alde batera utzi gabe,

bertzelako batzuk antolatzeko beharra egon daitekeela gehitu zuen.

Bukatzeko, aurten omendutako bazkideei opariak eman zizkieten. 100 urte bete dituzten hiru bazkide omendu dituzte, diamantezko ezteiak bete dituzten bikote bat, urrezko ezteiak bete dituzten 19 bikote eta 85 urte betetako 20 bazkide. Ondotik bazkaria izan zuten eta Joxe Angelek girotu zuen bazkalondoa.

Erriberrira irteera

Abenduaren 15ean Erriberriko Piedemonte upategira egingen dute irteera. Lehendabiziko bitaldetan banatuta upategira bisita egingen dute. Talde batek bisita egiten duen bitartean, bertzeak denboralibrea izanen du herria ezagutzeko. 14:00etan bazkaria izanen dute Castejonan. Egun osoko prezioa 49 eurokoa da eta izena ematea azaroaren 6an, 7an eta 8an egin behar da delegatuen bidez.

Oroitarazi dute, elkarteko gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela eta herrietako delegatuen bidez erosi daitezkeela.

Patxi Andueza Doneztebeko delegatua hil da

Urriaren 19an hil zen Patxi Andueza elkarteko Doneztebeko delegatua. Elkar-teak doluminak eman nahi dizkio familiari momentu latz hauetan, eta Anduezari eskerrak elkartearen alde egindako lanegatik.



UTZITAKOA

Gipuzkoako Adarra mendian izan dira elkarteko mendizaleak urriko irteeran

TTIPI-TTAPA

Hilabeteko hirugarren astearteroko ohiturari jarraituz, Arkupeak elkarteko mendizaleak urriaren 17an egin zuten irteera. Urrietako Besabi auzoan elkartu ziren eta bertatik Adarra mendira egin zuten irteera Joxe Ramonek eta Pilik antolatuta. 40 lagun abiatu ziren mendira eta 23 gradu eta haitze indartsua izan zituzten. Bidean gosaldia eta argazkiak atera ondotik ailegatu ziren 811 metro dituen Adarra mendira. Bertatik sekulako bistak ikusteko aukera izan zuten.



Mendizaleak Besabin. UTZITAKOA

Lau orduz ibili eta 10 kilometroko ibilbidea osatu ondotik, Urrietako Oianumen ederki bazkaldu zuten. Hurrengo irteera Hondarribian egingen dute.



UTZITAKOA

78 bazkide Benidormeko bidaiari

Urriaren 1etik 11ra, elkarteko 78 bazkide Benidormeko Hotel Poseidon Resortera joan ziren egun batzuk pasatzera eta bertako eguraldi onaz gozatzera. Ederki ibili dira Benidormen, ez dute inolako arazorik izan eta dagoeneko heldu den urteko oporretan pentsatzen hasiak dira.

BATU DITZAGUN GURE AHOTSAK

TEKNOLOGIARI
EUSKARAZ
IRAKASTEKO



gaitu.eus

Erronka berri bat dugu euskaldunok.
Teknologiari eta adimen artifizialari euskara irakatsi behar diegu.
Eta horretarako, milaka ahots behar ditugu.
Mundu digitalean ere euskaraz bizi ahal gaitezen.

Sartu webgunean eta eman zure ahotsa.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Departamento de Empleo y Bienestar Social
Oficina pública de la lengua vasca

HIRUKO
ITUNA
3kn

euskitzateen
topagunea





Kulunka haur arropa denda udaran itxi zuten. KAXKABELTZA ELKARTEA

Komertzioen egoera agerian utzi du Kaxkabeltzak

2021az geroztik lau komertzioak itxi dituzte atepak, horietatik hiruk aurtan

TTIPI-TTAPA

Ni ere Kaxkabeltza izan nintzen mezu argia eta zuzena irakur liteke Leitzako lau erakusleihotan. Bertan, hitzak baino ez: 2021ean batek eta azken urtean besteak atepak itxi behar izan dituztelako. Kaxkabeltza Elkartearen azken kanpainak herriko komertzioen egoera agerian utzi du: «kontsumoa jaitsi da eta egoera jasanezina bihurtu da batzuentzat. Erretiroa hartzeko garaia iritsi eta erreleborik ez dute besteak. Horren ondorioz, elkarteko hiru komertzioak itxi behar izan dituzte azken urtean.

2021az geroztik lau denda gutxiago ditugu herrian».

Gainbehera handia

Kulunka haur arropa denda, Olaia Bazar eta Gaztetxo goxoki denda izan dira 2023an itxi dituzten komertzioak. 2021ean Etxetresnak izan zen negozioa bertan behera utzi zuena. Herriko komertzioa bizirik mantentzea «herriarren esku» dagoela ere azpimarratu dute eta galdera egin: «badakizu zer daukazu herrian?». Herriarrei bota diete hordagoa: «zu ere izan zaitez Kaxkabeltzaren parte».

Haur eta helduentzako zinema eskaintza berezia azaroaren 4an eta 5ean

TTIPI-TTAPA

Azaroaren aurreneko asteburuan zinemaz gozatzeko aukera izanen dute haur zein helduek. Azaroaren 4an eta 5ean, 17:00etan, publiko guztiari zuzendutako *Superheroiaren familia* animaziozko filma eskainiko dute euskaraz.

Larunbatean eta igandean, 19:30etik aurrera, helduen txanda izanen da eta 2023an estreinatutako *A hunting in Venice* film estatubatuarra ikusteko aukera izanen dute. Larunbatean jatorrizko bertsiotan emanen dute azpitu-luekin eta igandean gaztelaraz.



Gosari-solasaldia antolatuta dute egunari hasiera emateko. SORTU

Independentzia Eguna antolatu du Sortuk azaroaren 11rako

JM BARRIOLA

Independentziaren Indarra zikloa egiten ari dira azken asteetan herrian eta azaroaren 11rako antolatutako Independentzia Egunarekin borobilduko dute. Hasteko, gosari-solasaldia antolatu dute 11:00etan Herri Aretoan. Arkaitz Rodriguez Torres, Sortuko Idazka-

ri Orokorra, eta Lur Arbizu Etxetxipia, Sortuko Nafarroako arduradun politikoa, prozesu independentistaren egoeraz eta erronkei buruz ariko dira. 14:30ean banabar jatea egingen dute Atekabeltz Herrigunean eta bazkalostean musika izanen dute Maddi eta Elenerekin.

Zakurren jabeei arduraz jokatzeko eskaera egin die udalak

TTIPI TTAPA

Zakurrek hozkatutako hainbat abere topatu dituzte azken aldi mendian. Kalte larriak eragin dizkiete batzuei eta tartean badira hildako ardiak ere. Ez da abeltzainek halakoak ikusi eta salatzen dituzten aurreneko aldian, baina kalteak

nabarmenak izan dira oraingoan. Egoerarekin kezkatuta, udalak zakurren jabeei adi ibiltzeko eskera egin die: «kalte gehiagorik eta handiagorik gerta ez dadin, zakurren jabeek arduraz joka dezatela, eta nork bere zakurraren ardura osoa har dezala».

Intxaurra antzezlan ikusgai azaroaren 12an

Mairu antzerki tailerrak *Intxaurra* antzezlan taularatuko du azaroaren 12an. Herri Aretoan 19:00etan, hasiko da saioa. Sarrerak alde aurretik online edo egunean bertan salduko dituzte.



Gazteentzako Balikebale lehiaketa abenduaren 15ean

2005 eta 2008 urte artean jaiotakoek parte hartu dezakete eta izen-emateko epea azaroaren 16an bukatuko da

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 15ean eginen dute Leitzari buruzko ezagutzak neurtzen dituen Balikebale lehiaketa. Gazteei egin diete deia aurten eta 2005 eta 2008an jaiotakoek izanen dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Hiru pertsonako taldeak osatu beharko dituzte eta lau talde ariko dira. Talde gehiago apuntatuko balira, zozketa eginen luketela argitu dute antolatzaileek.

Izen-ematea zabalik

Parte hartu nahi dutenek azaroaren 16a baino lehenago eman beharko dute izena Amazabal Institutuan jarritako zerrendetan edo Euskara Zerbitzuan, 948 51 08 14 telefonora deituta edo laga@iparmank.eus helbidera idatzita. Lehiakideek sari bikainak



Laugarren edizioko irabazleak.

lortzeko aukera izanen dute: 450 euroko txekoa, Kultur ekin-tzetarako sarrerak, herriko produktuak...

Aurtengo lehiaketa gaztetxoek zuzendutakoa denez, sarrera mordoska institutuan salduko dela aurreikusten dute antolatzaileek. Bakarren batzuk jarriko dituzte helduentzat salgai, baina aurreko aldietan baino gutxiago izanen dira. Beraz, erne ibili beharko du saiora joan nahi duenak.



LEITZAKO LIBURUTEGIA

Jon Maiarekin solasaldi goxoa izan dute

Irakurle taldekoek Jon Maiaren bisita izan zuten urriaren 18an. *Riomundo* eleberritari buruz luze eta zabal aritu ziren solasean. Irakurle taldearen hurrengo bilera azaroaren 15ean izanen da, 18:30ean eta Jon Bilbaoren *Kometaren eraginpean* eleberritari buruz ariko dira solasean.



IRAITZ URIARTE

Mendi Erronkako bigarren etapa oinez

Urriaren 20an mendizale ugari osatu zuten Betelu eta Albi arteko bidea. Goizeko 8etan Beteluko plazatik abiatu ziren eta Gaintzatik pasa ondoren Hirimugarrietako kilometro bertikala egin zuten. Unagako putzua atzean utzita, bost ordu eta erdian Albira iritsi ziren parte-hartzaile guztiak.

Ibil bedi eta Haira taldeen kontzertuak azaroaren 11n

Ibil bedi eta Haira musika taldeek kontzertua eskainiko dute azaroaren 11n, larunbatean, Atekabeltz Herrigunean. 23:00etan hasiko dira kontzertuak. Sarrerak alde aurretik jarriko dituzte salgai Torrean, zortzi eurotan. Kontzertua 23:00etan hasiko da eta egunean bertan ere sarrerak erosteko aukera izanen dute hamar euroren truke. Pop-rock estiloen barruan mugitzen dira Ibil bedi taldekoak. Peio Erramuzpe saratarak, berriz, musika elektronikoa egiten du Haira proposamen berriarekin.

Kinto pesta abenduaren 16an eginen dute

Heldu den abenduaren 16rako egin dute hitzordua herriko kinto gehienek. Hainbeste jenderentzako bazkaltzeko tokia topatzea zaila zenez, hainbat kintek cateringa kontratatzea erabaki zuten pasa den urtean. Aurten ere halaxe egitekoa dute 1979, 1981, 1982, 1983, 1984, 1985, 1986, 1989, 1998, 1996, 2000 eta 2001urteetan jaiotakoek. Amazabal pilotalekuan elkarrekin eginen dute bazkaria, bazkailondoan musika izanen dute eta ziur goizaldeko ordu tikiak arte luzatuko dutela pesta.

Atalen eta Etorkinen Egunak prest dituzte azaroaren 11rako

Etorkinen Eguneko bazkarira joan nahi dutenek azaroaren 6a baino lehen eman beharko dute izena

TTIPI-TTAPA

Festarako aitzakia nahi duenak, bi topatuko ditu azaroaren 11n, larunbatean. Atalen Eguna antolatu du Umore Ona Elkarteak eta herritik kanpo sortutakoek Etorkinen Eguna. Eguna batean hasi eta bestean bukatuko duenik ere izanen da; denak balio du emaitza egunpasa borobila baldin bada.

Elkartearen Eguna

Egun handia izanen da larunbatekoa Umore Ona Elkarte-ko kideentzat. Urte osoan elkarteak egiten duen lana erakusteko sortu zuten ospakizun hau duela urte batzuk eta, aurten ere, Umore Ona Elkarte-ko atal guztiek izanen dute beraien tartea. Mendian bueltaxka emanez hasiko dute eguna hainbat herritarrek; Arainburu Mendi Taldeak ir-

teera antolatu du. Pilota partidak eta dantzarien saioak ere izanen dira eta auroroek karririk alaituko dituzte egunean zehar.

Etorkinen Eguna

«Herriari bizia emanez, kaleak alaitasunez eta giro onez betetzeko asmoarekin» antolatu dute Etorkinen Eguna. Halaxe irakur liteke festa iragartzeko kartelean. Urtero bezalaxe, bazkaria eginen dute kanpotik Goizuetara bizitzera etorritakoek. Motzanea jatetxean izanen dute bazkaria azaroaren 11n. Bazkaltzera joan nahi dutenek azaroaren 6ra arte izanen dute izena-emateko aukera Motzanean bertan eta Estankotan. Bazkalaurrean poteoa ere eginen dute eta bazkalondoan ere herrian barna ibiliko dira festan.



GOIZUETAKO UDALA

Florentina Loiartek 101 urte bete ditu

Urriaren 15ean 101 urte bete zituen Goizuetako emakumerik zaharrenak: Florentina Loiarte Arotzenak. *Nolako zura, halako ezpala* dio esaera zaharrak, eta amak egindako 100 urteak pasata, Mitxeleko baserriko familiako errekorra gainditu du Florentinak. Zorionak eta urte askoan!

Urriko azken astean hasi dira udalak eskaintzen dituen ikastaroak

TTIPI TTAPA

Udalak eskaini dituen sei ikastaroetatik lau martxan dira dagoeneko. Pilateseko bi talde sortu dira eta jumpfit, multikirolak eta eskulanetako bana. Entrenamendu funtzionaleko taldea izan da osatu ez den bakarra eta adinekoentzako jarduera fisikoa egiteko ikastaroa oraindik itxi gabe zegoen lerro hauek idazterakoan. Urriko azken astean hasi dituzte klaseak.

Kirola egiteko aukera

Astearte eta ostegunetan ematen dituzte kirol-ikastaro guztiak. Multikirolak ikastaroa izaten dute hurrek 16:00etatik 17:00etara. Pilateseko lehengo taldearen txanda da gero, 17:00etatik 18:00etara. Jumpfita 18:00etatik 19:00etara egiten dute eta 19:00etatik 20:00etara pilateseko bigarren taldearen ordua izaten da. Eskulanak, berriz, ostiraletan egiten dituzte 16:00etatik 19:00etara.

Bertso-pintxo-potea antolatu du emakume taldeak

Azaroaren 10ean bertsoak, pintxoak eta poteak nahasiko dituzte Tifanitxon. Goizuetako Emakume Taldeak pintxo-potea antolatu du bertso-lariekin. 19:00etan hasita Maddi Aiestaran, Aissa Intxausti eta Eli Pagola ariko dira kantuan. Emakumeen Kurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunarekin lotuta antolatu dute ekitaldia. Honekin batera, zapi moreak ere jarri dituzte salgai, bi euro eta erdian, Amaia kafetegian eta Goizuetako estankotan eta arropa dendan.

Abesbatzen emanaldia Elizan azaroaren 11n

Musikazaleek gozatu ederra hartuko dute heldu den larunbatean, azaroaren 11n. Gas-teizko Vicente Garcia abesbatzak eta Goizuetako Umore-Ona abesbatzak kontzertua eskainiko dute Elizan 19:15etik aurrera. Emanaldia dohanik izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sagardui txapeldun izan da Bilbon

Hiru Hiriburuak txapelketako bigarren edizioako finalak jokatu zituzten urriaren 15ean Bilboko Bizkaia pilotalekuan. Pilota goxoarekin, gazte mailan, Uxue Gomez eta Alize Sagardui goizuetarra txapeldun suertatu ziren, Ezki Arizti eta Maddi Etxenagusari 18-7 irabazita.

Gau Beltza bertako ospakizun bihurtzeko saiakera

Kalabazak apaindu, mozorroak prestatu eta beldurrak erretzeko proposamena egin du guraso elkarteak

ENERITZ IRAOLA

Herriko adinekoek ez dute gogoan Areson, Gau Beltzaren lotutako inolako ospakizun edo ohitura berezirik izaten zenik. Duela bizpahiru urte hasi ziren, aurrenekoz, gaztetxoak urriaren 31n mozorrotu eta herriko etxeetan eskean ibiltzen. Urteak pasa ahala, festaren helburua, jatorria... landu gabe, pixkanaka herrian amerikar kutsuko festa zabaltzen ari zela ikusi du guraso elkarteak. Horregatik, aurten, gaia esku artean hartu eta ospakizuna bertakotzeko saiakera egin nahi izan dute. Horretarako Euskal Herriko hainbat herritan Gau Beltza ospatzeko egiten dituzten ekintzak hartu dituzte oinarrian.

Hala, kalabazak apaintzeko tailer bat antolatzea erabaki



Kalabazak apainduta. ARTXIBOA

dute. Kalabazak hustu eta aurpegi beldurgarriak sortu ondotik, kandelak barruan sartu eta herrian zehar jartzea pentsatu dute, gaueko iluntasunean herritarrak beldurtzeko asmoz. Etxeko arropa eta maindire zaharrak hartuta mozorrotu eta egunari festa itxura ere eman nahi izan diote. Bukatzeko, norberaren beldurrak uxatzeko modua ere bilatu dute, paper batean idatzi eta danbolinean errez.



Nazabal Eskolako ikasleak Leire Baraibarrekin. NAZABAL ESKOLA

Leire Baraibar herritarraren bisita izan dute eskolan urriaren 17an

ENERITZ IRAOLA

Nazabal Eskolako ikasleek bisita berezia izan zuten urriaren 17an. Leire Baraibar Garmendia herritarra gonbidatu zuten Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Kirolzale bezala aurkezten du bere burua Leirek, baina kirolari peto-petoa da. Urtetan arraunean ibilia, azken urteetan lasterketa ugaritan parte hartu du eta koxka bat igota, triatloietan hasia da azkenaldian.

Udaletxeko karrapean hizketaldi goxo batekin hasi zuten goiza. Ikasleek egindako gal-

derak erantzun zituen Leirek eta hainbat bizipen eta bitxikeria kontatu. Ez ziren luzaroan egon eserita. Ikasleek triatloia egin zuten herrian zehar osatutako zirkuituan. Lehendabizi aldapan gora eta behera lasterka ibili ziren eta anoa gunea ere jarri zuten ibilbidearen erdian indarrak hartzeko. Eskolako igerileku inprobisatua igerian aritu ziren gero eta bukatzeko, bizikleta berezien gurpilei eraginez kilometroak egin zituzten. Emakume kirolarien errealitatea hurbiletik ezagutuz, goiz ederra pasa zuten.



JOXEPI MARZOL

Kintoz kinto topatu dute pestarako aitzakia

1955 eta 1958 urteen artean jaiotakoen txanda izan da orain. Urriaren 21ean hemezortzi lagun elkartu ziren Pake Toki Elkartearen egin zuten bazkarian. Argazkia ikusita bistakoa da giro ederrean ibili zirela.

'Liburu sendalaria' ikuskizuna azaroaren 17an

Haurrei zuzendutako *Liburu sendalaria* antzezlan eskainiko dute azaroaren 17an, 17:30ean, udaletxeko batzar aretoan. Mundu osoan zehar liburuak konpontzen dituen neska baten istorioa taularatu du Ainhoa Ruiz aktoreak. Integrazioa, inklusioa eta errespetua lantzen dituzten kontakizunak aditu ahal izango dituzte bertaraten direnek. Euskarabideak Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatzen duen kultur programazioaren baitan heldu da Aresoko emanaldia.



Azienda kopuruak gora egin du azken urteetan, aurren 12 postu izanen dira.

Leitza eta Aresoko produktuen azoka azaroaren 12an

'Izan burujabe' zikloaren baitan, tailerrak, erakusketa, hitzaldiak... antolatu dituzte azaroaren 7tik 12ra

TTIPI-TTAPA

Azaroko bigarren asterako, proposamen berezia ondu du LeitzEko Kontsumo Taldeak, udalen eta Areso eta Leitzako baserriarren laguntzarekin. *Izan burujabe* zikloa antolatu dute eta elikadura eta energia kontsumoa ardatz hartuta, tailerrak, solasaldiak... eskainiko dituzte azaroaren 7tik 12ra. Zikloari bukaera emateko, bertako produktuen azoka egingen dute azaroko bigarren igandean.

Azaroaren 7an, asteartean, *Indarkeria kontsumitzen al dugu* galdera eginez hasiko

dute zikloa. Moda-jantzizigintza, estetika, eta publizitatearen mundua aztertuko dituzte Setem-en eskutik. Horretarako, goizean zehar, rol jokoak eta bideoforuma egingen dituzte Amazabal Institutuko ikasleekin, eta 19:00etan, zineforuma Herri Aretoan. Gaiarekin lotuta, *Konpon dezagun*

ELIKAGAIEN 19 POSTU ETA AZIENDEN 12 JARRIKO DITUZTE

moda erakusketa jarriko dute ikusgai Herri Aretoan azaroaren 4tik 9ra.

Azaroaren 8an, asteazkenean, bertako hazien inguruan osatu dute proposamena. Haurrentzat haziak nola ateratzen diren ikasteko tailerra egingen dute liburutegian 17:00etan. Gazte eta helduentzat, *Bertako hazien barietateak eta ugalketa agroekologiaren ikuspuntutik* hitzaldi-tailerra eskainiko du Marc Badal adituak Atekabeltz Herrigunean 19:00etatik aurrera.

Azaroaren 9an, ostegunean, *Lurralde eta bioaniztasuna auzolanean* hitzaldia eskainiko dute Mikel Saralegik eta Antonio Aretxabalak 19:00etan Herri Aretoan.

Azaroaren 10ean, ostiralean, herriko ostalariek bertako produktuekin egindako pin-txo-potea eskainiko dute.

Azokaren IX. edizioa

Azaroaren 12an, Leitza eta Aresoko produktuen azoka egingen dute. Elikagaien postuak hemeretzi: barazkiak, sagarrak, sagardoa, ezti, gazta, fruitu lehorrak, txerriak, ogia, gozoak, taloak... eta bertako hazien postu bat ere jarriko dute. Azienda postuak, berriz, hamabi: ahuntzak, ardiak, sasi-ardiak, behiak eta txekorak, burgete arrazako behorrak, pottokak, poniak, astoak, hegaztiak eta untxiak. Eguraldi ona bada plazan izanen da eta txarrarekin, frontoian eta inguruan.

San Martin Eguna ospatuko dute Aranon

Azaroaren 11n, larunbatarekin, ospatuko dute San Martin Eguna Aranon. Talo eta gaztaina usainik ez da falta izaten sanmartinetan herrian eta aurren ere talo eta gaztaina jatea antolatu dituzte elkarte-ko atarian. Horren aurretik, 18:30ean, *Ta argiya in zan* dokumentala ikusteko aukera izanen da Maisuenean. Zentral hidroelektriko txikien inguruko ikus-entzunezkoa da eta bizi dugun energia krisiari, biodibertsitatearen galerari eta larrialdi klimatikoari buruz hitz egiten du.

Leitza eta Goizueta arteko bi bihurgune hobetu dituzte

Nafarroako Gobernuak Herri Lan eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak Leitza eta Goizueta arteko (NA-4150) errepedeko bi bihurgune hobetzeko lanak bukatu ditu. 4,7 eta 4,9 kilometro-puntuetan egin dituzte hobekuntzak. 360.518 euroko inbertsioa egin dute eta horrela, gidariak hobeki ikusi ahalko dituzte kontrako norantzan datozen ibilgailuak, inguruko bide-segurtasuna handitu eta arriskua murriztuko da. Urtetan, eskualdeko udalek egindako eskaera izan da.

Azaroaren 10ean ate-irekiak antolatu dituzte Mimukai garapen zentroan

TTIPI-TTAPA

Landa industriagunean dagoen Mimukai garapen zentroak azaroaren 10ean irekiko ditu ofizialki ateak. Goizean hasi eta iluntzera arte, hainbat hitzaldi eta formazio-saio antolatu dituzte; lehendabiziko momentutik eragiten hasteko.

Goizeko 09:00etan ekintzailetzari buruzko saioa antolatu dute gazteentzat. Amazabal Institutuko hainbat ikasle gonbidatu dituzte eta Maite Perurena herritarrak 301K enpresa sortzerakoan emandako pausoez, ekintzaileak dituen gazi-gozeoz... hitz egingen die.

12:00etan Mimukai garapen zentroaren irekiera ofiziala egingen dute. Dabid Anaut Leitzako alkatea eta Ibon Mimentza Cedernako kudeatzailea izanen dira bertan. Eguerdian, industriari zuzendutako tartean, Iker Manterola Sakana-ko garapen agenteak *Sakana-ko Aktibazio Planak industrian izan dituen emaitzen* berri emanen du eta segidan, networking saio bat egiteko dute.

15:00etatik 16:30era, merkataria eta ostalariei zuzendutako *Balioari prezioa jartzen eta prezioa balorean jartzen* formazio saioa eskainiko du Marian Zestau Cederna Garalurreko garapen agenteak. Bukatzeko, 18:00etan ate-irekiak egingen dituzte. Bertako produktuen dastaketa izanen da eta musika ere ez da faltako; herritar guztiei egin diete bertaratzeko deia.

Deabrua
adintsu,
horregatik
jakintsu

...EDO EZ?



**HARPIDETU ZURE HERRIKO
ALDIZKARIAN eta jaso
liburu-sorta bat doan**

* Harpidetzen diren lehen 10 lagunek hiru liburu
doan dituen sorta bat jasoko dute.

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua

nafar
PRES

Asociación de la
Prensa Local de Navarra

Nafarroako Tokiko
Prentsaren Elkartea

Baztango herriguneak biziberritzeko lanean

Duela bi urte aurkeztu zuen Baztango Udalak haraneko herriguneak hobetzeko proiektua. Gaur egungo egoera aztertu eta herritarren parte hartze prozesuaren ondotik, planaren behin-behineko idazketa aurkeztu dute jendartean

R. OSKARIZ

Baztango herriguneak biziberritzea, bertako eraikinak zaharberitzea, etxebizitzarako sarbidea bermatzea eta espazio eta ondare publikoak babestea. Hauek dira Baztango Udalak abiatutako Baztan Hobetzen plan bereziaren helburuak.

Gotzon Olarte Gorosabel udaleko arkitektoak azaldu duenez, «eraikinak zaharberitzeko jendeak aurkitzen zituen arazoei erantzuna emateko beharretik» abiatu zen plana; «Baztanek etxe haundiak ditu, zaharberitzeko garestiak direnak».

Hori konpontzeko, «legalki aukera hoberena Baztan Lehentasunez Zaharberitzeko Eremu izendatzea da. Horrela, Nafarroako Gobernutik hartutako dirulaguntzak bikoiztuko lirake. Baina eremu hori izendatzeko, herriek araudi zehatz bat bete behar dute, tartean, 3.000 biztanle baino gutiago izatea. Hemengo errealitatea bertzelakoa da; udalerriak 3.000 pertsona baino gehiago ditu, baina herriguneak sakabanatuak daude eta Elizondok bakarrik gainditzen du kopuru hori. Izatez, herri tikiak dira etxebizitzarako arazo haundienak dituztenak, baina ez ziguten eremua izendatzeko eskaera onartu. Horregatik prestatu behar izan dugu dokumentu hau, denondako eskubide bera lortzeko».

2021ean abiatu zuten proiektua eta lau fasetan banatu dute. Lehenbiziko fasean, plana aurkeztu, egungo hirigintzaren egoeraren analisisa egin eta

herritarren parte hartze prozesua abiatu zuten. Bigarren fasean diagnostikoa idatzi eta aurreproiektua planteatu zuten, herritarren parte hartze prozesuarekin segituz. Gaur egun, hirugarren fasean dago proiektua; egindako lanaren emaitzak aurkeztu dituzte jendartean, ondorioak eta planaren proposamenak bilduz txosten eta planoetan. Herritarrek ekarpenak bildu ondotik, laugarren fasea hasiko da: behin betiko dokumentuaren idazketa. Plana osatzeko, Paisaje Transversal hirigintza diseinuko aholkularitza taldearekin egin du lan udalak.

Egungo egoera

Gaur egungo herriguneen egoera aztertzeko, 15 herriez gain, hainbat auzo barne har-

tu ditu planak: Arizkungo Aintzialde, Bozate eta Lamiarrita; Gartzaingo Aitzano, Ariztegi eta Etxerri; Azpilkuetako Apaioa, Urrasun eta Zuaztoi; Elizondoko Antzanborda eta Etxaide; Erratzuko Gorostapolo eta Iñarbil; Lekarozko Aroztegia eta Oharriz; Arraiozko Mardea; Oronoz-Mugairiko Zozaia; eta Zigako Zigaurre.

2020ko datuen arabera, baztandarren % 75 herriguneen barnean bizi dira. Haranak 4.494 etxebizitza ditu guztira; horietatik % 68 etxebizitza nagusiak dira, % 25 hutsik daude eta % 7 bigarren etxebizitzak edo denbora baterako hutsik daude.

Etxebizitza hauen bana berteko antzinasuna 120 urtekoa da, eta % 10 egoera eskasean, txarrean edo honda-

tuak daude. 2010etik 976 etxebizitza zaharberritu dira, eta txostenetan azpimarratzen dira berritze hauek gauzatze-ko zailtasunak, legedia ez baita egokitzen etxe horien ezau-garrietara.

2001etik etxebizitza kopurua % 21 igo da Baztanen, biztanleria, aldiz, % 3 bertzetik ez. Honen arrazoa etxe zaharren tipologia da, behar berrietara egokitzen ez dena; hiru, bi eta lagun bakarrarendako etxebizitzak gehienak haundiak dira, 148,49 m²rekin bana bertze.

Etxebizitzak ez ezik, herriguneetako tipologia, ondarea, azpiegiturak, espazio publikoak eta naturalak, mugikortasuna eta zerbitzuak ere aztertu dituzte. Honela, herrigune bakoitzean landu beharreko hainbat helburu zehaztu dituzte.

Prozesu parte hartzailea

Plana aitzinera eramateko, ezinbertzekoa ikusi dute herritarren parte hartzea. Horrela, bilerak antolatu dituzte herrietako alkate juratuekin eta eragileekin, eta lurraldea kuartelka banatuz, mapatze kolektiboak egin dituzte herritarrekin. «Hasieran jendearen ekarpenak bildu genituen proiektuaren proposamena idazteko, baina ez zen hain entzutetsua izan. Orain horren emaitza aurkeztu dugu, eta jendeak interes gehiago erakutsi du, bakoitzari nola eraginen dion jakin nahi dutelako». Jendeak herrietako alkateengana jo du informazio eske, «eta horregatik bilerak egin ditugu herri bakoitzeko ordezkariekin, haiek herritarrei informatzeko».


Uda hasmentan alegazioetarako epea izan zen, «baina epe hori berriz ireki eta luzatu egin dugu, herritarrek haien ekarpenak egin ahal izateko. Herritarren adierazpen aunitz ezjakintasunetik datoz; ez dute gaur egun legean dagoen plana ezagutzen, normala den



Mapatze kolektiboak egin dituzte herritarren partaidetzarekin. BAZTAN HOBETZEN

**ERAIKINAK
ZAHARBERRITZEKO
ZAILTASUNETIK
ABIATU DA PLANA**

**15 HERRIEZ GAIN,
AUZOAK ERE
BARNE HARTU DITU
PROIEKTUAK**



Baztango herriguneetako etxebizitza kopuruak erakusten dituen mapa. BAZTAN HOBETZEN

bezala, duela 20 urte sortu baitzen eta jendearen parte hartze murriztarekin egin zelako. Gure asmoa ekarpen hauek guztiak banan-banan aztertzea da, bertze pausorik eman baino lehen».

Honez gain, prozesuan genero perspektiba txertatu dute. Helburua ingurune inklusiboagoak eta anitzak sortzea da, pertsona guztiei berdintasunean garatzeko aukera emanen diena eta portaera diskriminatzaileak saihesten dituen. Horregatik, prozesuko parte hartzaileen aniztasunaren garrantzia ere azpimarratu dute.

Ondorioak

Egungo egoeraren azterketa eginda eta prozesu parte hartzaileko ondorioak lortuta, hiru lan ildo nagusi nabarmendu dituzte herriguneak biziberritzeko: etxebizitzaren birgaitzea, egunerokotasuneko bizi baldintzak hobetzea eta ingurumenaren zainketa.

Etxebizitzaren birgaitzea: Gaur egun Baztanek dituen etxebizitzak jendartearen beharretara egokitzea du helburu. Horrela, eraikinak zaharberritzeko erraztasunak eman nahi dituzte, etxebizitza haundiak zatiitu eta berriak sortu,

eraginkortasun energetikoa bulkatu, irisgarritasuna hobetu (igogailuak paratuz, adibidez) eta babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza sustatu.

Egunerokotasuneko bizi baldintzak hobetzea: Herrigune bakoitzeko bizi baldintzak hobetzea ongizate kolektiboaren eta hurbileko jardunaren mesedetan. Bertzeak bertze, oinezkoen bideak eta irisgarritasuna hobetzea, aparkalekuen berrantolatzea, espazio publikoak sortzea eta hobetzea, erabilerarik gabeko azpiegiturei interes publikoko erabilera ematea eta jarduera komertzialak babestea.

Ingurumenaren zainketa: Paisaia naturala babestea eta herriguneen eta naturaren arteko harremana hobetzea du helburu. Horretarako, herriguneen diseinu jasangarriagoa sustatuko dute, berdeguneak babestu, azpiegituren ingurumen inpaktua zaindu eta eraikuntzarako materialak erregulatu.

**INGURUMENAREN
BABESARI ERE
GARRANTZIA
EMAN DIOTE**

Proposamenak

Hiru lan ildo hauek jorrazteko, planak hainbat proposamen egin ditu.

Alde batetik, espazio publikoetan eta bide sareetan aldaketak proposatu dituzte. Bideak berritu, oinezkoendako eta bizikletendako egokitu eta aparkalekuak moldatu nahi dituzte, baita herriguneen arteko loturak hobetu ere. Proposatutako aldaketa zehatz guztiak ikusgai daude planaren memoria justifikagarrian.

Eraikingintzan ere proposamenak egin dituzte, dagoneko existitzen diren eraikinen aldeko apustua eginez; birgaitzeak, irisgarritasun baldintzen hobetzeak, eraginkortasun energetikoa eta etxebizitzaren bizigarritasuna sustatuz. Herriguneen hornikuntzari dagokionez, erabilerarik gabeko eraikinen erosketa eta moldaketa proposatu dute, herritarren zerbitzura dauden erabilera anitzeko eraikin bihurtzeko.

**ERREKURTSOAK
AURKEZTEKO EPEA
AZAROAREN 30ERA
ARTE LUZATU DUTE**

Honez gain, ondare arkitektonikoa eta paisaia zaintzeko eta mantentzeko proposamenak egin dituzte. Horretarako, legez babestuko dituzte hainbat eraikuntza eta espazio publiko, Baztango arkitektura tradizionala errespetatuz eta behar berrietara egokituz.

Azkenik, etxebizitzak zaharberritzeko dirulaguntzak erraztu nahi dituzte, harana Lehenetasunez Zaharberritzeko Ere-mu izendatuz. Gainera, lehenetasuna emanen diote eraikin eta espazioen erosketari etxebizitza publikoak eta bertzelako zerbitzuak sortzeko.

Bertzalde, «plana egiten hasita, hirigintzako legedian aurkitzen genituen trabak zuzentzeko aprobeztatu dugu. Araudiari malgutasuna eman nahi diogu herritarrei pausoak errazteko. Gainera, eguzki panelak eta bertzelako aurreakuntzak planteatu ditugu, baita eraginkortasun energetikoa lortzeko laguntzak ere».

Olarteren erranetan, «kontuan eduki behar da hau ez dela plan berri bat, plan berezi bat baizik. Gaur egun dugun planari dagokionez, nahiz eta 20 urte izan, bertan aurreikusitako gauza aunitz egin gabe daude oraindik. Horiek ez ditugu dokumentu honen barnean sartu. Honen helburua eraikinak zaharberritzeko prozesuan laguntzea da, udalaren aldetik dagoen bidea arintzen bederen. Planeke proposamenek ez dute epe zehatzik, poliki egin beharreko prozesua baita».

Planaren behin-behineko idazketa eskuragarri dago baztanhobetzen.baztan.eus webgunean eta udaletxean. Bertan ikusgai daude azterketaren helburuak, emaitzak, ondorioak, proposamenak eta planoak. Herritarren iritzia kontuan hartzeko, azaroaren 30era arte luzatu dute helegiteak aurkezteko epea. Ondotik, behin betiko plana idatziko dute, proiektuarekin aitzinera egiteko Baztan hobetzeko bidean.

Zahar etxea publifikatzearen aldeko borrokan

Enpresa kudeatzaileak publifikatze prozesua oztopatu nahi duela salatu du Baztango Udalak

TTIPI-TTAPA

Elizondoko zahar etxea kudeatzen duen IDEA enpresaren kontratua 2024ko ekainean etetea zuen aurreikusia patronatuak, baina enpresaren eta patronatuaren interesek bat egiten ez dutenez, etetea aitzinatzea erabaki dute urrian. Zehazki, kontratua urriaren 31n etetea erabaki zuen Baztango Udalak, eta azaroaren 1etik aitzinera Zaintza Lanak Baztan SL enpresa publikoa arduratuko litzateke kudeaketaz.

Baina IDEAK kontratu etetea bertan behera uzteko eskatu du auzien epaitegian. Baztango Udalak horren aurkako helegitea aurkeztuko du, eta orain epaitegiak erabaki beharko du kautelazko neurria hartu ala ez. Udalak azaldu duenez, «epaitegiak IDEAREN kautelazko neurria onartzea erabakitzen badu, egoitza kudeatzen segituko dute, ziurrenik, kontratua akitu arte, 2024ko ekainera arte. Epaitegiak kautelazko neurriak onartzen ez baditu, baina erabakia urriaren 31ren ondotik hartzen badu, IDEAK geroago utzi beharko du egoitza, ziurrenik azaroan».

Etetearen aitzinatzea

Baztango Udalak azaldu duenez, «IDEAK egoiliar gehiago hartzeko interesa du etekinak

lortzeko; aitzitik, Patronatuak egoiliar gehiago ez hartzea behar du, 2024ko apirilean egoitza berritzeko lanak hasiko direlako, eta dozenaka egoiliar birkokatu beharko direlako».

Hori dela eta, etetea aitzinatzea erabaki zuen patronatuak, eta 61.601 euroko kalte ordaina adostu zuten, «gelditzen diren zortzi hilabeteetan 145 erabiltzaileekin irabaziko luketena, banaz bertzekoa txikiagoa den arren», baita inbertsioak eta stocka ordaintzea ere.

Hala ere, «ez da nahikoa IDEARENDAKO, 644.000 euro eskatzen baititu; azken hilabeteetarako aurreikusitako etekinengatik, egingako inbertsioengatik, stockagatik, Merkataritza Funtzagatik, Know Howagatik, ISO kalitateagatik eta gehigarriengatik».

Salatu dutenez «bertze behin ere IDEAK auzitegien bidea hartu du. Behin eta berriz erraten dute gehien inporta zaiena egoiliarrek eta langileak direla, eta solas egin behar dela, baina praktikan, auzite-

**«ZAINZA LANEN
PRIBATIZAZIOA
AKITU BEHAR DELA»
DIOTE LANGILEEK**



65 langilek parte hartu zuten batzarrean eta jendetza bildu zen elkarretaratzean. LAB

gietara jo dute publifikazioa geldiarazteko eta egoitzaren aurka joateko».

Langileen aldarria

LAB sindikatuak azaldu duenez, «badira urte batzuk Francisco Joaquin Iriarte zahar etxeko langileek egoitzaren publifikazioaren beharrahain ganean jarri zutela eta Baztango Udalar bere nahia adierazi ziotela».

Langileek «harriduraz hartu zuten enpresak bidalitako mezua eta hartutako jarrera». Berria jasota, asanblada egin zuten zahar etxean, eta ondorio hau atera zuten: «berriz ere enpresa interesak lehentzi dituzte egoiliar eta langile guztien gainetik».

Horregatik, «zaintza lanen pribatizazioa akitu behar dela» aldarrikatu dute, «langile publikoak garelakoz eta gure lanarekin etekinak atera nahi dituzten enpresak Elizondon ez ditugulakoz nahi. Zahar etxeko langileak lanpostuak bermatu eta lan baldintza duinak bermatuko duen publifikazioaren prozesu baten aldekoak gara».

Hori dela eta, elkarretaratzea egin zuten urriaren 20an Elizondon, «zaintzak negozioa izaten segitu ez dezan, publifikazioaren alde, langile publikoak garelakoz eta zaintza sistema publiko komunitarioaren alde borrokatu behar dugulakoz». Jendetza bildu zen herriko plazan.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN S.L.
KONSTRUKTIBOAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

Beatriz

ongizate zentroa
centro de bienestar

ZURE AMETSA EGIA BIHURTUKO DUGU MERKATUAN DAGOEN LASER BIDEZKO DEPILAZIO METODORIK ERAGINKORRENA

Laser depilazioan **30 urte baino gehiagoko esperientzia**, azterketak eginak eta ziurtagiri dermatologikoarekin, zientifikoki frogatua.

ZERK BEREIZTEN GAITU?

Merkatuan dagoen sistematik eta metodorik **AZKARRENA**, merkea, **SEGURUA** eta saio gutirekin eraginkorra, **ILERIK ZAILENENDAKO APROPOSA**. Patentatua. **KOLOREA DUTENEK URTE OSOAN DEPILATZEKO AUKERA**.


Gizonezkoendako eta emakumeendako sistematik eraginkorra. Azaleko arazoak, kisteak, foronkuluak...

Laser depilazioan gutienez **bi minutu**, gehienez **30 minutu**.

10 eurotik goiti.

Bonuak aukeran

Azterketa pertsonalizatua debalde



Jarduera kultural ugari izanen ditugu azaroan

Kontzertuak, ikuskizunak, solasaldiak, dantzaldiak, azokak eta bertze hainbat ekitaldi izanen dira Baztanen

TTIPI-TTAPA

Baztango Kultura Zerbitzuak hilabeteko kultura eskaintza bildu du bertze behin agenda kulturalean, eta hainbat jarduera izanen dira:

'Altxalili show'

Harro Baztan taldeak antolatua, kantua, antzerkia eta dantza biltzen dituen kabareta izanen da Arizkunenean, azaroaren 4an 19:30ean. Ipar Euskal Herrian bizi den LGT-BIQ+ kolektiboko jendearen errealitatea erakusten du *Altxalili show* helduendako antzerkiak.

Jeff Espinoza eta The Gypsy Runner Trio

Folk, country, rock eta blues nahasketa jotzen duen talde amerikarra Arizkunenean egonen da hilaren 5ean 19:00etan. Konposizio originalak eta amerikar sustraiko musika aurkeztuko dute.

Ursaria

Madrilgo herri musika agertoki batera igotzeko proiektua aurkeztuko dute azaroaren 12an 19:00etan Arizkunenean: seguidillak, jargoiak, txotisak, maioak, polkak eta mazurkak, errondak, jotak...

Bailableak Elizondon

Elizondoko Gaiteroek muxikoak, jotak eta larrain-dantzak

HAURRENDAKO BAKARRIZKETAK ETA IPUINAK IZANEN DIRA

dantzateko aukera emanen dute azaroaren 12an, igandea, 12:30ean Elizondoko plazan.

'Nire espazioa eman'

Euskarabideak antolatua, 4-12 urte bitarteko haurrei eta hauen arduraren duten helduei zuzendutako bakarrizketa izanen da azaroaren 15ean, 18:00etan Elizondoko Eskolan. Europako Kontseiluak adingabeen aurkako sexu-indarkeria prebenitzeko egindako gidan oinarritzen da ekitaldia, haurrek kontzientzia har dezaten modu dibertigarrian.

'Liburu sendalaria' ipuin kontaketa antzeztua

Haurrendako hitzordua izanen da hilaren 16an Amaiurko Otsondo gelan 17:30ean, Euskarabideak antolatua. Liburuen sendalariaren istorio kontatzen du ipuinak, bizikidetzarako eta hazkuntza pertsonalerako balioak transmitituz.

Baztan Kantuz

Kantatzea gustuko dutenek Azpilkuetan izanen dute hitzordua azaroan. Hilaren 19an, igandea, herriko plazan bilduko dira 12:00etan.

Menopausiaz bertsoan

Menopausia solasgai, bertsoak eta bakarrizketa izanen

AZAROAREN 25EAN MOBILIZAZIOA DEIALDIA EGIN DUTE ELIZONDON



Altxalili show kabareta aurkeztuko dute azaroaren 4an Arizkunenean. ALTXALILI

dira azaroaren 19an, Arizkuneko sabaian 18:30ean. Udaleko Gizarte eta Berdintasun Zerbitzuek antolatu dute hitzordua.

Santa Zezilia Eguna

Urtero bezala, Baztango Musika Eskolak kalejira antolatu du Elizondoko karriketan azaroaren 21ean, 17:00etan hasita. Euria eginez gero, Braulio Iriarte pilotalekuan izanen da emanaldia.

Menopausiaren auto ezagutza

Neska gazte eta emakumeei zuzendutako *Nire gorputza, nire arauak* tailerra antolatu dute Baztango Gizarte eta Berdintasun Zerbitzuek azaroaren 24an eta 25ean. Emakumeen bizitzan ematen diren ziklo eta aldaketen inguruko kontzientzia eta ezagutza eskuratzeko lanke-ta eginen dute bi saiotan; ortziralean 17:30etik 19:30era eta larunbatean 10:00etatik 12:00etara.

Azaroak 25: Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna

Baztango Talde Feministak eta Iñarrosi Neska* Gazteen Taldeak mobilizazioa antolatu dute azaroaren 25ean

19:00etan Elizondoko plaza-tik abiatuta.

'Trapu zikinak' helduendako antzerkia

Lore-More antzerki taldeak *Trapu zikinak* antzezlana aurkeztuko du 26an Iruritaiko Gizarte Bilgunean 19:00etan. Herri garbilekuak ardatz hartuta, intimitatearen eta indarkeriaren inguruko hausnarketa egiten du lanak.

Azokak Elizondoko plazan

Hilabetero bezala, Baztango ekoizleek eta artisauek haien produktuak erakusgai eta salgai izanen dituzte Elizondoko plazan larunbatetan, azaroaren 2an eta 18an zehazki, goizez.

**BRIKO
BAZTAN, SL**

Drogeria · Garbiketa produktuak
 Ferretaria · Sukaldeko tresnak
 Mozorroak · Papertegia
 Kiroleko eta mendiko jantziak
 Moda · Oinetakoak
 Laneko arropa · Bitxiak
 Lurrin-denda
 Kosmetika, Elektronika
 Telefonoak · Poltsak eta mailetak
 Etab.

T. 608 016 052
 San Andres, 66 · NARBARTE
 (Sarrera Legasatik)

Zigako eskola ez dela hetsiko erran du gobernuak

Urriaren 18an jakinarazi zuen Nafarroako Hezkuntza Departamentuak eskolak irekia segituko duela heldu den urtean

TTIPI-TTAPA

Joan den ikasturtean jakinarazi zieten Zigako eskolako langile eta gurasoei aurtengoa azkeneko ikasturtea izanen zutela. Sei ikasle dituzte gaur egun, baina hurrengo urtean lau bertzerik ez dira geldituko.

Eskola maparen arabera, Zigako eskola hesten bada, gelditzen diren haurrentako Elizondoko eskola da oinarritzko eskualdeko zentroa, eta Elizondorat joan-etorrian ibiltzeko familiek garraio eta jangela zerbitzuetarako dirulaguntza izanen lukete.

Baina haurrak bertze eskola tiki batera bidaltzeko asmoarekin, familiek bilerak egiten aritu dira ikasturte honetan eskolako zuzendariarekin, gobernuko ikuskariarekin eta hezkuntza zinegotziarekin, eskola mapa aldatzeko.



Sei ikasle ditu aurten eskolak.

Hala ere, urriaren 18an Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak, Felix Tabernak, jakinarazi zuen Hezkuntza Departamentuak ez duela inongo asmorik Zigako eskola hesteko. Adibide gisa paratu zuen Aurizko eskola, aurtengo ikasturtean lau ikasle bertzerik ez dituenak matrikulatuak. Beraz, Zigako eskolak irekia segituko du hurrengo ikasturtean.



70 pertsona inguru bildu ziren urriaren 10ean Elizondoko plazan. EH BILDU

Palestinari elkartasuna adierazteko elkarretaratzea eta kartelak Elizondon

TTIPI-TTAPA

Baztango EH Bilduk deituta, 70 bat lagun bildu ziren Elizondon, Gazako sarraskia salatzen eta Palestinarekin bat egiteko. Adierazi zuten, «ez da oraingoa, hamarkadetan etengabekoa baizik, sionismoak palestinaren aurka darabilen genozidio politikoa. Ilegalki okupatutako lurraldeak, etxebizitzak etengabe eraistea, hilketak, atxiloketak eta torturak, Gazaren gaineko blokeoa eta bonbardaketa etengabeak... Azken boladan gogortu egin du gainera jokamolde hau estatu sionistak».

Honen aitzinean, EH Bilduk «irmoki salatu nahi du urteetako zapalkuntza hau eta horren aitzinean Europako estatu gehienek, Espainiak barne, Israeli eskaintzen dioten babesa. Erresuma Batuak ikur palestinarrak erakusteko ezarritako debekua eta Frantziako estatuak palestinaren aldeko mobilizazioak debekatu izana horren lekuko dira».

Hori dela eta, 'Palestina askatu' lemarekin lagunduta, kartelak paratu dituzte Baztango karraketan, «Israeliek Palestinaren aurka aitzinera daraman genozidioa salatzen».

ferreteria

Quevedo

TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK








Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

Baigorriko eta Baztango gazteen topaketa ederki

Bi udalerriek antolatuta, 12-15 urte bitarteko 27 gazte Domaine Oronozia aterpean izan ziren urriaren 20tik 22ra

TTIPI-TTAPA

Udaberrian Amaiurren bildu baziren, oraingoan Baigorriin elkartu dira 12 baztandar eta 15 baigorriar, mugako bi aldeetako biztanleen antzinako harremanak berreskuratzeko, euskara zabaltzeko eta euskalkiak partekatzeke.

Arduradunen arabera, «topaketa arras ongi joan zen eta arras gustura egon ziren». Egondiko «giro ederra» azpimarratu dute; «lehen edizioan baino talde ttiakiagoa izan zen, baina denak gogotsu aritu ziren eta eguraldiak ez zuten trabarik egin».



27 gaztek parte hartu zuten topaketan. BAZTAN ETA BAIGORRIKO UDALAK

Ortziralean partaide guzietan harrera egin zieten eta ezagutzaz joko batzuekin hasi zuten egonaldia. Larunbatean Bankako meategietarat bisita zuten, ondotik piknika indarrak

biltzeko, eta arratsaldean Biddarairat joan zen raftinga egitera. Igandean pintxo lehia-keta egin zuten eta prestatutakoa dastatutakoan etxera itzuli ziren.



Jardueran parte hartu zuten herritarrek Gartzainen. ONDIKOL

'Etxetxipia' film laburraren proiektzioa eta Uhaldeko baserrira bisita

TTIPI-TTAPA

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat lagun bildu ziren Gartzainen urriaren 22an udalak antolatutako ekitaldian.

Lehendabizi, *Etxetxipia* film laburra ikusi zuten. Maria Jesus Larretxea Etxetxipiko gasnagilea du protagonista film laburrak, eta grabazioaren nondik norakoak azaldu zituen. Filmak hainbat gai lantzen ditu; emakume nekazarien eguneroko lan pilaketa, belaunaldi erreleboaren arazoa, landa eremuko problematikak, nekazaritzaren beharra...

Ondotik, Uhaldeko baserrira bisita gidatua egin zuten Amaia Iturririaren eskutik, eta bertze ekoizle batzuk ere haien esperientziak eta ekoizteko ereduak azaldu zituzten. Giro ederra izan zuten bisitan eta eskualdeko baserrietako artisauek prozesu luzeak ulertzeko balio izan zuten.

Azkenik, omenaldia hunkigarria egin zioten Maria Jesusi, bizi oso bateko lana aitortzeko, eta «emakumeen funtsezko papera gizartearen narmendu zuten. Idoia alabak hartu zuen hitza eta ilobak lore sorta eman zion».



Herritarrek prozesua ezagutzea eta parte hartzea zuten helburu. JO ALA JO

Akabaila ederra eman diote Larrazken Kulturalari Arizkungo Gamioxarrean

TTIPI-TTAPA

Gamioxarreko dolarea martxan paratu du aurten ere Jo ala Jo elkarteak, Larrazken Kulturalaren testuinguruan. Sagar bilketak eta garbiketak egin zituzten aste osoan jendearen laguntzarekin, eta urriaren 21ean izan zuten egun nagusia.

Goizean sagarrak bildu eta guzira 1.500 kilo sagar inguru jo zuten. Bazkaria bertan egin zuten, eta arratsaldean hasi zen tinkaldia; 700 bat litro sagardorekin bete zituzten kupalak. Azpilkuetako Ollategiko eta Arizkungo Batzabaleko sagarrak erabili dituzte aurten.



1.500 kilo sagar inguru jo zuten.

Elkartearen erranetan, «jendeak parte hartzea nahi genuen. Sagarra jotzen eta kantatzen ederki aritu ginen eta hilabete pare batera zukua sagardotua egonen da, edateko prest».

Errigorako saskiak azaroaren 9ra arte eskatzen ahal dira

10 urte bete ditu euskalgintza eta Nafarroako produktuak elkartzen dituen proiektuak. Saski bakarria izanen da aurten

TTIPI-TTAPA

Hamar urtez, udazkenarekin batera antolatu du Errigorak *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzkakanpaina*. Urteurren berezia izaki, aurten saski bakarria izanen da aukeran, duela 10 urte proiektua hasi zutenean egin zuten bezala. Azaroaren 9an bukatuko da eskaerak egiteko epea.

Saski berezia izanen da, antolatzaileen hitzetan «originala, biribila eta biderkatzailea». 23 ekoizleren 9 produktu ekologiko eta konbentzional elkarrekin izanen dira saskian.

Saskiak 50 euroko prezioa izanen du, eta diru horren % 25a bideratuko dute Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko euskalgintzarako. Hain zuzen, Tuterako Argia, Vianako Erentzun eta Lodosako Ibaialde ikastoletara, Ager eremuko AEKra, D ereduko lerroetara eta Agerraldiaren ekimenak finantzatzera bideratuko dute dirua.

Urriaren 20an hasi zen eskaerak egiteko aukera, eta azaroaren 9ra bitartean egiten ahalko dira eskaerak. Horretarako bi modu daude: Herriz



Errigorako antolatzaileak ekimenaren aurkezpenean. UTZITAKOIA

herri ezarritako guneetan eskatzea, edota online egitea *errigora.eus* helbidean. Eskae- ra egitean zehaztu beharko da zein guneetan hartu nahi den saskia. Euskal Herri luze zabalean 200 gune egokitu dituzte horretarako, eta tartean eskualdean ere badira batzuk.

Hamar urte bete-bete

2013an jaio zen Errigora, eta geroztik 130.000 saskitik gora

bete dituzte antolatzaileek Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuekin. «Aldi berean, euskalgintzaren zakua ere oparobete dugu—1.800.000 euro— saskiek emandako mozkinekin. Eta, kanpainak joan kanpainak etorri, Errigoraren komunitatearen argazkia betez joan da ekimenera batu garen boluntario, ekoizle, kontsumitzaile, bidelagun eta onuradun berriekin», nabarmendu dute antolatzaileek.

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

10 urte bete-bete

urriak 20 - azaroak 9



Hastapenean bezala 50 eurotako saski bakarria. 23 ekoizleren 9 produktu ekologiko eta konbentzionalak nahasian.

Eskatu saskia!



errigora.eus





Herriko Etxea, frontoi zaharraren aldetik ikusia. MARIFA ETA KORO

Herriko etxe berritua inauguratuko dute azaroaren 10ean

Oraindik ez dago lan guztia finitua, igogailua ez dagoelako martxan eta bizitegiak sukaldia muntatzea falta duelako

MARIFA ETA KORO

Berri onak ditugu Herriko Etxearen inguruan: zaharberritzeko lanak burutu ondotik, azaroaren 10ean inauguratuko dela. Egun horretan, ortziraletan, 19:00etatik aitzinera herritar guztiak gonbidatuta daude Herriko Etxeko xoko guztiak ezagutzera.

Goitiko argazkian ageri den bezala, eraikuntza handitu da, bai gaineko terraza estaliz, baita fronton zaharrari hamar bat metro hartuz ere. Barneko aldean ikusiko diren desberdintasunei dagokienez, jate-txeak bi jangela dituela, bata

beheitian eta bertzea lehenengo pisuan, eta azkeneko pisuan bizitegi bat badagoela, ostata errentan hartzen duenarentzat egokitu.

Azken lanak egitea falta

Halere, oraindik ez da berrikuntza lana guztiz finitua, igogailua ez dagoelako martxan, eta bizitegiak sukaldia muntatzea falta duelako, baina lan horiek ere laister egingen direla jakinarazi du udalak. Ondorioz, luze gabe jate-txearen errentamenduaren enkantea ere martxan eman nahi da.

Arxuriko pistaren proiektua bertan behera utzi dute

Abuztutik honat zainetan kontu gaituen Arxuriko pistaren arazoa moldatu da, zorionez proiektua bertan behera utzi baitute Baztanen. Bigarren bozketan bidea moldatzeko proiektuari uko egin zioten, EH Bildu eta Baztango Independentek taldeetako zinegotzien aldeko botoekin. Zurekin Baztan, UPN eta Geroa Baike zinegotziek abstentziora jo zuten. Baztango udalari eskerrak bidali dizkio Herriko Etxeak, zugarramurdiarren eskaerak kontuan hartu izateagatik.

Udal batzarra azaroaren 3an egingen dute

Herritarrak ahal bezainbat informatuak izatea eta parte hartzea nahi du hauteskudeetan ateratako udal berriak, Argitxu Agerre alkatea buru dela. Horretarako, herriko etxeak hartutako erabaki guztiak jakinarazten ari dira, bai paperez baita whatshapaz ere, herritar guztiei. Hurrengo udal batzarra azaroaren 3an, ortziraletan honetan, 20:00etan hasita izanen dela jakinarazi dute, eta herritarrak agertzerako, ideiak ematera eta parte hartzerako animatu nahi dituzte, erabakiak denon artean hartzeko.



ARTXIBOKOA

Mus txapelketa Sanoki ostatuan

Sanoki ostatuak aldatu du mus txapelketa: lau egunez egin beharrean, egun bakarrean izanen da, azaroaren 11n. 10:00etan hasiko dira, eta arratsaldean finalerdiak eta finala. Izena azaroaren 7a baino lehen eman behar da. Txapelaldun saria 1.000 eurokoa da, eta azpi txapelaldunena 500 eurokoa.

Laborantza ekologikoa eta MICEren musika uztartuko dituzte Arbonan

TTIPI-TTAPA ARBONA

EHKOLEktibok azaroaren 18an egingen du Baserriko Udazkeneko Uztan ekimena Agerrea etxaldean, Arbonan. EHKOLEktiboak kulturaren bitartez agroekologian oinarritzen diren etxaldeak eta herritarrak batzeko helburuarekin anto-

latutako ekimena da Baserriko Uztan.

Miren Narbaiza 'MICE' izanen da Udazkeneko Baserriko Uztari rock notak jarriko dizkiona: «Poz handiz jaso nuen gonbidapena. Sortzaileak eta lurraren zaintzaileak erlazionatuak gaudela uste dut; in-

guratzen gaituenari begiratzen diogu, ulertu, erein eta bizitzak hazten jarrai dezan lan egiten dugu. Espero dut konexio hori sentitzea kontzertuan!», adierazi du abeslari eibartarrak.

Baserriko Uztako jarduna azaroaren 18an, 10:30ean hasiko da ongi etorriarekin eta ondotik etxaldearen bisita egingen dute, hamaiketakoarekin bukatuz. 12:30etik aitzinera Miren Narbaiza MICEk

girotuko du hitzordua eta bukatzean, bazkaria egingen dute EHKOLEktiboko kideen baserrietako elikagaiekin.

Baserriko Uztan parte hartzeko 30 euro ordaindu behar dira, etxaldeko bisita, ekitaldiak, bazkaria eta tailerra barne. 6-12 urte arteko haurrek 15 euro ordaindu beharko dute. Aurretik izena eman beharko da www.ehkolektiboa.eus webgunean, tokia mugatua baita.

Eskolaz kanpoko jarduera aunitz abiatu dira urrian

Stretching, yoga-pilates, dantzunba, kenpo kai eta trikitixa eta pandero ikastaroak hasiak dira

ARANTXA ETA IRAIA

Ikasturte berriarekin batera, eskolaz kanpoko jarduerak ere martxan paratu dituzte herrian eta tartean hainbat kirol jarduera ere eskaintzen hasiak dira aurten. Nahiz eta udan ez ziren klaseak gelditu, aurten ere astelehenetan stretching klaseak emanen dituzten eskolan Jon Medranoren eskutik. Asteartetan, yoga-pilates klaseak ematen segiko dute Isabel Rezolaren eskutik. Berrikuntza gisa, dantzunba klaseak eskainiko dituzte haur eta helduentzat asteazken arratsaldetan Murgarikoen eskutik. Aipatzekoa da jende andana bildu denez frontoian emanen dituztela aurten klaseak. Kenpo kai modalitatean ere joan den urriaren 20an izan zuten lehen klasea eskolan. Urteroko moduan ortzirale arratsaldetan izaten dituzte klaseak. Aurtengo irakasle edo *senseiak* munduko txapelketan izan berri diren eta Tunisiatik hainbat domina ekarri dituzten Modesto Ordoki eta herriko Iñaki Alzuyet, Aiora Alzuyet



Alzuyet aita-alabak.

eta Nahia Alzuyet eta aita-alabak dira. Aitzakiarik gabeko irakasleak, doike!

Musika ere

Trikitixa eta pandero klaseak hartzen dituzten ikasleek ere urriko lehen astean eman zioten hasiera ikasturteari. Astearte arratsaldetan izaten dira pandero klaseak eta ortzegun eta ortzirale arratsaldetan, berriz, trikitixa klaseak. Ageri denez, ohiko eskolaz gain, ez da musikari eta kirolari faltarik herrian!

Film labur baterako casting arrakastatsua egin dute herrian

ARANTXA ETA IRAIA

Lehen ere grabatu dituzte filmak herrian eta joan den urriaren 20tik 23ra, *Nafarroa zinearen lurraldea* lehiaketarako film labur bat filmatu zuten Urdazubin. Horretarako aktoreak bilatzen ibili ziren. Protagonista gisa 40 urte in-

guruko jendea behar zuten, baita zortzi eta hamar urte bitarteko haurrek ere. Pertsonaia sekundario gisa aritzeko, berriz, 65 eta 75 urte bitarteko helduak bilatu zituzten. Ikusi behar orain nola gelditzen den filma eta herriko *aktoreek* egin-dako lana.



ARANTXA ETA IRAIA

Amaiurko Gaztelu taldea lezean kantari

Urriaren 12an, ohiko bisitariez gain, Ikaburuko lezeak Amaiurko Gaztelu kantu taldearen bisita izan zuen. Sarrerako gelako akustika berezia baliatuz, kantu batzuk eskaini zituzten ortzegun goizean eguneroko bisita gidatuen artean. Ikaburuko lezeen Facebook orrian bideoa ikusgai da.

Eskolako liburutegiaren berritzea

Eskolako liburutegia berritzeko ideia izan dute guraso elkartekoek. Herritarrei soberan dituzten liburuak ematea eskatu zuten, nahiz haurrentzako edo helduendako izan. Hortaz, urriaren 17tik 31ra eskolako atarian kartoizko kaxa bat jarri zuten libreki liburuak eskaintzeko.



ARANTXA ETA IRAIA





Erretretatuak urriaren 11n egindako ateraldian. GANEX

Erretretan daudenek Bardozerat ateraldia egin dute aurten ere

Urriaren 11n egin zuten ateraldiaren ondotik, urriaren 28an joatekoak ziren Ainhoako Ur Egui jatetxera

GANEX

Sarako erretretatuen urteroko ateraldia urriaren 11n, asteazkenarekin, egin dute Bardozerat. Herriak antolatutako irteeran 45 lagun baziren eta bidean Beskoitzen gosalduta zuten, Pantxo Bidarten 'Le Repaire' ostatuan. Gero, Bastidako Bastidarra esnetegira bisita egin zuten eta bazkaria Bastidako Les Arceaux jate-txean egin zuten, ongi gainera. Handik herrirat itzuli eta arratsalde hondarreko azken trago bat hartu zuten Herriko Etxeko edantegian, Sarako Gazteriak eskainirik. Izuga-



Bastidan bazkaldu zuten.

rrizko egun ederra pasatu dute, euskaldun kanta eder batzuk emanez, denak umore onean. Erretretatuek eskerrak eman dizkiete Herriko Etxeari ateraldia antolatzeagatik.



GANEX

Ikusi Mikusi azoka jendetsua

Ikusi Mikusi haur eta gazte literatura azokak egin du bere erakusketa urriaren 20an eta 21ean. Denera 1.400 bat haur baziren etorriak, joan den urtean baino gehiago. Herriko gela guztiak hartuak ziren jaialdirako. Larunbatarekin haur horien gurasoak ere hor ziren kiroldegiko erakusketa ikusteko.

Sarako Izarra errugbi taldeko emakumeak taldekide gehiagoren bila

TTIPI-TTAPA

Sarako Izarra errugbi taldea 16 eta 27 urte arteko maila guzietako hogeitabat emakumek osatzen dute egun. Sara, Urruña, Ezpeleta, Azkaine, Uztaritze, Ainhoa eta Zuraidoko neska lagun talde polit bat da, «biziki motibatuak gara Euskal Ligako txapelketan ahalik eta urrunen joaiteko. Ia ia asteburu guziz Euskal Herriko zelaietan ari gara, baina gure helburuetara heltzeko errugbia maite duten hamasei urte baino gehiagoko emakume gehiago behar di-



Izarra errugbi taldeko neskak.

tugu». Astezken eta ortzirale guziz 19:30ean hitzordua izaten dute Animaineko zelaian. Nahiago duenak mezu bat bidaltzen ahal du 06 51 85 84 51 telefonora.

Lurpeko fauna ezagutzeko gaualdi berezia izan dute lezeetan

TTIPI-TTAPA

2023ko Lezearen oroimenazi-kloa urriaren 20an bururatu dute lezeetan lurpeko bioaniztasunari eskainitako *Lurpeko faunaren esplorazioa* gaualdi bereziarekin. Jacques Chauvin bioespeleologoak lurpeko bizi liluragarria aur-

keztu zuen eta lezea esploratu zuten. Izan ere, 70 espezie inguru bizi dira lurpeko galerietan eta horietatik hamabortz bat endemikoak dira eta Sarako lezeetan bakarrik atzemanak izan dira. Horien artean dago *Trechus navaricus*, 2002ko azaroaren 8an atzema-



Sarako lezean baizik ez da ezaguna 'Trechus navaricus' koleoptero troglobia.

San Martin Eguna, dokumentala eta musika azaroan

Hilaren 11n, Inharrian arte-artisten erakusketa egingen dute eta Segi Aintzina elkarteak antolatutako kantaldia Larrekon

JL BESSONART

Mintzaldia, kantaldia, kontzertu eta erakusketa, horra azaroa hastapeneko menua.

Indianoak dokumentala aurkeztuko dute A-Marie Jeannou eta Siefried Wapplerrek, Larreko salan **azaroaren 9an**, 19:00etan, urririk. Angeluko Ibaialde elkarteak eta Montrealeko Euskal-etxeak, San Lorenzo ibaia gaindi eraman abentura hizpide.

Azaroaren 11n, berriz, 17:00etan, Larreko aretoan gaitzeko kantaldia, Segi Aintzina elkarteak antolatutako, Charles Ollivon errugbilaria delarik babesle. Kantarietan, besteak beste, Patxi Garat, Bost Axola, Yannick Tellechea, Maina Ortiz, Kurruka eta sorpresa anitz. Sarrera dohainik izanik ere, Lena eta Marie-Ana, bi neska gazte hauen inguruan finkatua da kantaldia, jakinez jasaiten dituztela sufrimendu bortitzak, erreumatismoari lotuak diren eritasunekin. Xedea baita diru biltzea egitea ikerketa eta laguntza medikurako. Egun berean San Martin eguna ospatuko dute Inharria



'Indianoak' dokumentaleko irudia.

baserrian, arte-artisten erakusketa egunean zehar, aurten Erdi Aroa argitan emana da sekulako animazioekin, ohiko egun hori hutsezina da, bada zer ikusi eta zer erosi.

Azaroaren 12an, 17:00etan elizan, musikazaleendako kontzertua: Beethoven eta Schubert-en bi sonata eskainiko dituzte Florent Albrecht (pianoa) eta Jean-Marc Phillips-Varjabedian (biolina) musikariek.

Hego Afrikak zapuztu du Ollivon eta Lucu herriko errugbilarien ametsa

JL BESSONART

Gibelera so eginez, Hego Afrikako taldeak (baita zombaiten gustuz epailearen erabakiek) zapuztu dute Frantziako ekiporearen ametsa. Ez ote da kirolaren lege latza, galtzailea kanpo bertzeak jo aitzina. Charles Ollivon eta Maxime

Lucu gure bi herritarrek, uste baino lehenago bakoitzak bere klubaren bidea hartu behar izan du. Aldi berean, gure taldeak ezin hobeki hasi du denboraldia: sailkapenean lehen postuan dago eta dirudienez ongi armatua da leku horretan mantentzeko.



JL BESSONART

'Liburua familian' arrakastatsua

Liburua familian aurtengo edizioak sekulako arrakasta ukan du. Jende anitz hurbildu da Larrekorra. Lehen estaian aurkeztuak izan diren ikusgarri gehienak jendetsuak izan dira eta jendea lorietan. Liburu azokan, dozena pare bat idazle beren obren aztertzen, hauetan anitz hurbilekoak.



Argazki lehiaketako saridunak, auzapezarekin. UTZITAKOAK

Urri Arrosan emazteen minbiziaren kontrako ekimenak eta Klimaren Astea

JL BESSONART

Hilabete honen marka dudarik gabe, orain ohikoa den *Urri arrosa*, hemen nabaritu baita emazteen bularreko minbiziaren aurka egin diren ekintzak. Hauetan ezartzeko da Ibar-Run oinezkoen ibilaldia. Honi uztartzeko da ere *Nesk'a Paillettes* dantza ikusgarria, Catalina Gomes-ek moldatu koreografian. Han-hemenka anitz herrietan, ekimenak sortu dira, minbiziak hunkitzen dituen eriak eta hauen familiak laguntzeko xedearrekin.

Urriaren kokatua da ere Klimaren Astea. Gure herrian azpimarratzekoa da François Morrissetek eman duen hitzaldia klimari buruz. Interes handikoa izan zen, nahiz pixka bat beldurgarria ere izan, geroari buruz. Larreko kulturunean bildu ditu 60 kide.

Bertze ekimen berezia, *Ura-aren tokia, klimaren beroketa ikusiz* goiburupean egindako argazki lehiaketa. Parte hartze handia ukan du. Lehen saria Marie-Ange Cazaubonek eskuratu du, bigarren saria Regis Bertrandek eta hirugarren saria Camille Bluy-Llorentek.



44 korrikalariak Eztegarako irteeran. ARANTXA ARREGI

Ordoñez eta Garin nagusitu dira Lizuniagako Igoeran

44 korrikalarik parte hartu zuten proba nagusian eta Gwendal Larque beratarrak hirugarren izan zen gizonetzkoen artean

TTIPI-TTAPA BERA

Urriaren 21ean egin zuten Beran Gure Txokoa elkarteak antolatutako Lizuniagako Igoeraren 42. edizioa. Denera 44 parte hartzaile izan ziren helduen kategorian, eta haurrentzako krosa ere egin zuten. Emakumezkoen kategorian Maria Ordoñez izan zen ira-

bazlea 20.23ko denbora egin, bigarren Cristina Arbues izan zen 23.38ko denborarekin eta hirugarren Ana Paula Tamayo de Souza 25.36ko denborarekin.

Gizonetzkoen kategorian, berriz, Aritz Garin izan zen irabazlea. Garinek 17.45 minutu behar izan zituen 4.9 kilome-



Gwendal Larque hirugarren.

troko ibilbidea osatzeko. Bigarren Tristan Janmart izan zen 18.04ko denbora eginda eta hirugarren Gwendal Larque herritarra 18.05eko denborarekin.

Errekorra haustetik urruti ibili ziren bai gizonetzkoen eta bai emakumezkoen kategorian. Junior mailako lehenengo sailkatua Luken Ansalas izan zen, eta beteranoetan Javier Delgado eta Teresa Igoa. Lehenengo herritarrak, berriz, gizonetzkoetan hirugarren sailkatutako Gwendal Larque eta Jone Olaetxea.

Ondotik sari banaketa ekitaldia egin zuten eta Jaione Dozagarat Gure Txokoako presidentek eman zituen garaiurrak.

Kautxoa kendu beharko dute eskualdeko futbol zelaietan ere

TTIPI-TTAPA

Belar artifizialeko zelaietan ohikoa den kautxoa kentzeko Europako araudira egokitu beharko dituzte eskualdeko zelaiek ere. Itxura batean, zortzi urteko epea izanen lukete zelai horietako osagaietako bat den kautxoa kentzeko. Elizondoko Giltxaurdin eta Lesakako Mastegin kautxoa dute eta hori aldatu beharko lukete. Doneztebeko Iñaki Indart zelaian ere kautxoa dute, «baina agudo aldatzekotan gaude», aipatu digu Gari Urroz Doneztebe Futbol Taldeko presidentek. Berako Matzadan, azken egokitzapenetan kortxoa eta kokoa erabilizuten, «garestiagoa zen, baina Europako araudi honetaz ohartarazi ziguten eta hala egitea erabaki genuen», aipatu digute. Leitzako Arkiskil da belar naturala mantentzen duen zelai bakarra, baina Aurrera elkarte eta Leitzako udala mugitzen ari dira azken aldia belar artifizialekoa egiteko.



UTZITAKOA

Ane Elzaurdia garaile Basajaun Trailen

Galdeanon abiatu eta Lokiz mendilerroan barna urriaren 14an egindako Basajaun Trail Race mendi lasterketan garaile suertatu zen Tolosako Alpino Uzturre taldeko Ane Elzaurdia Mentaberri beratarrak, 23 kilometroko ibilbidean. Beteranoen artean, Gure Txokoako Joseba Lasarte beratarrak nagusitu zen.



UTZITAKOA

Hiru Hiriburuak txapelketan sarituak

Hiru Hiriburuak txapelketan eskualdeko hiru pilotari izan ziren finalista. Pilota goxoarekin, gaztetan, Alize Sagardui goizuetarra txapelkun izan zen (42. orria) eta Irati Arozena txapelkunorde nagusietan (argazkian). Pilota mistoarekin, gaztetan garaile izan zen Sunbillako Nahia Bertiz (24. orria).



Nerea Sorondo, Nerea Arruti eta Oihana Fernandez de Barrena podiumean.

Nerea Sorondo Euskal Herriko txapeldunorde

Nerea Arruti suertatu zen txapeldun urriaren 15ean Elgoibarren eta Maika Ariztegi iturendarra bosgarren izan zen

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko emakumezkoen aizkolari txapelketaren finala jokatu zen urriaren 15ean Elgoibarren. Pronostikoak bete eta Nerea Arruti suertatu zen txapeldun. Sei pago enbor moztu behar zituzten finalean: bi kanaerdiko, bi 45 ontzako eta bi 36 ontzako. Nerea Arrutik 17 minutu eta 59 segundo aski izan zituen lana burutzeko. Ia lau minutuko aldea atera zion bigarren izan zen Nerea Sorondo beratarri (21.54) eta zazpi minutu baino gehiagokoa hirugarren izan zen Oihana Fernandez de

Barrena arabarrari (25.10). Laugarren postuan Ane Zapirain sailkatu zen (29.13), bosgarren Maika Ariztegi iturendarra (30.59) eta seigarren Malen Barrenetxea (35.26).

Oihan Larretxea finalista

Elgoibarko jaialdi berean Euskal Herriko bigarren mailako gizezkoen aizkolari txapelketako kanporaketa ere jokatu zuten. Zazpi aizkolari aritu ziren lehian, azoaren 11n Arrietan (Bizkaia) jokatu den finalerako txartelaren bila eta Oihan Larretxea beratarra nagusitu zen.



Beti Gazte, Berriozar eta Amaieur A taldeek osatu zuten podiuma.

Beti Gaztek irabazi du Nafarroako sokatira txapelketa mistoa

TTIPI-TTAPA

Nafarroako sokatira txapelketa mistoko bigarren eta hondarreko jardunaldia jokatu zuten urriaren 21ean Antsoainen, txapela jokoan. Zortzikoa 560 kiloko kategorian aritu dira pisu honetan eta astebete lehenago Leitzañan jokatu zuten lehen jardunaldian bezala, Lesakako Beti Gazteko zortzikoa nagusitu zen tiraldi guztietan eta gisa horretara, txapela lortu zuen. Berriozar bigarren izan zen eta Amaieur A hirugarren. Beti Gazteko zortzikote txapeldunean Ander Mitxelena, Karmele Pikabea, Irantzu Goienetxe, Beñat Ordoki, Unai Gurrutxaga, Maddalen Lopez, Iñigo Alzugarai eta Maria Iantzi aritu ziren tiran finalean, Joxe Angel Mitxelena laguntzaile zutela.

Beti Gazteren ondotik, Berriozar eta Amaieur A igo ziren

podiumera. Aipatzekoa da Amaiurrek bi zortzikote paratu dituela goma gainean txapelketa mistoan eta hirugarren eta bosgarren postua lortu dute. Txantrea laugarren izan da eta Antsoain seigarren.

Gizonak eta emakumeak

Txapelketa mistoa erabaki ondotik, gizezkoen eta emakumezkoen txapelketetako lehen jardunaldia **urriaren 29an** jokatzekoa zuten Elizondon eta **azaroaren 5ean** banatuko dituzte kategoria hauek txapelak, Beran. Gizezkoetan zortzikoa ari dira 620 kiloko kategorian eta eskualdeko bi taldeekin batera, Antsoain, Berriozar eta Txantrea ari dira eta emakumezkoetan sei talde seinaka, 385 kiloko kategorian: Amaieur, Antsoain, Araxes, Berriozar, Beti Gazte eta Txantrea.

Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketaren finala Donezteben

TTIPI-TTAPA DONEZTEBEN

Nafarroako aizkolari txapelketako finala jokatu dute azaroaren 17an, 18:00etan Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan, ferien barrenean. Lehen urriaren 15ean jokatu zuten kanporaketan bostz aizkolarik lortu zuten finale-

rako txartela: Iker Vicente gaur egungo txapeldunak, Ibai Soroak, Jon Rekondo leitzarrak, Joxean Etxeberria zigatarrak eta Txomin Amundarainek. Ohiko lana egin beharko dute finalean: lau lanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko enbor moztea.



Donezteben ariko diren bostz finalistak kanporaketaren ondotik.

AGENDA

AZAROAK 2 - 16

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARANO San Martin Eguna

Ta argiya in zan dokumentalaren proiektzioa Maisuenean. Ondoren, talo eta gaztaina jatea elkarteko atarian. Azaroaren 11n, 18:30etik aurrera. Informazio gehiago 44. orrialdean.

MUSIKA

LESAKA

Jubilatuen Elkarteko kantu tailerra

Koskontako bidean, azaroaren 3an, 17:00etan.

ELIZONDO

Jeff Espinoza eta The Gypsy Runner Trio

Arizkunenean, azaroaren 5ean, 19:00etan.

Bailableak

Plazan, azaroaren 12an, 12:30ean.

Ursaria

Arizkunenean, azaroaren 12an, 19:00etan.

GOIZUETA

Vicente Garcia eta Umore Ona

Elizan, azaroaren 11n, 19:15ean

LEITZA

Ibil Bedi eta Haira

Atekabeltz Herrigunean, azaroaren 11n, 23:00etan.

SENPERE

Gaitzeko kantaldia

Larrekon, azaroaren 11n, 17:00etan.

Beethoven eta Schuberten sonatak

Florent Albrecht eta Jean-Marc Phillips-Varjabedianen eskutik. Elizan, azaroaren 12an, 17:00etan.

PROIEKZIOAK

LEITZA

Zinema

Herri Aretoan, azaroaren 4an eta 5ean. 17:00etan 'Superheroiaren familia' eta 19:30ean 'A Hunting in Venice'.

SUNBILLA

'Penitencia' dokumentala

Udaletxeko sabaian, azaroaren 8an, 19:00etan.

SENPERE

'Indianoak' dokumentala

Larrekon, azaroaren 9an, 19:00etan.

ETXALAR

'Mendian hil hirian hil' dokumentala

Kultur etxean, azaroaren 9an, 19:00etan.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE

'Urpekariak' haurrentzako

Zineman, azaroaren 3an, 18:00etan.

Erreka Dantza Taldea

Kiroldegian, azaroaren 11n.

ELIZONDO

'Altzalili show'

Arizkunenean, azaroaren 4an, 19:30ean.

BERA

'Intxaurra' antzezlan

Kultur Etxean, azaroaren 4an, 19:00etan. Sarrerak 6 eurotan.

ETXALAR

Sahatsa Dantza Taldea

Frontoian, azaroaren 11n, 19:00etan.

LEITZA

'Intxaurra' antzezlan

Mairu Antzerki Taldea. Herri Aretoan, azaroaren 12an, 19:00etan.

SOLASALDIAK

DONEZTEBE

'Jenisjoplin' liburuaren aurkezpena

Uxue Alberdirekin. Liburutegian, azaroaren 2an, 18:00etan.

'Gaixotzen gaituzten emozioak'

Herrigunean, azaroaren 11n, 10:00etan.

LESAKA

'Lesakako Roqués Organoa (1893-2023)' liburuaren aurkezpena

Harriondoan, azaroaren 5ean, 18:30ean.

'Los Descalzos' liburuaren aurkezpena

Francisco Javier Irazokirekin. Udal Pleno Aretoan, azaroaren 11n, 19:00etan.

'Kabiak' erakusketako kamishibai eta solasaldia

Liburutegian, azaroaren 16an, 17:30ean eta 18:30ean.

ELIZONDO

'Nire espazioa eman' haurrendako bakarrizketa

Elizondoko Eskolan, azaroaren 15ean, 18:00etan.

AMAIUR

'Liburu sendalaria' ipuin kontaketa

Otsondoko gelan, azaroaren 16an, 17:30ean.

«Entrenatzea eta konstantzia inportanteak dira herri kiroleetan»

ESTI GASTEAREBA VILLANUEVA SUNBILLAKO HERRI KIROLARIA



«Sunbillako herri kirol zalea» da Esti Gastearena Villanueva. Herri kirolak ez ezik, «mendia, bidaiatzea eta goizeko kafea» ere ditu gustuko sunbildarrak.

Karga emozionalaren ihesbide

2011n hasi zen Gastearena herri kirolen munduan; «anaiak izandako istripu larriaren ondotik, bizi nuen egoera emozional handiri ihes egiteko helburuarekin». Garai hartan Txantrean bizi zen, «eta Berriozar Kirol Elkartearen hasi nintzen sokatiran, lagun batek gonbidatuta».

Geroztik ez du herri kirola utzi, eta hainbat probatan aritu da: «sokatiran Amair Sokatira Taldearekin, arpana mistoan Unai Bertizekin, harri tiratzean, ingudeare-

kin... bertze modalitate hauetan Patxi Larretxearen Gure Kirolen Kluban entrenatzen naiz, Baztanen. Bera-ri esker murgildu naiz sakonki mundu honetan». Hala ere, aitortu du «sokatiran eta txingetan» aritzen dela gusturago.

Plazaz plaza

Entrenatzen hasi eta hilabete eta erdira izan zuen lehendabiziko txapelketa. «Geroztik Nafarroako, Euskal Herriko eta mundu mailako txapelketetan parte hartu dut».

«ORAINDIK AMETS AUNITZ DITUT BETETZEKO»

Noski, horretarako entrenamenduak ezinbertzekoak dira; «txapelketa garaian, modalitatea astean bi aldiz entrenatzeaz gain, bertze ariketa fisikoekin osatzen dut entrenamentua. Hala ere, ahalik eta prestatuena plazaratzea gustatzen zait, eta aunitzetan nahiko nukeena baino guttiago entrenatua joaten naiz txapelketetara».

Gorputza entrenatzeaz gain, burua prestatzea ere garrantzitsua da; «hagitz neska urduria naiz, hortaz, taldeko kiroleetan babestua- go sentitzen naiz. Hala ere, ariketan sartu eta arreta lanean paratzen dudanean, jendearen oihuek eta txalok indar handia ematen dute. Horiek gabe lana bukatzea gehiago kostatzen da».

Baina lanaren emaitzaz ere gozatu du Gastearenak, hainbat txapel lortu baititu lehia- ketetan. Horren sekretua argi du: «entrenatzea eta konstantzia. Saiatu, saiatu eta ez etsi. Buruko lana hagitz garrantzitsua da».

Etorkizunera begira

Kirolarekin bete nahi dituen «amets aunitz» ditu sunbildarrak. Izan ere, «oraindik urte pila segitu nahi dut aktibo eta aunitz amesten dut: semearekin txapelketaren batean parte hartzea, sokatirako munduko txapelketan berriz lehiatzea edo marka saiakera bat egitea, adibidez».

Herri kirolek «hamaika bizipen» eman dizkiote: «nire euskarria den bikotea, Unai Bertiz, plazan ezagutu nuen; betiko lagunak ere egin ditut; pozez eta minez hainbat aldiz

egin dut negar; zenbait bes- ta, otordu, bidai, momentu eta plan baztertu behar izan ditut; txapelketaz txapelketa Euskal Herria zeharkatu dut...».

Horrez gain, «herri kirolak konplexu dezente kendu dizkit. Hasi nintzenean gizon- nezkoentzako kiroltzat har- tzen ziren eta horren aurka borrokatu behar izan du- da la sentitzen dut. Glaukoma- ren abestiak dioen beza- la: *estereotipoak hausten eta gure rola zalantzan jartzen*».

Izan ere, «azken urteetan aunitz indartu da emakumeen parte hartzea, eta gero eta neska gehiago plazaratzeaz gain, lanaren maila ere igotzen ari dira. Telebistan gero eta gehiago ikusten dira eta herriek ere eskatzen dute emakumezkoen presentzia erakustaldietan. Gure fede- razioak urteak darama ildo horretatik lanean eta uste dut fruituak ematen ari dela: Emakumezkoen Aizkora Txapelketa edota herri herriko mistoa, adibidez».

Gainera, eskualdean segi- da ona ikusten dio herri kirolari; «gero eta gehiago gara. Bertze kiroleetatik heldu diren neska-mutil aunitz hasi dira herri kiroleetan: mendizaleak, lasterkariak, errugbilar- riak, crossfiteroak, txirrin- dulariak... erronkatzat hartzen dituzte herri kirolak eta hori hagitz aberasgarria iruditzen zait. Kirolari hagitz konpletoak daude gaur egun herri kirole- tan».

Etorkizunera begira, «entrenatzea eta hobetzea» da Gastearenaren helburua; «fisikoki iraila gogorra egin zait, eritu nintzen eta orain- dik horri buelta ematen ari naiz. Pena dut tartean arpa- na txapelketa tokatu izana, bikotekako lana denez, gure maila ematen ez utzi izana- ren arantza dut Unaiekin. Agian heldu den urtean?».

«HERRI KIROLAK KONPLEXU DEZENTE KENDU DIZKIT»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMATEKO

ITUREN. Etxea errentan emateko. Bi logela. Lorategiarekin. ☎640 93 63 22.

ERRENTAN HARTZEKO

BERA. Pisu bat errentan hartu nahi nuke. Pertsona arduratsua eta garbia. ☎600 64 34 60.

SALGAI

ELIZONDO. Giltxaurdi karrikan pisua salgai: 3 logela, egongela, balkoia, hall, bainugela (berritua) eta sukalde (berritua). Oso eguzkitsua. Bizitzera sartzeko prest. 105.000 euro. ☎676 88 83 35.

GARAJEAK-LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Pabiloia errentan emateko. 155 m², hormigoizko lurra, kamioientzako sarrera egokia eta N-121tik hurbil. ☎600 90 10 58.

LANA

ESKARIAK


Zugarramurdin bizi den 50 urteko emakumea, adinekoen zaintzailea eta bere kotxearekin, Saran, Zugarramurdin, Ainhoan edo Urdazubin interna ariko litzateke. ☎643 51 37 80.

ESKAINTZAK


SUNBILLA. Adineko pertsona bat zaintzeko norbaiten bila ari dira, externa aritzeko. ☎699 14 66 85.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



BERA. Katutxoak oparitzeko. ☎680 88 77 56



Bi hilabeteko katakumea oparitzeko. Ama siamesa. ☎666 26 41 16.

10 hilabeteko zakurkumea oparitzeko. Border Collie eta euskal artzain arrazen nahasketa. Obendientea,

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 euro**

Irargarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira


TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPA ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

maitekorra eta hagitz azkarra. ☎639 60 70 36.



BAZTAN. Collie eta euskal zakur nahasketaren txakurkumea oparitzeko, hiru hilabetekoa. Pertsona arduratsu batentzat. Telefono finkorra deitu edota zalantzak Whatsapez. ☎948 58 11 36 / 636 18 15 46.

DENETARIK

EROSI

Helduentzako egokia eta egoera onean dagoen trikitixa erosiko nuke. ☎628 82 84 80 / 948 63 80 44.

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Egur idorra salgai, sutarako prest, pagoa eta haritz amerikanoa. Etxera eramateko zerbitzua egiten dute, lote osoa nahi izanez gero, zerbitzu bera eskaintzen dute. ☎634 70 33 10.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,33 €
- 1.koa 5,21 €
- 2.koa 5,09 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,39 €
- 1.koa 5,16 €
- 2.koa 4,93 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 11,00/11,10 €
- 8-10 kilokoak: 9,10/9,80 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 70 €

Zerri gizona 1,707 €

Zerramak 0,910€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua urriaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)

MOTORRAK

SALGAI



Royal Enfield Himalayan 400 motorra salgai. 2018. urtekoa, 3.000 km bakarrik ditu eta beti garajejan egondakoa. Erabiltzeko denbora faltagatik saltzeko. Prezioa: 3.700 euro. IAT/ITV 2025era arte pasatua. ☎674 79 58 63.



Volkswagen Multivan 2.5 TDI furgoneta salgai. 2000koa, guztiz ekipatuta. Beheko ohea eta goiko ohearekin. Berogailua, eguzki panela, arroparentzat armairua eta ur arraska altzariarekin. Urteak ditu, baina zainduta dago. IAT-ITV urtero eta homologaturik. 11.000 euro. ☎680 94 61 49

TAILERRAK



EZKONTZAK

• **Jean Parent** eta **Blanca Losada**, Saran, urriaren 7an.

SORTZEAK

• **Marion Detre**, Sarakoa, urriaren 12an.

URTEBETETZEAK



Donamariako **Aratz Goñik** urtea beteko du azaroaren 7an. Aunitz urte familia guztiaren partez eta bereziki Oinatz eta Egoiren partez. Muxu handi bat!



Olaia Hita Aranguren igantziarrak 11 urte bete ditu urriaren 18an. Aunitz urtez etxeko 'pro'ri!!! Muxu handi bat gurasoen eta Ainararen partez.



Arantzako **Aimar Baleztena Goñik** 6 urte bete ditu urriaren 29an. Zorionak eta aunitz urte familia guztiaren partetik.



Leitzako **Haizeder, Laia eta Izargi** lehengusuek urteak beteko dituzte urriaren 22an, 31n eta azaroaren 19an. Zorionak eta muxu handi bana gure hiru sorgintxoek!



Aimar Zubieta Garcia beratarrek 5 urte beteko ditu azaroaren 3an. Ongi pasatu eguna! Zorionak familia eta batez ere atxa, ama, Eñaut eta Aneien partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAN!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; TTIPI-TTAPAREN **bulegora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA edo **Whatsapez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 € argazki ttikia eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA webgunean sartuta: kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.

KONTATU KONTUAK



LEITZAKO SORTU

Palestinarreri elkartasun keinua Leitzan. Leitzako Sortuk *Gerrarik ez!* lelopean elkarretaratzea antolatu zuen urriaren 16an herriko plazan. Azken aldiko berriak ikusita, palestinarreri elkartasuna adierazi, Palestina askatzeko deia egin eta elkarrizketa politikoa dela bidea azpimarratu zuten bildu zirenek.



JULEN MITXELTORENA

Pentsiodunak protestan. Ikasturte honetako bigarren elkarretaratzea urriaren 16an Beran egin zuten Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimenduko kideek. Nafarroan 1.080 euroko guttieneko pentsioen alde martxan den herri ekimenarekin bat eginez, sinadurak biltzen hasi ziren. Azaroaren 11ko manifestazioan eta azaroaren 30eko greba feministan parte hartzeko deia egin zuten.



IRUNE ELIZAGOIEN

Auzolagintza hizpide Etxalarren. Urriaren 21ean, udazkeneko Kultur Egunen barrenean, *Auzolagintza* dokumentala eta solasaldia izan zituzten Etxalarko Pello Apezetxea Kulturgunean. Herritar andana hurbildu zen eta ondotik, garai bateko eta egungo auzolanez gogoeta egin zuten Tolomendi elkarteokoin.

Kontatu, kontatu!

Argazkiren bat erakutsi nahi baldin baduzu, bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppez 744 484361 zenbakira.

E.S. DONEZTEBE

Leitzako erreplida, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

www.doneztebe.net

KOTXE GARBITEGIA

ShineTecs®

KONPONTZE EFEKTUA
duen pintura babeslearekin

- > Acrylonic formula patentatua. Argizaria baino hobea.
- > Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean
- > Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

FURGONETA GARBITEGIA

2,60 m

2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!

URTEURRENA

**Jose Angel
ALZUGUREN PERURENA**
Kotto

Beran, 1966/03/03 - Sorian, 2005/10/31
XVIII. urteurrena

Izan zirelako gara
Garelako izanen dira.
Guretzat eta Euskal Herriarentzat
betiko argia.



ETXEKOAK

OROIGARRIA



Joan zinen eta, zure hutsa nabaria da Malerrekako eskola guztietan.
Oraina murgildu beharko, iraganean jositako oroimenetan.
Xuxurlatzen digu oraindik, zure hizkera alaiak denon belarrietan
Eskerrik asko Jose, beti gure bihotzetan.

Malerrekako eskolak.



HILBERRIAK

- **Jean Baptiste Iturria**, Sara, urriaren 4an, 73 urte zituela.
- **Jean Luc Sandre**, Sara, urriaren 12an, 57 urte zituela.
- **M^a Josefa Rodenas Arruti**, Elizondo, urriaren 10ean, 94 urte.
- **Josefa Sein Apeztegia**, Elgorriaga, urriaren 10ean, 87 urte.
- **Itziar Sagastibeltza Sagastibeltza**, Leitza, urriaren 12an, 91 urte.
- **Santiago Garmendia Irazoki**, Arraioz, urriaren 17an, 78 urte.
- **Patxiku Andueza Oskoz**, Doneztebe, urriaren 19an, 73 urte.
- **Juan Peña Perugorria**, Bera, urriaren 20an, 100 urte.
- **Inocencia Arriada Alcasena**, Elizondo, urriaren 21ean.

IZARRA
HERRI, ZURE ONDORU
ARABA, PELAIOSO

Gure harria,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

BB
BAZTAN
BIDASOA
Herriko Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

**Herencias y
Gestión**

- Zuregandik hurbil gaude
- Mugaz gaindiko herentzien onarpena
- Gizarte segurantzaren pensioen eskaera
- Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasygestion@gmail.com


DENBORA-PASAK

HITZ GEZIDUNAK

	Gipuzkoako udalerrria	Ozeaniko uhartedia	Bero fogaria	Zurlaren antzokoa	Euskaltzagi sarea
	Galaraziak	Lasaibon	Kalekoak, kalekumeak	Txori mota	Ate, hitz elkarrekin
	Iskarbilla, zarata				
	Jokatu zales				Presaz
◆ Deitura		Nire		9	Fosforoa
Arzaila, zergatikoa	Berfizaranako herria	Bikal birbila		Era eman	Orduz, ordu
◆ Izena			Eteleko joera du		
Beginina			Egoskin mota		
		Errusiako erperadore		Laborarien lanabes	
		Joan den gauean		Melatezko soka	
Erbia		Krotoalak, leinarrak			Jokalik gabeko donia
Omodun urkeheretara		Bizkaieraz, bezala			Frantziako ibia
			Artaburuaren alia		
			Jupiterren satelitea		
Urtean hordatu gabe			Beribilak		
Zitak, maizuzak			Lehenengo letra		
				Suziako sumendia	

◆ Eskubaloiz jokalaria doneztebarra

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Piltzarrez jantzia, gaizki jantzia. [2] Palan jokatzeko duen pilotaria. [3] Baztango mendia (1.049 m). [4] Errenkada, lerroa. [5] Uhartea [6] Jardun. [7] Labore mota. [8] Eguraldia. [9] Ezkertiarraren gustuko kolorea. [10] Bidalia. [11] Nafarroa Behereko udalerrria, Baigorri-Ortzaizen.

ERANTZUNAK




PLAZAN BAZAN

ZORIONAK!
AITOR OTEITZA JAUREGI
840. aleko irabazlea zara!

NON DEMONTRE...

Lagundu txerrikume honi gogoan duen adiskidea aurkitzen. Eroen gisan atera dira denak kortatik, eta orain bi lagunek ez dute elkar aurkitzen.



Marratzikiak: Garbifite Ubedia (Alamri)



Loguntzailea:

ibaizabal

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emailtzekin azaroaren 6a baino lehen, Ttipi-Ttapako Whatsappera:
(0034) 744 48 43 61 zure izen abizenak jarrita.
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!




INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eu/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eu/kiosk.oa/soluzioak

HIRU TXERRITXOAK

Ispiluan baleude bezala ikusten dituzun bi irudiok berdinak ematen dute, baina ez dira hala. Guztira 14 ezberdintasun aurkitu behar dituzu.



HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordena itzazu eltzetsu hauek handienetik txikienera letik 8ra zenbakituz.



Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Kontaktatu bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipe-txartela

840 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Genaro Fagoaga Etxeberria | URDAZUBI
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Fco. Jabier Larretxea Goni | DONEZTEBE
Ez kexa - Kamiseta bat
Pili Telletxea Lastiri | ARANTZA
BKZ Abentura - Sarrera bat
J. Manuel Mitx. de Lizarrondo | ATARRABIA
Lesakako Udal Kiroldegia - Bi sarrera
Garbiñe Agara Altzuguren | BERA
Kukuka - Haurrendako lote bat
Jose Antonio Kortadi | OROÑOZ-MUGAIRI
Maite Moda - Jertse bat
Lourdes Santesteban | ZUBIETA
Arkupe - Lote bat
Gregorio Durruti Meaka | ARIZKUN
Ikaslekar - Bi liburu
M^a Rosa Bikondoa Gamio | LEITZA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariums.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Poltsa bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

IRRISARRI LAND
www.irisariland.com



Sarrera bat

KIMETZ
www.kimetzbelarrenda.com



Saski bat

SALTING IRUÑA
www.saltingcenters.com



Bi sarrera

MARTIKO
www.martiko.com



Lote bat

ANIKOTE
©Anikotel.eziza



Saunarako bi sarrera

Sartu

ttipi.eus/ttipe-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGIALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipe Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttipe Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.

MUSIKA

Hiru CD



Deskontuak eta zozketa: Ttipe-Ttapa aldizkari
guztietan Ttipe Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketa eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

airaka

www.airakamusic.com